

# VI. Inkesta Soziolinguistikoa

2016





# VI. Inkesta Soziolinguistikoa

# 2016

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLITICA LINGÜISTICA

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

**Vitoria-Gasteiz, 2019**

Lan honen bibliografa erregistroa Eusko Jaurlaritzaren *Bibliotekak* sarearen katalogoan aurki daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpac>

Argitaraldia: 1.a, 2019ko urria

Ale-kopurua: 2.500

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Kultura eta Hizkuntza Politika Saila

Internet: [www.euskadi.net](http://www.euskadi.net)

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
Donostia-San Sebastian, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Azala: Antton Olariaga

Maketazioa: Concetta Probanza

Inprimatzailea: Leitzaran Grafikak

ISBN: 978-84-457-3504-6

Lege Gordailua: VI 1173-2019

# AURKIBIDEA

<b>HITZAURREA</b>	9
-------------------	---

## **EUSKARAREN EREMU OSOA**

1. Biztanleria	13
2. Hizkuntza-gaitasuna	15
2.1. Hizkuntza-gaitasuna erkidegoaren, lurraldearen eta hiriburuaren arabera	15
2.2. Hizkuntza-gaitasuna sexuaren eta adinaren arabera	20
2.3. Hizkuntza-gaitasun erlatiboa: euskaldunen erraztasuna euskaraz egiteko	22
3. Hizkuntzaren transmisioa	29
3.1. Lehen hizkuntza erkidegoaren, lurraldearen eta hiriburuaren arabera	29
3.2. Lehen hizkuntza sexuaren eta adinaren arabera	33
3.3. Euskaldunak lehen hizkuntzaren arabera	36
3.4. Familia bidezko hizkuntzaren transmisioa	40
3.5. Euskararen irabaziak eta galerak	46
4. Euskararen erabilera	48
4.1. Euskararen erabilera erkidegoaren, lurraldearen eta hiriburuaren arabera	48
4.2. Euskararen erabilera sexuaren eta adinaren arabera	52
4.3. Euskararen erabilera hainbat eremutan: etxean, lagunen artean, eremu formalean	54
4.4. Euskararen erabilera sare sozialetan	58
4.5. Euskararen erabilera euskaldunen artean	59
4.6. Euskararen erabilera euskaldunen artean erraztasunaren arabera	61

5. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera	63
5.1. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera erkidegoaren, lurraldearen eta hiriburuaren arabera	63
5.2. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera hizkuntza-gaitasunaren, sexuaren eta adinaren arabera	67
5.3. Euskarari buruzko interesa eta beste zenbait iritzi	68
6. Laburbilduz	72

## **EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA**

1. Biztanleria	77
2. Hizkuntza-gaitasuna	81
2.1. Hizkuntza-gaitasuna lurraldearen eta hiriburuaren arabera	81
2.2. Hizkuntza-gaitasuna sexuaren eta adinaren arabera	85
2.3. Hizkuntza-gaitasun erlatiboa: euskaldunen erraztasuna euskaraz egiteko	88
3. Hizkuntzaren transmisioa	95
3.1. Lehen hizkuntza lurraldearen eta hiriburuaren arabera	95
3.2. Lehen hizkuntza sexuaren eta adinaren arabera	98
3.3. Euskaldunak lehen hizkuntzaren arabera	100
3.4. Familia bidezko hizkuntzaren transmisioa	104
3.5. Euskararen irabaziak eta galerak	110
4. Euskararen erabilera	112
4.1. Euskararen erabilera lurraldearen, hiriburuaren eta gune soziolinguistikoaren arabera	112
4.2. Euskararen erabilera sexuaren eta adinaren arabera	116
4.3. Euskararen erabilera hainbat eremutan: etxean, lagunen artean, eremu formalean	118
4.4. Euskararen erabilera sare sozialetan	122
4.5. Euskararen erabilera eragiten duten faktoreak: korrelazioak	123
4.6. Euskararen erabilera euskaldunen artean gune soziolinguistikoaren arabera	127
4.7. Euskararen erabilera euskaldunen artean erraztasunaren arabera	128
5. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera	129
5.1. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera lurraldearen eta hiriburuaren arabera	129

5.2. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera hizkuntza-gaitasunaren, sexuaren eta adinaren arabera	132
5.3. Euskarari buruzko interesa eta beste zenbait iritzi	134
6. Laburbilduz	137

## NAFARROA

1. Biztanleria	141
2. Hizkuntza-gaitasuna	145
2.1. Hizkuntza-gaitasuna hizkuntza-eremuetan eta hiriburuan	145
2.2. Hizkuntza-gaitasuna sexuaren eta adinaren arabera	149
2.3. Hizkuntza-gaitasun erlatiboa: euskaldunen erraztasuna euskaraz egiteko	152
3. Hizkuntzaren transmisioa	159
3.1. Lehen hizkuntza hizkuntza-eremuetan eta hiriburuan	159
3.2. Lehen hizkuntza sexuaren eta adinaren arabera	162
3.3. Euskaldunak lehen hizkuntzaren arabera	166
3.4. Familia bidezko hizkuntzaren transmisioa	169
3.5. Euskararen irabaziak eta galerak	175
4. Euskararen erabilera	177
4.1. Euskararen erabilera hizkuntza-eremuetan, gune soziolinguistikoetan eta hiriburuan	177
4.2. Euskararen erabilera sexuaren eta adinaren arabera	181
4.3. Euskararen erabilera hainbat eremutan: etxean, lagunen artean, eremu formalean	183
4.4. Euskararen erabilera sare sozialetan	187
4.5. Euskararen erabileran eragiten duten faktoreak: korrelazioak	187
4.6. Euskararen erabilera euskaldunen artean gune soziolinguistikoaren arabera	191
4.7. Euskararen erabilera euskaldunen artean erraztasunaren arabera	191
5. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera	193
5.1. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera hizkuntza-eremuetan eta hiriburuan	193
5.2. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera hizkuntza-gaitasunaren, sexuaren eta adinaren arabera	196
5.3. Euskarari buruzko interesa eta beste zenbait iritzi	197
6. Laburbilduz	202



**IPARRALDEA**

1. Biztanleria	207
2. Hizkuntza-gaitasuna	209
2.1. Hizkuntza-gaitasuna lurraldearen arabera	209
2.2. Hizkuntza-gaitasuna sexuaren eta adinaren arabera	212
2.3. Hizkuntza-gaitasun erlatiboa: euskaldunen erraztasuna euskaraz egiteko	216
3. Hizkuntzaren transmisioa	222
3.1. Lehen hizkuntza lurraldearen arabera	222
3.2. Lehen hizkuntza sexuaren eta adinaren arabera	224
3.3. Euskaldunak lehen hizkuntzaren arabera	228
3.4. Familia bidezko hizkuntzaren transmisioa	231
3.5. Euskararen irabaziak eta galerak	235
4. Euskararen erabilera	238
4.1. Euskararen erabilera lurraldearen arabera	238
4.2. Euskararen erabilera sexuaren eta adinaren arabera	241
4.3. Euskararen erabilera hainbat eremutan: etxean, lagunen artean, eremu formalean	244
4.4. Euskararen erabilera sare sozialetan	248
4.5. Euskararen erabileran eragiten duten faktoreak: korrelazioak	248
4.6. Euskararen erabilera euskaldunen artean	250
4.7. Euskararen erabilera euskaldunen artean erraztasunaren arabera	252
5. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera	253
5.1. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera lurraldearen arabera	253
5.2. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera hizkuntza-gaitasunaren, sexuaren eta adinaren arabera	256
5.3. Euskarari buruzko interesa eta beste zenbait iritzi	257
6. Laburbilduz	260

## HITZAURREA

**E**uskararen Inkesta Soziolinguistikoak errealitate, konplexu eta aberatsa islatzen du. Lur eremu txikian, egoera arras ezberdinak ikusten ditugu. Badago, hala ere, orotan argi printzak zabaltzen dituen elementu bat: herritar gehienek euskara duen etorkizun bat nahi dute. Euskararekiko atxikimenduak ekarri du azken hamarkadetako biziberritze prozesua, eta gizartearen babesetik baizik ez da etorriko euskararen etorkizuneko indarberritzea.

Euskararen eremu osoa kontuan hartuta, zortzi puntu igo da euskararen erabilera sustatzearen aldeko jarrera 1991. urtetik. Eta euskara sustatzearen kontrakoa ia bost puntu jaitsi da. Gizartearen ia % 56 euskararen erabilera sustatzearen alde dago, eta % 16 baino ez dago kontra (% 28,2 'ez alde ez kontra'). Hori bai, ez da komeni ahaztea bilakaera hori ez dela homogenea euskararen eremu osoan, azken inkestan eskualde batzuetan euskararen erabilera sustatzearen aurkako jarrera igo egin baita. Euskararen etorkizuneko indarberritzea oinarri sendoen gainean eraiki nahi badugu, garrantzitsua da adostasun hori zaintzea eta zabaltzea.

Ezinbesteko baldintza bada ere, adostasunak ez du berez euskararen hazkundera ekarri. Adostasunak euskararen garapena posible egin duen politika eraginkorrak ahalbidetu ditu. Inkesta Soziolinguistikoak erakusten duen moduan, bi elementu horien batuketa indartsuago izan den tokietan, sakonagoa izan da euskararen azken hamarkadetako hedapena.

Euskararen ezagutzaren hazkunde ikaragarria izan da azken hamarkadetako hedapen horren adierazgarririk garrantzitsuena. Euskarak 223.000 hitzun irabazi ditu eta, horrekin batera, euskal hiztunaren profila erabat gaztetu da. 1991ean belaunaldi zaharrenak ziren euskaldunak; orain, aldiz, belaunaldi gazteenak dira euskaldunenak. Zenbat eta gazteago orduan eta euskaldunago, nola ezagutzaren aldetik hala erabileraren

ikuspegitik. Aldaketa sakon honek eredu bilakatu du euskararen biziberritze prozesua mundu osoko hizkuntza gutxituentzat eta agertoki berri batean kokatu du gure hizkuntza.

Une berri honetan, baina, erronka berriak azaleratzen dira. Inkesta Soziolinguistikoak ondo islatzen ditu zeintzuk diren erronka horiek. Eta argi erakusten digu azaltzen diren gabezia gehienek zerikusi zuzena daukatela prozesuaren muga logikoekin. Euskarak irabazi dituen hiztun gehien-gehienek familia eremutik kanpo jaso dute euskara, kasu gehienetan hezkuntza sistemaren bidez. Horrek erabat aldatu du gaur egungo euskal hiztunen profila. Inoiz baino gehiago dira, baina, era berean, XXI mendearen hasierako euskal hiztunak inoiz baino anitzagoak dira.

Hiztun berri horiek, gainera, testuinguru global eta aldakor batean mugitzen dira, horrek dakartzan ondorio guztiekin. Orain arte bezala, funtsezkoak izango dira puntu berri honetara ekarri gaituzten oinarriak, beti adostasunetik eta gizartearen sostengutik abiatuta. Horrekin batera, oso lagungarria izango da Inkesta Soziolinguistikoak eta, oro har, analisi soziolinguistikoak eskaintzen digun informazio eta jakinduria guztia, ikerketa ere funtsezkoa izango baita bide egokia hartzen asma dezagun.

**BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI**

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta  
Hizkuntza Politikako sailburua

**ANA OLLO HUALDE**

Nafarroako Gobernuako Herritarrekiko  
Harremanetako kontseilaria

**BEÑAT ARRABIT**

Euskararen Erakunde Publikoaren  
lehendakaria

# **EUSKARAREN EREMU OSOA**

VI. Inkesta Soziolinguistikoa



## 1. BIZTANLERIA

3.131.464 pertsona bizi dira 2016an EAEn, Nafarroan eta Iparraldean. Euskararen eremu osoko 2001eko eta 2016ko biztanleria alderatzen baditugu, ikus daiteke 206.062 pertsona gehiago direla termino absolutuetan.

Hamabost urte horietan zehar, biztanleriaren bilakaera ez da berdina izan lurralde guztietan.

Lurraldeei erreparatuz, 2011ra arte, biztanleen kopuruak gora egin du lurralde guztietan, Zuberoan izan ezik. 2011-2016 aldian, ostera, Zuberoan ez ezik Bizkaian eta Nafarroan ere biztanleriak behera egin du. Nahiz eta lurralde horietan biztanleen kopuruak jaitsiera txiki bat izan, gainerako lurraldeen biztanleriaren hazkundeari esker, euskararen eremu osoko biztanleen kopuruak gora egin du aldi guztietan, baita azken bost urteotan ere, igoera hori aurreko aldietan baino txikiagoa izan arren.

1. taula. Biztanleriaren bilakaera lurraldearen arabera. Euskararen eremu osoa, 2001-2016

	2001	2006	2011	2016
<b>Euskararen eremu osoa</b>	<b>2.925.402</b>	<b>3.012.606</b>	<b>3.114.276</b>	<b>3.131.464</b>
Araba	290.220	303.727	321.205	325.953
Bizkaia	1.132.979	1.140.236	1.156.141	1.147.903
Gipuzkoa	680.068	691.895	709.607	717.832
Nafarroa	555.877	601.874	642.051	640.647
Lapurdi	222.097	230.065	239.635	252.492
Nafarroa Beherea	28.659	29.403	30.357	31.639
Zuberoa	15.502	15.407	15.280	14.998

Iturria: Gaindegia.

Bilakaera horren eragileak izan dira, batetik, saldo begetatiboak (jaiotzen eta heriotzen kopuruen arteko aldea) eta, bestetik, migrazio-saldoak (immigrazioen eta emigrazioen kopuruen arteko aldea).


Bertako biztanleen ezaugarri nagusiak honako hauek dira:

- Gero eta gizarte zaharragoa: bizi-erataz gero eta handiagoa, eta jaiotze-tasa, aldiz, oso txikia (8,6 jaiotza 1.000 biztanleko; aldiz, Europar Batasuna-27an 10,1).
- Immigrazioaren hazkundera, atzerrian jaiotako biztanleena batez ere (EAEko biztanleen %9,1 eta Nafarroako biztanleen % 13,4 dira 2016an).

Horrela, 2001etik hona, 65 urte edo gehiagoko biztanleriaren ehunekoak 3 puntuko hazkundera izan du, eta gaur egun biztanleria osoaren %21,1 da (% 18 zen 2001ean).

Horrekin batera, gazteak pisua galtzen joan dira. 2016an % 19 dira 20 urte baino gutxiago dituztenak. Hortaz, gehiago dira 65 urte edo gehiagokoak, 20 urtetik beherakoak baino (% 21,1 versus % 19).

1. irudia. Biztanleriaren piramidea. Euskararen eremu osoa, 2016 (%)



## 2. HIZKUNTZA-GAITASUNA


### 2.1. HIZKUNTZA-GAITASUNA ERKIDEGOAREN, LURRALDEAREN ETA HIRIBURUAREN ARABERA

Hiru hiztun mota bereizten dira euskaraz hitz egiteko edo ulertzeko duten gaitasunaren arabera:

- **Euskalduna (elebiduna):** euskara ondo edo nahiko ondo ulertzeko eta hitz egiteko gai da.
- **Euskaldun hartzailea (elebidun hartzailea):** ez da euskaraz ondo edo nahiko ondo hitz egiteko gai. Hala ere, badu euskararen nolabaiteko ezagutza. Zehazki, multzo honetan sartzen da honako baldintza hauetakoren bat gutxienez betetzen duena:
  - Euskaraz “zertxobait” ulertzeko eta hitz egiteko gai da.
  - Euskara “ondo” edo “nahiko ondo” ulertzeko gai da.
- **Erdalduna (erdaldun elebakarra):** ez da gai euskaraz ulertzeko, ezta hitz egiteko ere.

VI. Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, 2016an euskararen eremu osoan bizi den 16 urte edo gehiagoko biztanleriaren % 28,4 euskalduna da, % 16,4 euskaldun hartzailea eta % 55,2 erdalduna.


2. irudia. Hizkuntza-gaitasuna. Euskararen eremu osoa, 2016 (%)





Hiru erkidego edo herrialdeak kontuan hartuz, alde handiak daude batetik bestera. EAEn hirutik bat baino gehiago euskalduna da (% 33,9). Nafarroan, ordea, zortzitik bat da euskalduna (% 12,9). Azkenik, Iparraldean bostetik bat da euskalduna (% 20,5).

### 3. irudia. Hizkuntza-gaitasuna erkidegoaren arabera. Euskararen eremu osoa, 2016 (%)



### 2. taula. Hizkuntza-gaitasuna erkidegoaren arabera. Euskararen eremu osoa, 2016

	Euskal Herria	EAE	Nafarroa	Iparraldea
<b>Guztira</b>	<b>2.647.422</b>	<b>1.864.380</b>	<b>533.602</b>	<b>249.441</b>
Euskaldunak	751.527	631.384	68.946	51.197
Euskaldun hartzaileak	434.370	355.936	55.134	23.299
Erdaldunak	1.461.525	877.060	409.522	174.944


*Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.*

Era berean, EAEko eta Iparraldeko lurraldeen artean ere alde handiak daude euskaldunen ehunekoan.

Horrela, EAEn Gipuzkoak du euskaldunen ehunekorik handiena (% 50,6). Bizkaiak, aldiz, euskaldunen ehuneko txikiagoa du (%27,6). Azkenik, Arabak du EAEko lurraldeen artean euskaldunen ehunekorik txikiena (% 19,2).

Iparraldean ere alde handia dago lurraldeen artean. Izan ere, Nafarroa Beherean eta Zuberoan %49,5 dira euskaldunak, eta Lapurdin (BAM barne), % 16,1.

4. irudia. Hizkuntza-gaitasuna lurraldearen arabera. Euskararen eremu osoa, 2016 (%)



**3. taula.** Hizkuntza-gaitasuna lurraldearen arabera. Euskararen eremu osoa, 2016

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Nafarroa	Lapurdi	Nafarroa Beherea / Zuberoa
<b>Guztira</b>	<b>273.086</b>	<b>986.155</b>	<b>605.139</b>	<b>533.602</b>	<b>216.764</b>	<b>32.676</b>
Euskaldunak	52.513	272.423	306.448	68.946	35.006	16.191
Euskaldun hartzaileak	50.197	201.074	104.665	55.134	18.808	4.492
Erdaldunak	170.376	512.658	194.026	409.522	162.950	11.994

Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

Hiriburuei dagokienez, aipatzekoa da euren lurraldeek baino euskaldunen ehuneko txikiagoa dutela. Horrela, Donostian euskaldunak %35,4 dira, %18,6 Bilbon, %17,9 Gasteizen, %10,5 Iruñean, eta BAMen (Baiona-Angelu-Miarritze), %8,4.


**4. taula.** Hizkuntza-gaitasuna hiriburuaren arabera. Euskararen eremu osoa, 2016 (%)

	Gasteiz	Bilbo	Donostia	Iruña	BAM
<b>Guztira</b>	<b>206.334</b>	<b>300.283</b>	<b>160.826</b>	<b>166.500</b>	<b>102.200</b>
Euskaldunak	17,9	18,6	35,4	10,5	8,4
Euskaldun hartzaileak	18,4	21,1	21,5	11,4	5,7
Erdaldunak	63,8	60,3	43,1	78,1	85,8

Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

Azken 25 urteotako bilakaerari dagokionez, gaur egun, 2016an 1991n baino 223.000 euskaldun gehiago daude euskararen eremu osoan. 6,1 puntuko hazkundera izan dute euskaldunek ehunekoetan (% 22,3 versus % 28,4).

5. irudia. Euskaldunen bilakaera. Euskararen eremu osoa, 1991-2016



Euskaldun hartzaileek ere ia 9 puntuko hazkundera izan dute 25 urte hauetan (% 7,7 versus % 16,4).

Erdaldunek, aldiz, ia 15 puntuko jaitsiera izan dute (% 70 ziren 1991n, eta % 55,2 dira 2016an).

Erdaldunen beherakada eta euskaldunen hazkundera are azpimarragarriagoa da kontuan hartzen baditugu azken urteotan gure gizarteak bizi izan dituen aldaketa soziodemografikoak. Euskal gizartea gero eta zaharragoa da, eta jaiotze-tasa gero eta txikiagoa; hortaz, gazteen multzoak, euskaldun gehien biltzen dituen multzoa izanik, gero eta pisu txikiagoa du gizarte osoarekiko.

Euskaldunek EAEn eta Nafarroan gora egin dute; Iparraldean, aldiz, behera. Horrela, 1991n, EAEn euskaldunak % 24,1 ziren eta gaur egun, oster, % 33,9. Halaber, Nafarroan euskaldunak % 9,5 ziren eta gaur egun % 12,9 dira. Iparraldean 1996an euskaldunak % 26,4 ziren; 2016an, aldiz, % 20,5 dira. Halere, kontuan

hartu behar da Iparraldeko euskaldunen ehunekoak apaltzen segitzen badu ere, apaltze hori gelditzen hasi dela 2006an, eta bestalde, 2016an, Iparraldeko euskaldunen kopurua egonkortu egin dela balore absolutuetan, lehen aldiko 1996 urtetik (51.197 dira 2016, 2011n 51.100 zirelarik).

Iparraldeari dagokionez, 1996ko inkesta hartuko dugu abiapuntutzat bilakaerak egiteko, eta ez 1991koa.

## 2.2. HIZKUNTZA-GAITASUNA SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA

Sexuari dagokionez, emakumezkoen %28,8 dira euskaldunak euskararen eremu osoan, eta gizonezkoen %27,9. Ikusten denez, emakumezkoen ehunekoa zertxobait handiagoa da gizonezkoena baino.

Alderik handiena EAEn dago, 1,2 puntuko aldea gizonezko eta emakumezkoen ehunekoan (%34,4 emakumezko euskaldun versus %33,2 gizonezko euskaldun).

Gogoan izan behar da EAEn heldutan euskalduntzen ari direnen artean emakumeak gehiengoak direla. Horrela, 2016/17 ikasturtean euskara ikasten ari diren helduen %66,8 emakumeak dira, bi heren, alegia. Horren ondorioz, emakume gehiago euskaldundu dira helduen euskalduntze sistemari esker. Hori ez da kontu berria, hala gertatu baita azken hogeitun urteotan, 1996tik aurrera, alegia.

Nafarroan eta Iparraldean ez dago ia alderik gizonezko eta emakumezko euskaldunen ehunekoan sexuaren arabera.


**5. taula.** Euskaldunak sexuaren arabera. Euskararen eremu osoa, 2016 (%)

	Euskararen eremu osoa	EAE	Nafarroa	Iparraldea
<b>Guztira</b>	<b>28,4</b>	<b>33,9</b>	<b>12,9</b>	<b>20,5</b>
Emakumezkoak	28,8	34,4	12,7	20,4
Gizonezkoak	27,9	33,2	13,1	20,7

Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

Euskaldunen adinari erreparatuz gero, ikus daiteke euskaldunen ehunekorik handiena 35 urtetik beherakoen artean dagoela. Hala ere, euskaldunen hazkundera 65 urtetik beherako adin-talde guztietan gertatu da. Horrela, gaur egun 16 eta 24 urte bitartekoen erdia baino gehiago euskaldunak dira (%55,4); 1991n, aldiz, ez ziren laudenera iristen (%22,5).

6. irudia. Euskaldunen bilakaera adinaren arabera. Euskararen eremu osoa, 1991-2016 (%)



Hortaz, euskaldunen hazkundera gazteenetatik ari da zabaltzen. Multzorik erdaldunena helduena da, baina urteak pasatu ahala, multzo hori euskaldunak irabazten ari da. Hau da, gazteak gero eta euskaldunagoak diren heinean, helduen multzoan ere haziz doa euskaldunen ehunekoa.

Adinaren araberako joera hori EAEn eta Nafarroan gertatu da, nahiz eta bateko eta besteko ehunekoak oso bestelakoak izan. Gazteenen euskalduntzea agerikoa da, eta erdaldunen ehunekoaren jaitsiera orokorra. 16-24 urte bitartekoen artean hamarretik zazpi baino gehiago euskaldunak dira EAEn (%71,4), eta Nafarroan ehunekoa txikiagoa da (%25,8), baina joera bera da.

Iparraldean, ordea, euskaldunen ehunekorik handiena 65 urte edo gehiagokoen artean dago, eta adinean behera egin ahala, euskaldunen ehuneko behera doa, 25-34 adin-taldera iritsi arte, joera aldatu egiten baita. Dena dela, euskaldunen ehunekoaren igoerarik handiena 16-24 urte bitarteko gazteena da (% 18,9 dira 2016an, eta % 11,3 ziren 1996an).

6. taula. Euskaldunak adinaren eta erkidegoaren arabera. Euskararen eremu osoa, 2016 (%)

	Adina					
	Guztira	≥ 65	50-64	35-49	25-34	16-24
<b>Euskararen eremu osoa</b>	<b>28,4</b>	<b>20,4</b>	<b>21,4</b>	<b>27,2</b>	<b>39,7</b>	<b>55,4</b>
EAE	33,9	22,4	24,6	33,2	49,3	71,4
Nafarroa	12,9	8,3	9,5	11,7	18,8	25,8
Iparraldea	20,5	28,1	21,3	14,6	15,7	18,9

Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

### 2.3. HIZKUNTZA-GAITASUN ERLATIBOA: EUSKALDUNEN ERRAZTASUNA EUSKARAZ EGITEKO

Euskaldunen gaitasun erlatiboa aztertuko da orain, hau da, euskaraz eta erdaraz (gaztelaniaz edo frantsesez, batik bat) hitz egiteko erraztasuna.

Aurrerantzean erdara hitza erabiliko da euskara ez den beste edozein hizkuntza adierazteko.

Honela sailkatzen dira euskaldunak hizkuntza-gaitasun erlatiboaren arabera:

- **Euskal elebidunak:** erraztasun handiagoa dute euskaraz hitz egiteko erdaraz hitz egiteko baino.


- **Elebidun orekatuak:** bi hizkuntzetan erraztasun bera dute. Izan ere, euskaldun hauek adierazten dute euskaraz eta erdaraz, bietan, berdin hitz egiteko erraztasuna dutela.
- **Erdal elebidunak:** erraztasun handiagoa dute erdaraz hitz egiteko euskaraz hitz egiteko baino.

Euskararen eremu osoan 16 urte edo gehiagoko euskaldunen %26k erraztasun handiagoa du euskaraz egiteko erdaraz baino, hau da, euskal elebidunak dira.

Elebidun orekatuak, aldiz, erraztasun bera du euskaraz zein erdaraz egiteko, eta euskaldunen %29,5 dira.

Azkenik, erdal elebidunak erraztasun handiagoa du erdaraz egiteko euskaraz baino, eta %44,5 dira. Euskaldunen multzorik handiena da, eta handiagoa da haren ehunekoa adinak behera egin ahala.

7. irudia. Euskaldunak erraztasunaren arabera. Euskararen eremu osoa, 2016 (%)




EAEn dago euskal elebidunen ehunekorik handiena (%26,8), eta Iparraldean, txikiena (%20,9). Era berean, Nafarroako euskaldunen %23,2 da euskal elebiduna.

Iparraldeak du elebidun orekatuen ehunekorik handiena (%37,6); EAEn, aldiz, %29,3 dira; eta Nafarroan, %25,7.

Nafarroako euskaldunen %51,1 erdal elebiduna da; EAEn, %44; eta Iparraldean, %41,5.




## 8. irudia. Euskaldunen erraztasuna erkidegoaren arabera. Euskararen eremu osoa, 2016 (%)



Euskaldunen erraztasuna euskaraz egiteko antzekoa da gizonezkoen eta emakumezkoen artean. Gizonezkoen euskal elebidunen ehunekoa zertxobait handiagoa da emakumezkoena baino (% 26,9 versus % 25,2).

Elebidun orekatuen eta erdal elebidunen ehunekoen arteko aldeak txikiagoak dira, hau da, 0,6 eta 1,1 puntukoak hurrenez hurren. Emakumezko euskaldunen % 29,8 dira elebidun orekatuak, eta gizonezkoen kasuan, % 29,2. Azkenik, emakumezko euskaldunen % 45 eta gizonezko euskaldunen % 43,9 dira erdal elebidunak.

9. irudia. Euskaldunen erraztasuna sexuaren arabera. Euskararen eremu osoa, 2016 (%)



Adinari dagokionez, euskal elebidunen ehunekorik handiena 65 urtetik gorakoek dute (%42,2), eta txikiena 35-49 urte bitartekoek (%20,1).


Elebidun orekatuen ehunekorik handiena 35 eta 64 urte bitartekoen artean dago (%35).

Azkenik, erdal elebidunen ehunekoa handiagoa da adinak behera egin ahala. Horrela, 16-24 urte bitarteko euskaldunen erdia baino gehiago erdal elebidunak dira (%56,7).

**10. irudia.** Euskaldunen erraztasuna adinaren arabera. Euskararen eremu osoa, 2016 (%)


Euskaldunen erraztasuna aldatu egin da 1991tik hona. Duela 25 urte, euskal elebidunen eta erdal elebidunen ehunekoa nahiko antzekoa zen (% 34,6 versus % 37,8). Gaur egun, ordea, erdal elebidunen ehunekoa 18,5 puntu handiagoa da euskal elebidunena baino.

## 11. irudia. Euskaldunen erraztasuna bilakaera. Euskararen eremu osoa, 1991-2016 (%)



Adinaren arabera bilakaera aztertuz gero, ikus daiteke 1991n euskal elebidunen ehunekoak behera egiten zuela adinean behera egin ahala. 2016an joera aldatu egin da euskal elebidunen kasuan. Izan ere, 16-24 eta 25-34 urte bitartekoek ehunekoa (% 23,8 eta % 22,9) handiagoa da 35-49 urte bitartekoena baino (% 20,1).

1991n, elebidun orekatuen ehunekorik altuena 16-24 eta 25-34 urte bitartekoek zuten (% 27,8 eta % 32,2). 2016an, berriz, 35-49 eta 50-64 urte bitartekoek dute (% 34,9 eta % 35,9).

Azkenik, 1991n, erdal elebidunen ehunekorik altuena 16-24 eta 25-34 urte bitartekoek zuten (% 52,8 eta % 49,3). 2016an ere ez da aldatu joera, 16-24 eta 25-34 urte bitartekoek baitute ehunekorik altuena (% 56,7 eta % 46,8).

**7. taula.** Euskaldunen erraztasunaren bilakaera adinaren arabera. Euskararen eremu osoa, 1991-2016 (%)

1991	Adina					
	Guztira	≥ 65	50-64	35-49	25-34	16-24
<b>Euskaldunak</b>	<b>528.521</b>	<b>98.274</b>	<b>126.679</b>	<b>109.512</b>	<b>93.027</b>	<b>101.028</b>
Euskal elebidunak	34,6	57,3	44,2	30,6	18,5	19,4
Elebidun orekatuak	27,7	24,5	27,2	27,0	32,2	27,8
Erdal elebidunak	37,8	18,2	28,5	42,4	49,3	52,8
<b>2016</b>						
<b>Euskaldunak</b>	<b>751.527</b>	<b>132.988</b>	<b>137.326</b>	<b>204.088</b>	<b>142.325</b>	<b>134.800</b>
Euskal elebidunak	26,0	42,2	24,6	20,1	22,9	23,8
Elebidun orekatuak	29,5	24,0	35,9	34,9	30,3	19,5
Erdal elebidunak	44,5	33,8	39,5	45,0	46,8	56,7

Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

### 3. HIZKUNTZAREN TRANSMISIOA


#### 3.1. LEHEN HIZKUNTZA ERKIDEGOAREN, LURRALDEAREN ETA HIRIBURUAREN ARABERA

Lehen hizkuntzari buruz ari garenean, umeak hiru urte bete arte gurasoengandik edo umearekin bizi diren senitartekoengandik etxean jasotako hizkuntzari edo hizkuntzei buruz dihardugu.

VI. Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, euskararen eremu osoko 16 urte edo gehiagoko biztanleriaren %15,1ek euskara soilik jaso du etxean, eta %5,4k euskara eta erdara jaso ditu etxean. Era berean, hamarretik zortzik (%79,5), erdara soilik jaso du etxean.

Erdara diogunean, gaztelaniari edo frantsesari buruz ari gara nagusiki, baina ez da ahaztu behar gero eta gehiagoren lehen hizkuntza errumaniera, portugesa, arabiera, errusiera eta abar direla.

12. irudia. Lehen hizkuntza. Euskararen eremu osoa, 2016 (%)



Lehen hizkuntzaren bilakaerari dagokionez, lehen hizkuntza euskara dutenen ehunekoa duela 25 urte baino txikiagoa da: %19,5 zen 1991n, eta %15,1 da 2016an (4,4 puntuko jaitsiera).

Lehen hizkuntza euskara eta erdara dutenen ehunekoa, aldiz, handiagoa da: %3 zen 1991n, eta %5,4 da 2016an (2,4 puntuko hazkundera).

Lehen hizkuntza erdara dutenen ehunekoa handiagoa da 2016an, % 77,5 baitzen 1991n, eta % 79,5 da 2016an (2 puntuko hazkundera).

**8. taula.** Lehen hizkuntzaren bilakaera. Euskararen eremu osoa, 1991-2016


	1991	2016	1991 (%)	2016 (%)
<b>Guztira</b>	<b>2.371.079</b>	<b>2.647.422</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Euskara	462.118	399.644	19,5	15,1
Euskara eta erdara	70.520	143.247	3,0	5,4
Erdara	1.838.442	2.104.531	77,5	79,5

**Iturria:** VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

Lehen hizkuntza erdara dutenak nagusi dira euskararen eremu osoko erkidego guztietan, baina alde handiak daude batetik bestera.

EAEk eta Iparraldeak dute ehunekorik txikiena lehen hizkuntza erdara dutenen ehunekorik txikiena (% 76,4 eta % 78,2). Nafarroan, erdara da gehiengo handiagoaren lehen hizkuntza (% 90,8).


13. irudia. Lehen hizkuntza erkidegoaren arabera. Euskararen eremu osoa, 2016 (%)



Lurralde historikoei erreparaturaz, alde handia dago lehen hizkuntza euskara dutenen ehunekoan.

Izan ere, Nafarroa Behereak eta Zuberoak dute lehen hizkuntza euskara soilik jaso dutenen ehunekorik handiena (% 46,8), eta jarraian, Gipuzkoak (% 32,9). Ondoren, Bizkaiak eta Lapurdik antzeko ehunekoa dute (% 11,9 eta % 11,3 hurrenez hurren). Azkenik Nafarroak (% 6,2) eta Arabak (% 3,8) dute etxean euskara soilik jaso dutenen ehunekorik txikiena.



**14. irudia.** Lehen hizkuntza lurraldearen arabera. Euskararen eremu osoa, 2016 (%)


Hiriburuetan txikiagoa da lehen hizkuntza euskara dutenen ehunekoa, euren lurraldeetako datuekin konparatuz. Donostiak du ehunekorik handiena lehen hizkuntza euskara dutenen artean (% 15,6). Ondoren BAMEk eta Bilbok dute ehunekorik handiena (% 6,1 eta % 5,5 hurrenez hurren). Azkenik, Gasteizen lehen hizkuntza euskara dutenak % 3,2 dira, eta % 3,1 Iruñean.

Lehen hizkuntza euskara eta erdara dutenak % 8,7 dira Donostian, % 3,4 Bilbon, % 3,2 BAMen eta % 2,7 Gasteizen eta Iruñean.

Lehen hizkuntza erdara soilik dutenak % 90 baino gehiago dira hiriburu guztietan Donostian izan ezik.

9. taula. Lehen hizkuntza hiriburuaren arabera. Euskararen eremu osoa, 2016 (%)


	Gasteiz	Bilbo	Donostia	Iruña	BAM
<b>Guztira</b>	<b>206.334</b>	<b>300.283</b>	<b>160.826</b>	<b>166.534</b>	<b>102.216</b>
Euskara	3,2	5,5	15,6	3,1	6,1
Euskara eta erdara	2,7	3,4	8,7	2,7	3,2
Erdara	94,1	91,2	75,7	94,2	90,7

Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

### 3.2. LEHEN HIZKUNTZA SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA

Emakumezkoen eta gizonezkoen artean ez dago alderik lehen hizkuntza euskara, euskara eta erdara edo erdara jaso dutenen ehunekoetan.


15. irudia. Lehen hizkuntza sexuaren arabera. Euskararen eremu osoa, 2016 (%)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

Adinari erreparatuz, gaur egun 65 urte edo gehiagokoek eta 16-24 urte bitarteko gazteek dute euskara soilik jaso dutenen ehunekorik altuena (% 18,8 eta % 16,6, hurrenez hurren). Ehunekorik txikiena 35-49 urte bitartekoek dute (% 12,8).

**16. irudia.** Lehen hizkuntza adinaren arabera. Euskararen eremu osoa, 2016 (%)




Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

Duela 25 urte, lehen hizkuntza gisa euskara soilik jaso zutenen ehunekorik altuena 65 urtetik gorakoek zuten (% 27,7) eta txikiagotzen zen adinean behera egin ahala. Gazteenek zuten ehunekorik txikiena (% 15,7). Gaur egun, ordea, 16-24 urte bitartekoek ehuneko altuagoa dute (% 15,7 1991n versus % 16,6 2016an).

Euskara eta erdara batera jaso zutenen ehunekoa txikiagoa zen adin-talde guztietan gaur egun baino. Dena dela, gazteenen artean dago alderik handiena. Izan ere, duela 25 urte, 16-24 urte bitarteko gazteen %3,4k jaso zuen euskara eta erdara batera lehen hizkuntza gisa; gaur egun, ordea, adin horretako gazteen %9,1ek jaso du euskara eta erdara, hau da, ia 6 puntuko aldea.

17. irudia. Lehen hizkuntzaren bilakaera adinaren arabera. Euskararen eremu osoa, 1991-2016 (%)



### 3.3. EUSKALDUNAK LEHEN HIZKUNTZAREN ARABERA

Euskararen eremu osoko 16 urte edo gehiagoko euskaldunak, etxean jaso duten hizkuntzaren arabera aztertuko dira orain.

Honela sailkatzen dira euskaldunak lehen hizkuntzaren arabera:


- **Euskaldun zaharrak:** euskara soilik jaso dute gurasoengandik edo etxean bizi diren senitartekoengandik, hiru urte bete arte.
- **Jatorrizko elebidunak:** euskara eta erdara jaso dituzte gurasoengandik edo etxean bizi diren senitartekoengandik, hiru urte bete arte.
- **Euskaldun berriak:** ez dute euskararik jaso etxean gurasoengandik edo etxean bizi diren senitartekoengandik. Etxetik kanpo ikasi dute euskara, eskolan edo euskaltegian.

Euskaldunen erdiak euskara soilik jaso du etxean, hau da, euskaldun zaharrak dira (%50,2).

Euskaldunen %13,6k, ordea, euskara eta erdara jaso ditu etxean, eta jatorrizko elebidunak dira.


Azkenik, herenak baino gehiagok erdara jaso du etxean eta euskaldun berriak dira (%36,2). Azken hauek etxetik kanpo ikasi dute euskara, eskolan edo euskaltegian. Azpimarratzekoa da euskaldunen artean multzo hori pisu handia hartzen ari dela.

18. irudia. Euskaldunak lehen hizkuntzaren arabera. Euskararen eremu osoa, 2016 (%)



Euskaldunen multzoa asko aldatu da azken 25 urteotan. 1991n euskaldun gehienak (%79,3) euskaldun zaharrak ziren, hau da, euskara etxean jaso zuten. 2016an, aldiz, euskaldun zaharrek nagusi izaten jarraitzen badute ere, euskaldun berriek pisu handia hartu dute, euskaldunen %36,2 baitira 2016an, eta 1991n %13,6 ziren. Jatorrizko elebidunek ere hazkunde handia izan dute, ia bikoiztu egin da ehunekoa (%13,6 versus %7,1).


19. irudia. Euskaldunen bilakaera lehen hizkuntzaren arabera. Euskararen eremu osoa, 1991-2016 (%)



EAEn zein Iparraldean euskaldun zaharrak nagusi dira, nahiz eta EAEn euskaldun berriek ere pisu handia izan (%36,8). Iparraldean euskaldun zaharren eta euskaldun berrien arteko aldeak handiagoak dira (%65,2 euskaldun zaharrak eta %15,7 euskaldun berriak).

Nafarroan gehiago dira euskaldun berriak euskaldun zaharrak baino (%45,9 versus %40,7).

## 20. irudia. Euskaldunak lehen hizkuntzaren eta erkidegoaren arabera. Euskararen eremu osoa, 2016 (%)



Lurraldeen arteko aldeak are handiagoak dira. Izan ere, Araban euskaldun berriak nagusi dira alde handiz (%71). Euskaldun zaharrak % 17,4 dira, hau da, ehunekorik txikiena, EAeko gainerako lurraldeekin alderatuz. Jatorrizko elebidunek ere ehuneko txikiagoa dute gainerako lurraldeetan baino (% 11,6).

Bizkaian ere euskaldun berriak nagusi dira (%46,7), baina euskaldun zaharrek ere pisu handia dute (%40).

Gipuzkoan euskaldun berriak euskaldunen laurdena baino zertxobait gutxiago dira (%22,2). Euskaldun zaharrak, aldiz, gehiengo dira (%64,4).

Nafarroan, Bizkaian bezala, euskaldun berriak nagusi dira (%45,9), baina euskaldun zaharrek ere pisu handia dute (%40,7). Gainerako euskaldunak jatorrizko elebidunak dira (%13,4).

Lapurdin, aldiz, gehienak euskaldun zaharrak dira (%57,2), gainerako %21,9 jatorrizko elebidunak dira eta %20,9 euskaldun berriak.

Azkenik, Nafarroa Beherean eta Zuberoan hamar euskaldunetik zortzi baino gehiago dira euskaldun zaharrak (%82,3), %13,4 jatorrizko elebidunak dira eta %4,4 euskaldun berriak.

10. taula. Euskaldunak lehen hizkuntzaren arabera, lurraldeetan. Euskararen eremu osoa, 2016 (%)

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Nafarroa	Lapurdi	Nafarroa Beherea / Zuberoa
<b>Euskaldunak</b>	<b>52.514</b>	<b>272.422</b>	<b>306.448</b>	<b>68.946</b>	<b>35.006</b>	<b>16.191</b>
Euskaldun zaharrak	17,4	40,0	64,4	40,7	57,2	82,3
Jatorrizko elebidunak	11,6	13,3	13,4	13,4	21,9	13,4
Euskaldun berriak	71,0	46,7	22,2	45,9	20,9	4,4

Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.


Euskaldunen multzoa asko aldatu da azken 25 urteotan. 1991n, euskaldun gehienak (%79,3) euskaldun zaharrak ziren, hau da, euskara etxean jaso zuten. Euskaldun zaharrak, gainera, nagusi ziren adin-talde guztietan.

2016an, aldiz, euskaldun zaharrek nagusi izaten jarraitzen badute ere, jatorrizko elebidunek pisu handia hartu dute eta are handiagoa euskaldun berriek, batez ere 35 urtetik beherakoen artean.

Gaur egun, 16-24 urte bitarteko euskaldunen erdia baino gehiago euskaldun berria da (%54,3), eta 25-34 urte bitartekoen ia erdia (%48). 1991n, ordea, 16-24 urte bitarteko euskaldunen laurdena besterik ez zen euskaldun berria (%25,5) eta 25-34 urte bitartekoen bostena (%21,3).



21. irudia. Euskaldunen bilakaera lehen hizkuntzaren eta adinaren arabera. Euskararen eremu osoa, 1991-2016 (%)



### 3.4. FAMILIA BIDEZKO HIZKUNTZAREN TRANSMISIOA

Familia bidezko hizkuntzaren transmisioa nolakoa den jakiteko, inkestatu guztiei galdetu zaie zein hizkuntza jaso duten etxean, euren gurasoen hizkuntza-gaitasunaren arabera.

Kontuan izan behar da inkestatuen artean 16 eta ia 100 urte bitarteko pertsonak daudela. Horren ondorioz, orain dela ia ehun urtetik hona gurasoek nola transmititu duten euskara jakin dezakegu.

Guraso biak euskaldunak izanik, seme-alaben %79,1ek euskara soilik jaso du etxean euskararen eremu osoan; %8,2k, euskara eta erdara; eta %12,7k ez du euskararik jaso.


Aipatzekoa da, guraso biak euskaldunak izanik, euskararen transmisioa handiagoa dela adinean behera egin ahala. Horrela, euskararen transmisiorik handiena 16-34

urte bitarteko inkestatuek dute. Adin horretako gazteen %86,6k euskara soilik jaso du etxean eta %6,1ek euskara eta erdara.

Era berean, 35-50 urte bitartekoen artean, guraso biak euskaldunak izanik, %83,5ek euskara soilik jaso du eta %7,2k euskara eta erdara.

Azkenik, 50 urte edo gehiago dituztenen artean euskararen transmisioa txikiagoa da: %74,8k euskara soilik jaso dute eta %9,3k euskara eta erdara.

**22. irudia.** Transmisioa guraso biak euskaldunak direnean, adinaren arabera. Euskararen eremu osoa, 2016 (%)




Gurasoetako bat baino ez euskalduna izanik, %61,3k erdara soilik transmititu du eta %38,7k euskara eta erdara.

Gurasoetako batek euskaraz ez dakienean, desberdintasun handiak daude euskararen transmisioan adinaren arabera. Adinean behera egin ahala, euskararen transmisioa gero eta handiagoa da.

Horrela, gurasoetako batek euskaraz ez dakienean, 16-34 urte bitartekoen erdiak baino gehiagok euskara jaso du etxean erdararekin batera (%54,3), 35-49 urte bitartekoen %43,9k eta 50 urte edo gehiagokoen %26,5ek.

**23. irudia.** Transmisioa gurasoetako bat bakarrik euskalduna denean, adinaren arabera. Euskararen eremu osoa, 2016 (%)



Gurasoetako batek euskaraz ez dakienean, aldea dago euskararen transmisioan euskaraz ez dakiena ama edo aita baldin bada. Dena dela, adinean behera egin ahala, aldea gero eta txikiagoa da.

Ama baino ez euskalduna izanik, %55ek erdara soilik transmititu du eta %45ek euskara eta erdara. Aita bakarrik denean euskalduna, %69k erdara soilik transmititu du eta %31k, ostera, euskara eta erdara.


Adinean behera egin ahala, transmisioa handiagoa da, bai ama euskalduna denean, bai aita denean ere, batez ere azken kasu honetan.

Horrela, euskaraz amak baino ez dakienean, 16-34 eta 35-49 urte bitartekoen %58k euskara jaso du etxean erdararekin batera; 50 urte edo gehiagokoen artean,

gehiago dira erdara soilik jaso dutenak (%68), euskara erdararekin batera jaso dutenak baino (%32).

Aitak soilik dakienean euskaraz, 16-34 urte bitartekoen %50ek euskara jaso du etxean erdararekin batera. Adinean gora egin ahala, 35-49 urte bitartekoen eta 50 urte edo gehiagokoen artean, askoz gehiago dira erdara soilik jaso dutenak (%70 eta %81 hurrenez hurren) euskara erdararekin batera jaso dutenak baino (%30 eta %19).

**24. irudia.** Transmisioa ama edo aita bakarrik denean euskalduna, adinaren arabera. Euskararen eremu osoa, 2016 (%)




### 3-15 URTE BITARTEKO SEME-ALABARIK DUTEN FAMILIEN HIZKUNTZA-TRANSMISIOA

3-15 urte bitarteko seme-alabarik duten familien hizkuntzaren transmisioa nolakoa den jakiteko, inkestatuei galdetu zaie zein hizkuntza transmititu dieten seme-alabei.

Guraso biak euskaldunak direnean, % 78,6k euskara soilik transmititu du, % 16,3k euskara eta erdara eta % 5,1ek erdara soilik.

Gurasoetako bat baizik ez denean euskalduna, % 64,0k euskara transmititu du eta % 36,0k erdara.

**25. irudia.** 3-15 urte bitarteko seme-alabei transmistitutako hizkuntza, gurasoen hizkuntza-gaitasunaren arabera. Euskararen eremu osoa, 2016 (%)




Transmisio hori aztertzeko, gurasoen hizkuntza-gaitasunaz gain, euren lehen hizkuntza ere hartu da kontuan.

Guraso biak euskaldunak direnean eta bien lehen hizkuntza euskara denean, seme-alaben %93k euskara soilik jaso du etxean, eta %7k, euskara eta erdara.

Guraso biak euskaldunak direnean eta bietako baten lehen hizkuntza euskara denean, seme-alaben %70ek euskara soilik jaso du etxean; %24k, euskara eta erdara; eta %6k, erdara.

Guraso biak euskaldunak direnean eta bien lehen hizkuntza erdara denean, seme-alaben %44k euskara soilik jaso du etxean; %36k, euskara eta erdara; eta %19k, erdara soilik.


26. irudia. 3-15 urte bitarteko seme-alabei transmistitutako hizkuntza, gurasoen lehen hizkuntzaren arabera. Euskararen eremu osoa, 2016 (%)



Gurasoetako bat baino ez denean euskalduna eta bere lehen hizkuntza euskara denean, %83k euskara eta erdara transmititu ditu eta %17k erdara soilik.

Gurasoetako bat baino ez denean euskalduna eta bere lehen hizkuntza erdara denean, %49k euskara eta erdara transmititu ditu eta %51k erdara soilik.

**27. irudia.** 3-15 urte bitarteko seme-alabei transmititutako hizkuntza, gurasoen lehen hizkuntzaren arabera. Euskararen eremu osoa, 2016 (%)



### 3.5. EUSKARAREN IRABAZIAK ETA GALERAK

Lehen hizkuntza euskara edo euskara eta erdara izan duten gehienek euskara gorde dute eta euskaldunak dira gaur egun (%88,3).

Hala ere, badira euskara guztiz edo partez galdu dutenak (16 urte edo gehiagoko biztanleen %2,4). Galera horren zatirik handiena galera partziala da (%1,4), hau da, pertsona horiek euskaraz ondo hitz egiten ez badute ere, ondo ulertzeko gai dira (26.000 pertsona).


Gaur egun galera gehienak 50 urtetik gorakoenak dira.

Aldi berean, baina, euskararen eremu osoko 16 urte edo gehiagoko biztanleen artean, 272.000 pertsona daude lehen hizkuntza erdara izanda ere euskara ikasi eta gaur egun euskaldun direnak. 1991n baino 200.000 lagun gehiago. Horiexek euskararen irabaziak dira, euskaldun berriak alegia.

Euskara ikasi dutenak honela daude banatuta: 232.000 lagun EAEn, 32.000 Nafarroan eta 8.000 Iparraldean.

Irabazien hazkundea eta galeren ia desagertzea gazteen artean antzematen dira bereziki, baita Iparraldeko gazteen artean ere, neurri txikiagoan bada ere.

28. irudia. Euskararen irabaziak eta galerak adinaren arabera. Euskararen eremu osoa, 2016 (%)



**Irabaziak eta galerak**

- Irabazi partzialak
- Irabazi osoak
- Galera partzialak
- Galera osoak

Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.



## 4. EUSKARAREN ERABILERA


### 4.1. EUSKARAREN ERABILERA ERKIDEGOAREN, LURRALDEAREN ETA HIRIBURUAREN ARABERA

Euskararen eremu osoan, 16 urte edo gehiagoko biztanleen %25,7k euskara erabiltzen du neurri batean ala bestean:

- a. % 16,5ek euskararen erabilera trinkoa egiten du, hau da, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen du eguneroko jardunean.
- b. Aldi berean, % 9,2k euskara erabiltzen du, baina erdara baino gutxiago.

Gainerako guztiek (% 74,2) erdara erabiltzen dute beti edo ia beti. Kontuan hartu behar da, hala ere, azken hauen artean badela multzo txiki bat (% 5,2) oso gutxitan bada ere euskara ere erabiltzen duena.

29. irudia. Euskararen erabilaren tipologia. Euskararen eremu osoa, 2016 (%)




Euskararen erabilera neurtzeko, tipologia bat definitu da. Tipologia hori eratzeko kontuan hartu diren erabilera-eremuak honakoak dira:

- etxeko erabilera (etxekoak elkarrekin daudenean, bikotekidearekin, seme-alabekin, neba-arrebekin, aitarekin eta amarekin);
- lagunarteko erabilera;


- erabilera formala (dendak eta bankuak batetik, eta osasun-zerbitzuak eta udal zerbitzuak bestetik).

Erabilerari buruzko emaitzetan alde handiak daude erkidego batetik bestera. Izan ere, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak, hau da, euskararen erabilera trinkoa egiten dutenak %20,5 dira EAEn, %6,6 Nafarroan eta %8,1 Iparraldean. Horietaz gain, euskara erabiltzen dutenak, baina erdara baino gutxiago, %10,1 dira EAEn, %5,6 Nafarroan eta %10,2 Iparraldean.

30. irudia. Euskararen erabilera erkidegoaren arabera. Euskararen eremu osoa, 2016 (%)



Alde horiek oso nabarmenak dira lurraldeen artean ere. Euskararen erabilera trinkoaren ehunekoak nahiko antzekoak dira Araban (%5,6), Lapurdin (%5,2) eta Nafarroan (%6,6). Bizkaiari handiagoa da erabilera trinkoa (%13), eta are handiagoa Nafarroa Beherean eta Zuberoan (%27,9). Euskararen erabilera trinkorik handiena Gipuzkoak du (%39,5).

**31. irudia.** Euskararen erabilera lurraldearen arabera. Euskararen eremu osoa, 2016 (%)


Hiriburuei dagokienez, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen portzentajerik handiena Donostiak du (% 19,7). Gainerako hiriburuetan euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen ehunekoak askoz txikiagoak dira (% 5 baino txikiagoak).


**12. taula.** Euskararen erabilera lurraldearen eta hiriburuaren arabera. Euskararen eremu osoa, 2016 (%)

	Gasteiz	Bilbo	Donostia	Iruña	BAM
Euskaraz erdaraz baino gehiago	1,2	1,7	8,3	0,7	—
Euskaraz erdaraz beste	3,5	2,9	11,4	2,4	0,8
Euskaraz erdaraz baino gutxiago	7,8	9,2	13,3	6,6	4,2
Oso gutxi euskaraz	6,9	7,5	6,7	2,4	3,0
Beti erdaraz	80,5	78,8	60,2	87,9	92,0

Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

Azken 25 urteotako bilakaera aztertuz gero, euskararen erabilera trinkoak 2,8 puntu egin du gora euskararen eremu osoan. Gaur egun 1991n baino 112.000 pertsona gehiago dira Euskal Herrian euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak.

**32. irudia.** Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera. Euskararen eremu osoa, 1991-2016



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

Euskararen eremu osoan euskararen erabilera trinkoak izan duen gorakada EAEko hazkundeagatik izan da. EAEn 5 puntu egin du gora euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen ehunekoak. Nafarroan mantendu egin da erabileraren ehunekoa (%6 inguru). Iparraldean, aldiz, jaitsi egin da (5 puntuko jaitsiera 20 urtean).

**13. taula.** Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera lurraldearen arabera. Euskararen eremu osoa, 1991-2016

	1991	1996	2001	2006	2011	2016
Guztira	13,7	15,5	14,6	15,6	16,1	16,5
EAE	15,5	18,1	17,5	18,9	20,0	20,5
Nafarroa	5,9	5,8	5,8	5,6	5,5	6,6
Iparraldea	—	13,3	9,9	10,6	9,6	8,1
Guztira	325.619	375.931	365.400	403.459	427.730	437.668
EAE	271.121	321.976	315.826	349.425	375.139	382.419
Nafarroa	25.214	25.697	27.528	29.551	29.714	34.993
Iparraldea	—	28.258	22.045	24.484	22.877	20.256

Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

## 4.2. EUSKARAREN ERABILERA SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA

Sexuari dagokionez, euskararen erabileran oro har ez dago alde esanguratsurik emakumezkoen eta gizonezkoen artean. Izan ere, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen portzentajea % 16,1 da emakumezkoen artean eta % 17 gizonezkoen artean. Azken 25 urteotan, euskara beste edo gehiago erabiltzen duten emakumezkoen eta gizonezkoen portzentajeen arteko aldea txikia izan da.

**14. taula.** Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera sexuaren arabera. Euskararen eremu osoa, 1991-2016 (%)

	1991	1996	2001	2006	2011	2016
Gizonezkoak	14,2	16,3	14,9	15,8	16,1	17,0
Emakumezkoak	13,3	14,6	14,4	15,3	16,2	16,1
<b>Guztira</b>	<b>13,7</b>	<b>15,5</b>	<b>14,6</b>	<b>15,6</b>	<b>16,1</b>	<b>16,5</b>


Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

Euskararen erabilera adinaren arabera aztertuz gero, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen portzentajea gero eta txikiagoa da 50 urtetik gorakoen artean eta gero eta handiagoa adin horretatik beherakoen artean. Hazkundera, gainera, handiagoa da adinak behera egin ahala. 2016an, 65 urtetik gorakoen artean, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak % 14,9 dira (1991n % 20,6), 50 eta 64 urte bitartekoen artean % 14,4 (1991n % 15,1), 35 eta 49 urte bitartekoen artean % 16,1 (% 11,7 zen 1991n), 25 eta 34 urte bitartekoen artean % 20,7 (1991n % 11,9), eta 16 eta 24 urte bitartekoen artean % 21,8 (1991n % 11,1).

Beti erdara erabiltzen dutenak erdia baino gehiago dira adin-talde guztietan, 25 urtetik beherakoen artean izan ezik (16 eta 24 urte bitartekoen artean beti erdaraz aritzen direnak % 48,7 dira).

Adinaren arabeko erabilera horiek oro har errepikatu egiten dira EAeko hiru lurraldeetan eta Nafarroan, baina ez Iparraldean. Gipuzkoan, gainera, azpimarratzekoa da 25 urtetik beherako gazteen artean ez ezik (% 54,7), 25 eta 34 urte bitartekoen artean ere (% 52,1) erdia baino gehiago direla dagoeneko euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak eguneroko jardunean.

**33. irudia.** Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera adinaren arabera. Euskararen eremu osoa, 1991-2016 (%)




### 4.3. EUSKARAREN ERABILERA HAINBAT EREMUTAN: ETXEAN, LAGUNEN ARTEAN, EREMU FORMALLEAN

#### EUSKARAREN ERABILERA ETXEAN

Euskararen eremu osoan, 16 urte edo gehiagoko biztanleen % 15,6k euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen du etxean denak elkarrekin daudenean, % 7k euskara erabiltzen du, baina erdara baino gutxiago, eta gainerako % 77,5ek erdara erabiltzen du soilik.

Etxeko kideen arteko erabileran alde esanguratsuak daude. Euskararen erabilerarik handiena seme-alabekin egiten da (% 18,7), eta erabilerarik txikiena, bikotekidearekin (% 12,1). Neba-arreben arteko erabilera % 16,9koa da, aitarekin % 14,3koa eta amarekin % 13,9koa.

**34. irudia.** Etxean euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak. Euskararen eremu osoa, 2016 (%)

Azken 25 urteotako bilakaera aztertuz gero, etxeko erabilerak oso gorabehera txikiak izan ditu, eta 2016an euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen ehunekoa 1991ko bera da (% 15,6).

Etxeko kideen arteko erabilerari dagokionez, neba-arrebeekin euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen ehunekoak 4,4 puntu egin du gora, seme-alabekin 2,9 puntu eta aitarekin 1,3 puntu. Amarekin ia bere horretan dago (0,7 txikiagoa). Bikotekideen arteko erabilerak 1,2 puntu egin du behera azken 25 urteotan.



**15. taula.** Etxean euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera. Euskararen eremu osoa, 1991-2016 (%)

	1991	1996	2001	2006	2011	2016
Etxean denek elkarrekin daudenean	15,6	16,5	14,6	15,3	14,2	15,6
Bikotekidearekin	13,3	13,9	10,7	11,7	11,8	12,1
Seme-alabekin	15,8	19,0	16,9	19,4	18,7	18,7
Amarekin	14,6	15,6	13,1	15,0	13,4	13,9
Aitarekin	13,0	14,2	12,6	14,3	12,9	14,3
Neba-arrebekin	15,5	17,7	15,8	16,8	16,8	16,9

Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

## EUSKARAREN ERABILERA LAGUNARTEAN

Euskararen eremu osoan, 16 urte edo gehiagoko biztanleen %17,9k euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen du lagunekin, %9,7k euskara erabiltzen du, baina erdara baino gutxiago, eta gainerako %72,4k erdara erabiltzen du soilik.

Azken 25 urteotan, 3,2 puntu egin du gora lagunekin euskara erabiltzen dutenen portzentajeak, eta 4,6 puntu euskara erabiltzen dutenenak, erdara baino gutxiago bada ere.

**16. taula.** Lagunekin euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen portzentajea. Euskararen eremu osoa, 1991-2016 (%)

	1991	1996	2001	2006	2011	2016
Erabilera lagunekin	14,7	17,5	15,8	17,7	17,8	17,9

Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

## EUSKARAREN ERABILERA EREMU FORMALLEAN


Atal honetan hiru erabilera-eremu aztertuko ditugu: erabilera lankideekin, erabilera eremu pribatuan (dendariekin eta bankukoekin) eta erabilera eremu publikoan (osasun-zerbitzukoekin eta udal zerbitzukoekin).

2016an, lankideekin euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak % 20,5 dira Euskal Herrian. Euskara erabiltzen dutenak, baina erdara baino gutxiago, % 9,2 dira, eta erdara hutsez mintzatzen direnak, % 70,4.

Eremu pribatuan, dendariekin % 16,5ek erabiltzen du euskara erdara beste edo gehiago eta bankukoekin % 15,7k. Bi erabilera-eremu horietan euskara erabiltzen dutenak, baina erdara baino gutxiago, % 8 eta % 4,9 dira hurrenez hurren.

Eremu publikoari dagokionez, osasun-zerbitzukoekin % 15,6k erabiltzen du euskara erdara beste edo gehiago eta udal zerbitzukoekin % 20,6k. Bi erabilera-eremu horietan euskara erabiltzen dutenak, erdara baino gutxiago bada ere, % 5,8 eta % 5,3 dira hurrenez hurren.

**35. irudia.** Eremu formalean euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak. Euskararen eremu osoa, 2016 (%)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

Azken 25 urteotan, 7 puntu egin du gora lankideekin euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen portzentajeak, 3,8 puntu dendariekin eta 3,5 puntu bankukoekin. Ereku publikoan, hazkundera 8,5 puntukoa izan da osasun-zerbitzukoekin eta 7,6 puntu udal zerbitzukoekin.

**17. taula.** Ereku formalean euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen portzentajea. Euskararen eremu osoa, 1991-2016 (%)

	1991	1996	2001	2006	2011	2016
Lankideekin	13,5	15,7	14,6	18,3	19,6	20,5
Dendariekin	12,7	15,4	13,8	15,4	16,0	16,5
Bankukoekin	12,2	16,7	16,0	16,4	16,4	15,7
Osasun-zerbitzukoekin	7,1	11,4	11,5	13,4	15,3	15,6
Udal zerbitzukoekin	13,0	18,4	16,6	17,9	19,4	20,6

Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

#### 4.4. EUSKARAREN ERABILERA SARE SOZIALETAN

Inkestatuen % 71,5ek Interneteko sare sozialak erabiltzen ditu, gehienek egunero (% 60,8).

Erabiltzaileen adinari dagokionez, 65 urtetik beherako adin-talde guztietan gehienek erabiltzen dituzte sare sozialak egunero, eta zenbat eta gazteagoa izan, orduan eta erabilera handiagoa: % 69,1 dira 50-64 urte bitartekoen artean; % 98,1, ordea, 16-24 urte bitartekoen artean.

Euskararen eremu osoan Interneteko sare sozialetan gehien erabiltzen diren hizkuntzak gaztelania eta frantsesa dira: gaztelania EAEn eta Nafarroan, eta frantsesa Iparraldean. Hala ere, erabiltzaileen % 14,2k maiztasun handiz erabiltzen du euskara, hau da, euskara erabiltzen du erdara beste edo gehiago. Euskararen


erabilerarik handiena 16-24 urte bitarteko gazteek dute, euskara maiztasun handiz erabiltzen dutenak %23,2 baitira.

Gaztelaniaz, frantsesez eta euskaraz aritzeaz gain, beste hizkuntza batzuetan ere badihardute erabiltzaileek Interneteko sare sozialetan, nagusiki ingelesez (%3,6).

#### 4.5. EUSKARAREN ERABILERA EUSKALDUNEN ARTEAN


Orain artekoa laburbilduz, esan daiteke euskararen erabilera pixkanaka hazten ari dela. Ez da hazkunde homoginoa izaten ari. Alde handiak ez ezik, joera desberdinak ere izaten ari dira lurralde, adin-talde edota erabilera-eremuaren arabera. Baina, gaur egun duela 25 urte baino euskararen eremu osoko herritar gehiagok erabiltzen du euskara. Kontua da erabilera ez dela ezagutzaren neurri berean hazten ari. Hau da, euskaraz ondo edo nahiko ondo hitz egiten dutenen kopurua gero eta handiagoa da, baina euskaraz hitz egiteko gaitasun nahikoa duten horien artean euskara erabiltzen dutenen ehunekoak duela 25 urte baino txikiagoa da gaur egun.

36. irudia. Ezagutzaren eta erabileraren bilakaera. Euskararen eremu osoa, 1991-2016



Hau da, erabilera-datuak, gizarte osoarekiko eman beharrean, euskaldunekiko bakarrik emanez gero, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen duten euskaldunen ehunekoak 3 puntu egin du behera azken 25 urteotan, nahiz eta, esan bezala, euskara erabiltzen dutenen kopurua handiagoa izan.

**37. irudia.** Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen duten euskaldunen bilakaera. Euskararen eremu osoa, 1991-2016 (%)




Gertakari hori hobeto ulertzeko, euskararen erabileran eragiten duten faktoreak aztertu dira. Horretarako, korrelazioen analisia egin dugu. Korrelazioen emaitzei buruzko azalpen zehatza lurralde bakoitzari buruzko ataletan jaso da. Baina, laburbilduz, esan daiteke, hurrenkera zerbait aldatu arren, bi direla erabileran gehien eragiten duten faktoreak: harreman-sareko euskaldunen dentsitatea (zenbatek dakien euskara etxean, lagunartean edo lankideen artean, eta gune soziolinguistikoa) eta erraztasuna (lehen hizkuntzarekin lotura zuzena duena).

Harreman-sareari dagokionez, duela 25 urte euskaldunen %60,1 hirugarren (biztanleen %50 eta %80 artean euskaldunak) eta laugarren (biztanleen %80 edo gehiago euskaldunak) gune soziolinguistikoetan bizi ziren. Bigarren gunean (biztanleen %20 eta %50 artean euskaldunak) euskaldun guztien %20,8 bizi ziren, eta euskaldunen %19,1 lehenengo gunean (biztanleen %20 baino gutxiago euskaldunak). Gaur egun, egoera alderantzizkoa da. Euskaldunen

%32,9 lehenengo gune soziolinguistikoan bizi dira eta, duela 25 urte bezala, %20,9 bigarrenean. Hau da, euskaldunen erdia baino gehiago (%53,8) eremu erdaldunean edo nahiko erdaldunean bizi dira. Hirugarren gune soziolinguistikoan ere euskaldunen ehuneko handia bizi da: %31,6 (1. gunean baino 9.800 euskaldun gutxiago). Eta laugarren gune soziolinguistikoan, euskaldunen %14,6 baino ez da bizi gaur egun.

38. irudia. Euskaldunen bilakaera gune soziolinguistikoaren arabera. Euskararen eremu osoa, 1991-2016 (%)




#### 4.6. EUSKARAREN ERABILERA EUSKALDUNEN ARTEAN ERRAZTASUNAREN ARABERA

Euskal elebidunen, hau da, euskaraz erdaraz baino errazago moldatzen diren euskaldunen %96k euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen du. Adinaren arabera oso gorabehera txikiak daude, baina 35 urtetik gorako euskal elebidunak batez bestekoaren zertxobait gaineratik daude, eta 35 urtetik beherakoak batez bestekotik zertxobait azpitik.

Elebidun orekatuen kasuan, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak %80,4 dira. Erabilerak behera egiten du adinak behera egin ahala.

Erdal elebidunen artean, %21,4k erabiltzen du euskara erdara beste edo gehiago. Elebidun orekatuekin gertatzen den bezala, gutxiagotzen da adinak behera egin ahala.

**39. irudia.** Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen duten euskaldunak, erraztasunaren arabera. Euskararen eremu osoa, 2016 (%)



## 5. EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEARI BURUZKO JARRERA

### 5.1. EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEARI BURUZKO JARRERA ERKIDEGOAREN, LURRALDEAREN ETA HIRIBURUAREN ARABERA


Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera ezagutzeko, hainbat esparrutan euskara sustatzearen alde edo kontra inkestatuek adierazi duten iritziaren arabera, tipologia bat eratu da.

Honako hauek dira tipologia osatzeko erabili diren baieztapenak:

- Administrazioan sartzeko euskara jakitea beharrezkoa da.
- Hobe da jendeak ingelesa ikastea euskara ikastea baino (ados ez daudenak dira euskara sustatzearen aldekoak).
- Ezinbestekoa da haur guztiek euskara ikastea.
- Irrati/telebistek programa gehiago behar lukete euskaraz.

Euskararen eremu osoko 16 urte edo gehiagoko biztanleen %55,8 euskararen erabilera sustatzearen alde dago, %28,2 ez alde ez aurka, eta % 16 aurka dago.

40. irudia. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera. Euskararen eremu osoa, 2016 (%)






Euskara sustatzearen aldeko jarrerak gora egin du azken 25 urteotan. 1991ko eta 2016ko datuak alderatuz, euskara sustatzearen alde daudenen ehunekoak 8 puntuko igoera izan du (%47,5 versus %55,8).


2016an gutxiago dira ez alde ez aurka agertzen direnak (%31,7 versus %28,2), eta gutxitu egin da aurka daudenen ehunekoa (%20,9 versus %16).

**41. irudia.** Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarreraren bilakaera. Euskararen eremu osoa, 1991-2016 (%)



Euskara sustatzearen aldeko jarrera handiagoa da EAEn (%65), Nafarroan (%33,3) eta Iparraldean (%35,3) baino.

42. irudia. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera, erkidegoen arabera.  
Euskararen eremu osoa, 2016 (%)



Euskararen erabilera sustatzeari aldeko jarrera handiena Gipuzkoak (% 74,6), Bizkaiak (% 62,2), Nafarroa Beherea/Zuberoak (% 55) eta Arabak (% 53,4) dute, eta txikiena Nafarroak (% 33,3) eta Lapurdik (% 32,4).

18. taula. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera lurraldearen arabera. Euskararen eremu osoa, 2016 (%)

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Nafarroa	Lapurdi	Nafarroa Beherea / Zuberoa
Alde	53,4	62,2	74,6	33,3	32,4	55,0
Ez alde ez aurka	32,7	27,2	20,4	27,6	49,9	32,0
Aurka	13,9	10,6	5,0	39,1	17,7	13,1

Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

Hiriburuei dagokienez, Donostiako biztanleriaren %60,7 euskara sustatzearen alde dago, Bilboko biztanleriaren %53,8, Gasteizkoaren %50,6, Iruñekoaren %37,6 eta BAMEkoaren %26,4.

**19. taula.** Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera hiriburuetan. Euskararen eremu osoa, 2016 (%)


	Gasteiz	Bilbo	Donostia	Iruña	BAM
Alde	50,6	53,8	60,7	37,6	26,4
Ez alde ez aurka	35,0	30,5	30,6	29,6	52,5
Aurka	14,3	15,7	8,8	32,7	21,1

Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

Euskara sustatzeari buruzko jarreraren tipologia osatzeko erabilitako iritzien erantzunak honako hauek dira:

- Administrazioan sartzeko euskara jakitea beharrezkoa dela pentsatzen du euskararen eremu osoko biztanleen %67,3k, eta %6,8 ez dago ez alde ez aurka. Bestalde, %25,1 dira iritzi horren aurka daudenak, eta beste %0,8k ez du erantzun.
- Hobe dela jendeak ingelesa ikastea euskara ikastea baino pentsatzen du %31,1ek (euskararen erabilera sustatzearen kontra), %20,6 ez dago ez alde ez aurka. %47 dira iritzi horren aurka daudenak (euskararen erabilera sustatzearen alde). Beste %1,3k ez du erantzun.
- Ezinbestekoa dela haur guztiek euskara ikastea pentsatzen du biztanleriaren %70,7k, %6,6 ez dago ez alde ez aurka, %22,2 aurka dago eta %0,5ek ez du erantzun.
- Azkenik, irrati eta telebistek programa gehiago beharko luketela euskaraz pentsatzen du %49,7k, %18,9 ez dago ez alde ez aurka, %29 aurka dago eta %2,4k ez du erantzun.

43. irudia. Jarreraren tipologia osatzeko erabilitako iritziak. Euskararen eremu osoa, 2016 (%)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

## 5.2. EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEARI BURUZKO JARRERA HIZKUNTZA-GAITASUNAREN, SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA

Euskararekiko jarrerak lotura handia du hizkuntza-gaitasunarekin. Izan ere, euskararen erabilera sustatzearen alde azaltzen da euskaldunen % 85,3, euskaldun hartzaileen % 61,2 eta erdaldunen % 39.

Sexuari erreparatu, ez dago ia alderik emakumezkoen eta gizonezkoen artean euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarreran.

**20. taula.** Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera sexuaren arabera. Euskararen eremu osoa, 2016 (%)

	Alde	Ez alde ez aurka	Aurka
<b>Guztira</b>	<b>52,8</b>	<b>30,7</b>	<b>16,5</b>
Emakumezkoak	53,0	31,0	16,0
Gizonezkoak	52,6	30,4	17,0


Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

Adinari dagokionez, ez dago alde handirik euskararen erabilera sustatzearen aldekoen ehunekoetan: % 54,6 da ehunekorik txikiena (50-64 urte bitartekoak) eta % 57,7 handiena (25-34 urte bitartekoak).

### 5.3. EUSKARARI BURUZKO INTERESA ETA BESTE ZENBAIT IRITZI

Euskararekiko interesari buruz galdetuta, euskararen eremu osoko biztanleen gehiengoak interesa erakusten du. Izan ere, biztanleen % 55,1ek euskararekiko interes handia edo oso handia du: % 29,6k, oso handia; % 25,5ek, nahiko handia. % 14,2k interes txikia du.

44. irudia. Euskarari buruzko interesa. Euskararen eremu osoa, 2016 (%)




Euskarari buruzko bestelako iritzi batzuekin jarraituz, euskararen eremu osoko biztanleen % 57,6k D eredia nahi luke seme-alabentzat (dena euskaraz, gaztelania/frantsesa ikasgai gisa), B eredia nahi luke % 23,7k (euskaraz eta gaztelaniaz/frantsesez), A eredia % 6,9k (dena gaztelaniaz/frantsesez, euskara ikasgai gisa) eta X eredia % 9,8k (dena gaztelaniaz/frantsesez). Gainerako % 1,9k ez daki edo ez du erantzun.

EAEn, gehienek D eredia (% 69,3) eta B eredia (% 23,6) aukeratuko lituzkete, seme-alaben eskolatzeko-hizkuntza gisa.

Nafarroan, % 34,9k D eredia aukeratuko luke, eta beste % 30,5ek, X eredia (dena gaztelaniaz). Beste % 16,3k B eredia aukeratuko luke, eta % 15ek, A eredia.

Azkenik, Iparraldean, eredurik aukeratuena B eredia da, % 41ek aukeratuko bailuke, eta ondoren, D eredia (% 19,2). Amaitzeko, Iparraldean % 18,6k X eredia aukeratuko luke (dena frantsesez), eta % 16,5ek, A eredia.

45. irudia. Seme-alabarik izanez gero, zein hizkuntzatan nahi zenuke haiek ikastea?  
Euskararen eremu osoa, 2016 (%)



Bestalde, 16 urte edo gehiagoko biztanleen %85,8k etorkizunean euskaraz eta gaztelaniaz/frantsesez hitz egin beharko litzatekeela uste du; %9,2k, euskaraz bakarrik; %4,1ek, gaztelaniaz/frantsesez bakarrik; eta %1ek ez du erantzun.

Era berean, euskaldunei galdetu zaie ea inoiz diskriminatuta sentitu diren euskara erabiltzeko aukera ez izategatik, eta %36,8k erantzun du diskriminatuta sentitu dela. Erdaldunei galdetu zaie, ordea, ea inoiz diskriminatuta sentitu diren euskara ez jakitegatik, eta %24,3k erantzun du diskriminatuta sentitu dela.

Euskarari buruzko beste iritzi batzuez ere galdetu zaie inkestatuei. Laburbilduz, emaitzak honako hauek dira:

- Euskararen eremu osoko 16 urte edo gehiagoko biztanleen %40,7k uste du euskarak gaztelaniak/frantsesak duen garrantzia izango duela. Egia da, hala ere, biztanleriaren heren batek baino gehiagok, %38,3k, kontrakoa uste duela, hau da, euskarak ez duela sekula izango gaztelaniak/frantsesak duen garrantzia.

- “Euskara beharrezkoa da jendearekin komunikatzeko” baieztapenari buruz, %47,2 alde dago, eta %44,9, aurka.
- Euskaldunek ezezagunei lehen hitza euskaraz egiteari dagokionez, euskararen eremu osoko biztanleen %51,6 ados dago, eta %31,7 aurka. Gainerakoak ez daude ez alde ez aurka (%14,1) edo ez dute erantzun (%2,6).
- Euskaldunok beti euskaraz aritzeari buruz nahiz eta guztiek ez jakin iritziaren aurka daude gehienak (%75,8).
- Azkenik, euskara ez dago galtzeko arriskuan gehienek ustez (%69,1). Euskaldunak bakarrik kontuan hartuz, erdia baino gehiagok uste du euskara ez dagoela galtzeko arriskuan (%52,2), baina %39,7k uste du euskara galtzeko arriskuan dagoela.



## 6. LABURBILDUZ

- Euskararen eremu osoko gizartea gero eta zaharragoa da. Oso bizi-itxaropen handia du eta jaiotza-tasa txikia. Halaber, atzerrian jaiotako biztanleen hazkundera handia izan da azken hamabost urteotan, batez ere Nafarroan eta EAEn (% 13,4 Nafarroan eta % 9,1 EAEn).
- 16 urte edo gehiagoko biztanleen %28,4 euskalduna da, % 16,4 euskaldun hartzailea eta % 55,2 erdalduna. Gaur egun, 751.500 euskaldun daude, 1991n baino 223.000 gehiago.
- Azken 25 urteotan euskaldunen hazkundera batez ere EAEn gertatu da (9,8 puntuko hazkundera). Nafarroan hazkundera txikiagoa izan da (3,4 puntuko hazkundera). Iparraldean, aldiz, oraindik ere galerak daude (5,9 puntutan egin du behera azken 20 urteotan), baina gazte euskaldunen ehunekoa gora egiten hasi da, eta 2016an, inkesta egiten denetik lehenengo aldiz, euskaldunen kopuru absolutua egonkortu da.
- Euskaldunen multzoa asko aldatu da azken 25 urteotan. Gaur egun, euskaldun gehienak euskaldun zaharrak dira (%50,2), baina 29,1 puntuko jaitziera izan dute. Jatorrizko elebidunak % 13,6 dira, eta 6,5 puntuko hazkundera izan dute. Euskaldun berriak % 36,2 dira, eta 22,6 puntuko hazkundera izan dute.
- Adinari dagokionez, 16-24 urte bitarteko euskaldunen erdia baino gehiago euskaldun berria da (% 54,3).
- 16 urtetik beherako seme-alabarik duten guraso euskaldun ia guztiek euskara transmititzen dute. Guraso biak euskaldunak direnean eta bien lehen hizkuntza euskara denean, transmisioa erabatekoa da (seme-alaben % 93k euskara soilik jaso du etxean, eta % 7k, euskara eta erdara). Guraso euskaldun bien lehen hizkuntza erdara denean ere transmisioa oso altua da (seme-alaben % 81ek euskara jaso du etxean). Gurasoetako bat baino ez denean euskalduna ere transmisioa handia da, batez ere guraso euskaldunaren lehen hizkuntza euskara denean (% 83). Guraso euskaldun horren lehen hizkuntza erdara denean, erdira jaisten da euskaren transmisioa (% 49).
- Euskararen eremu osoan biztanleen % 16,5ek euskara erdara baino gehiago erabiltzen du, hau da, euskararen erabilera trinkoa egiten

du: EAEn, biztanleen %20,5ek; Nafarroan, %6,6k; eta Iparraldean, %8,1ek.

- Erabileraren bilakaerari dagokionez, 1991tik hona euskararen erabilera trinkoak 2,8 puntu egin du gora: EAEn 5 puntuko igoera izan du erabilera trinkoak, Nafarroan mantendu egin da (aldea ez da puntu batera iristen) eta Iparraldean euskararen erabilerak behera egin du (5 puntuko jaitsiera 20 urtean).
- EAEn eta Nafarroan euskararen erabilera trinkoak gora egin du 50 urtetik beherakoen artean, eta Iparraldean 16-24 urte bitartekoen artean.
- Euskararen erabilera sustatzearen aldeko jarrerak gora egin du Euskararen eremu osoan 1991tik 2016ra (%47,5 versus %55,8): EAEn eta Nafarroan, 10 eta 11,7 puntuko igoera izan du aldeko jarrerak hurrenez hurren. Iparraldean, aldiz, gutxitu egin da aldeko jarrera (7 puntu azken 20 urteotan).



**E U S K A L  
A U T O N O M I A  
E R K I D E G O A**

VI. Inkesta Soziolinguistikoa



## 1. BIZTANLERIA<sup>1</sup>

Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) 2.176.577 pertsona bizi dira 2016an, EUSTATen arabera.

1991ko Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleria eta 2016koa alderatzen baditugu, ikus daiteke 72.536 pertsona gehiago direla termino absolutuetan, baina, denbora horretan guztian zehar, hazkundera ez da lineala izan. 2000ra arte, murrizten joan zen biztanleria, eta, urte horretatik aurrera, nabarmen joan zen handitzen, harik eta 2011n goia jo arte (orduan izan zen aztertutako aldi osoko maximoa).

Araban biztanleriak gora egin du aztertutako aldi guztietan, baina hazkunderik handiena azken hamabost urteotakoa izan da. Gipuzkoak, aldiz, EA Eren antzeko joera izan du. Azkenik, Bizkaiak biztanleak galdu ditu ia aldi guztietan.

1. taula. Biztanleriaren bilakaera lurraldearen arabera. EAE, 1991-2016

	1991	1996	2001	2006	2011	2016
<b>EAE</b>	<b>2.104.041</b>	<b>2.098.055</b>	<b>2.082.587</b>	<b>2.129.339</b>	<b>2.179.815</b>	<b>2.176.577</b>
Araba	272.447	281.821	286.387	305.822	321.254	323.889
Bizkaia	1.155.106	1.140.026	1.122.637	1.136.852	1.153.351	1.140.569
Gipuzkoa	676.488	676.208	673.563	686.665	705.210	712.119

Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuak eta Estatistikak.

<sup>1</sup> Datuak EUSTATetik eta INETik ateratakoak dira.

Bilakaera horren eragileak izan dira, batetik, saldo begetatiboak (jaiotzen eta heriotzen kopuruen arteko aldea) eta, bestetik, migrazio-saldoak (immigrazioen eta emigrazioen kopuruen arteko aldea).

Bertako biztanleen ezaugarri nagusiak honako hauek dira:


- Gero eta gizarte zaharragoa: bizi-itxaropena gero eta handiagoa da (86,2 urte emakumezkoak eta 80,3 gizonezkoak), jaiotze-tasa, aldiz, oso txikia (8,4 jaiotza 1.000 biztanleko, EB-27 10,1).
- Atzerrian jaiotako biztanleen hazkundera: EAEko biztanleen %9,1 dira 2016an.

Horrela, 1991tik hona, 65 urte edo gehiagoko biztanleriaren ehunekoak 9 puntuko hazkundera izan du, eta gaur egun biztanleria osoaren %21,6 da (%12,6 zen 1991n).

Horrekin batera, gazteak pisua galtzen joan dira. 2016an %18,3 dira 20 urte baino gutxiago dituztenak (%25,5 ziren 1991n).

Are handiagoa da pertsona nagusien hazkundera, hau da, 85 urte edo gehiago dituztenena. Izan ere, azken 25 urteotan, laukoiztu egin da ehunekoa, eta biztanleria osoaren %3,7 dira dagoeneko.


1. irudia. Biztanleriaren piramidearen bilakaera. EAE, 1991-2016 (%)



Etorkinak gurera etortzearen fenomenoak ere berria ez den arren, badu ezaugarri berezirik. Izan ere, 60ko hamarkadatik aurrera etorritako immigranteekin alderatuz, mende hasieratik hona etorri diren immigrante gehienak atzerrian jaiotako dira.

Atzerrian jaiotako biztanleen ehunekoa hamabi aldiz biderkatu da mende hasieratik hona. Horrela, %0,7 izatetik 2000. urtean, %9,1 izatera pasatu da 2016an.

2. irudia. Atzerrian jaiotakoen bilakaera. EAE, 2001-2016



Atzerrian jaiotako eta EAEn bizi diren artean gehiago dira emakumezkoak gizonezkoak baino (%52,3 emakumezkoak eta %47,7 gizonezkoak).

Etorkin atzerritarren jatorriari dagokionez, Amerikatik etorritako biztanleen pisua oso handia da EAEn (%36,9). Horietako gehienak Hego Amerikakoak dira. Hala ere, azken urteotan multzo hori pisua galtzen hasi da.


Afrikar jatorriko etorkinen pisua ere oso handia da (%28). Horietako gehienak magrebtarrak dira.

Hirugarren multzorik jendetsuena Europako etorkinena da (%26,2). Horietako gehienak Europa Ekialdekoak dira. Azkenik, Asia eta Ozeaniakoak %8,9 dira.



Adinaren arabera banaketa egiterakoan, atzerriko biztanleriaren ezaugarri nagusietako bat islatzen da piramidean. Ikus daitekeenez, biztanleria oso gaztea da, hamar lagunetik zortzi 50 urtetik beherakoak baitira.

3. irudia. Atzerrian jaiotako biztanleriaren piramidea. EAE, 2016 (%)



Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren hazkundera immigrazioaren portae-raren arabera gerta liteke. Aurreikus daiteke saldo begetatiboa balio negatiboe-tan ibiliko dela datozen urteetan. Izan ere, ugalkortasun-maila apalengatik, jaiotza kopurua murriztu daiteke, eta pertsona nagusien gero eta kopuru handiagotatik, aldiz, heriotza-tasa hazi.

## 2. HIZKUNTZA-GAITASUNA


### 2.1. HIZKUNTZA-GAITASUNA LURRALDEAREN ETA HIRIBURUAREN ARABERA

Hiru hiztun mota bereizten dira euskaraz hitz egiteko edo ulertzeko duten gaitasunaren arabera:

- **Euskalduna (elebiduna):** euskara ondo edo nahiko ondo ulertzeko eta hitz egiteko gai da.
- **Euskaldun hartzailea (elebidun hartzailea):** ez da euskaraz ondo edo nahiko ondo hitz egiteko gai. Hala ere, badu euskararen nolabaiteko ezagutza. Zehazki, multzo honetan sartzen da honako baldintza hauetakoren bat gutxienez betetzen duena:
  - Euskaraz “zertxobait” ulertzeko eta hitz egiteko gai da.
  - Euskara “ondo” edo “nahiko ondo” ulertzeko gai da.
- **Erdalduna (erdaldun elebakarra):** ez da gai euskaraz ulertzeko, ezta hitz egiteko ere.

VI. Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, 2016an Euskal Autonomia Erkidegoan bizi den 16 urte edo gehiagoko biztanleriaren %33,9 euskalduna da, %19,1 euskaldun hartzailea eta %47 erdalduna.

4. irudia. Hizkuntza-gaitasuna. EAE, 2016 (%)




2. taula. Hizkuntza-gaitasuna lurraldearen arabera. EAE, 2016

	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
<b>Guztira</b>	<b>1.864.380</b>	<b>273.086</b>	<b>986.155</b>	<b>605.139</b>
Euskaldunak	631.384	52.513	272.423	306.448
Euskaldun hartzaileak	355.936	50.197	201.074	104.665
Erdaldunak	877.060	170.376	512.658	194.026


Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

Hiru lurraldeak kontuan hartuz, alde handiak daude batetik bestera. Gipuzkoako biztanleriaren erdia euskalduna da (% 50,6). Bizkaian, ordea, biztanleriaren laurdena pasatxo da euskalduna (% 27,6). Azkenik, Arabako biztanleriaren bostena da euskalduna (% 19,2).

5. irudia. Hizkuntza-gaitasuna lurraldearen arabera. EAE, 2016 (%)



#### Hizkuntza-gaitasuna



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

2011n bezala, inkesta honetan hiriburuetako datuak ere emango dira. Aipatzekoa da hiru hiriburuak euren lurraldeek baino euskaldunen ehuneko txikiagoa dutela. Horrela, Donostian euskaldunak % 35,4 dira, Bilbon % 18,6, eta Gasteizen % 17,9.


3. taula. Hizkuntza-gaitasuna hiriburuaren arabera. EAE, 2016 (%)

	Gasteiz	Bilbo	Donostia
<b>Guztira</b>	<b>206.334</b>	<b>300.283</b>	<b>160.826</b>
Euskaldunak	17,9	18,6	35,4
Euskaldun hartzaileak	18,4	21,1	21,5
Erdaldunak	63,8	60,3	43,1

Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

Azken 25 urteotako bilakaerari dagokionez, gaur egun, 1991n baino 212.000 euskaldun gehiago daude EAEn. Ia 10 puntuko hazkundea izan dute euskaldunek ehunekoetan (% 24,1 versus % 33,9).

6. irudia. Euskaldunen bilakaera. EAE, 1991-2016



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

Euskaldun hartzaileek ere ia 11 puntuko hazkundera izan dute 25 urte hauetan (% 8,5 versus % 19,2).

Erdaldunek, aldiz, 12 puntuko jaitsiera izan dute (% 59,2 ziren 1991n eta % 47 dira 2016an).


Erdaldunen beherakada eta euskaldunen hazkundera are azpimarragarriagoa da kontuan hartzen baditugu azken urteotan gure gizarteak bizi izan dituen aldaketa soziodemografikoak. Batetik, euskal gizartea gero eta zaharragoa da. Jaiotze-tasa oso txikia da; hortaz, gazteen multzoak, euskaldun gehien biltzen dituen multzoa izanik, gero eta pisu txikiagoa du gizarte osoarekiko.

Euskaldunek EAEko hiru lurraldeetan egin dute gora, baina Arabako hazkundera aipatzekoa da. Horrela, 1991n Araban %7 ziren euskaldunak eta gaur egun, ostera, % 19,2 dira. Araban euskaldunak 11,8 puntuko hazkundera izan dute 1991tik 2016ra.

Bizkaian, duela 25 urte, % 16,5 ziren euskaldunak, eta % 27,6 dira 2016an. Hortaz, 10,1 puntuko hazkundera izan dute 16 urte edo gehiagoko euskaldunak ehunekoetan.

Euskaldunak Gipuzkoan izan dute hazkunderik txikiena ehunekoetan, 6,9 puntu-koa, alegia (%43,7 ziren 1991n eta % 50,6 dira 2016an), baina kontuan hartu behar da abiapuntua, hau da, 1991n Gipuzkoako euskaldunen ehunekoa Bizkaikoa eta Arabakoa baino askoz altuagoa zela.

7. irudia. Euskaldunen bilakaera lurraldearen arabera. EAE, 1991-2016 (%)



## 2.2. HIZKUNTZA-GAITASUNA SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA

Sexuari dagokionez, emakumezkoen artean %34,4 dira EAEn euskaldunak, eta gizonezkoen artean, berriz, %33,2. Ikusten denez, euskaldunen ehunekoa handiagoa da emakumezkoen artean gizonezkoen artean baino, 1,2 puntu hain zuzen ere.

Lurraldeei dagokienez, alderik handiena Araban dago, 2,4 puntuko aldea gizonezko eta emakumezko arabarren artean (%20,4 emakumezko arabar euskaldunak eta %18 gizonezkoak).

Bizkaian ere emakumezko euskaldunen ehunekoa zertxobait handiagoa da gizonezkoena baino. Dena dela, aldea txikiagoa da Arabarekin konparatuz (1,3 puntukoa). Gipuzkoan, ostera, ez dago ia alderik (0,6 puntukoa).

Gogoan izan behar da heldutan euskalduntzen ari direnen artean emakumeak gehiengoak direla. Horrela, 2016/17 ikasturtean euskara ikasten ari diren helduen %66,8 emakumeak dira, bi heren, alegia. Horren ondorioz, emakume gehiago euskaldundu dira helduen euskalduntze sistemari esker. Hori ez da kontu berria, hala gertatu baita azken hogeitun urteotan, 1996tik aurrera, alegia.

4. taula. Euskaldunak sexuaren arabera. EAE, 2016 (%)


	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
<b>Guztira</b>	<b>33,9</b>	<b>19,2</b>	<b>27,6</b>	<b>50,6</b>
Emakumezkoak	34,4	20,4	28,2	50,9
Gizonezkoak	33,2	18,0	26,9	50,3

Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

Euskaldunen adinari erreparatuz gero, ikus daiteke euskaldunen ehunekorik handiena 35 urtetik beherakoen artean dagoela, 16-24 eta 25-34 adin-taldeetan.


Hala ere, euskaldunen hazkundera 65 urte baino gutxiagoko adin talde guztietan gertatu da, baina nabarmenagoa da gazteen artean. Horrela, gaur egun 16 eta 24 urte bitarteko %71,4 euskaldunak dira; 1991n, aldiz, %25 ziren.

#### 8. irudia. Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera. EAE, 2016 (%)



Hortaz, euskaldunen hazkundera gazteenetatik ari da zabaltzen. Multzorik erdaldunena helduena da, baina urteak pasatu egin ahala, multzo hori euskaldunak irabazten ari da azpitik eta erdaldunak galtzen goitik. Hau da, gazteak gero eta euskaldunagoak diren heinean, nagusien multzoan haziz doa euskaldunen ehunekoa.

## 9. irudia. Euskaldunen bilakaera adinaren arabera. EAE, 1991-2016 (%)



Adinaren araberako joera hori hiru lurraldeetan gertatu da, nahiz eta bateko eta besteko ehunekoak oso bestelakoak izan.

Araban eta Bizkaian adinaren araberako bilakaerari dagokionez, orain dela 25 urte aurreikusten zen joera areagotu egin da. Hau da, gazteenen euskalduntzea agerikoa da, eta erdaldunen ehunekoaren jaitsiera, orokorra. 16-24 urte bitartekoen artean hamarretik sei baino gehiago euskaldunak dira (% 60,1 Araban eta % 66,8 Bizkaian).

Gipuzkoan are handiagoa da euskaldunen ehunekoa adinaren arabera. Gipuzkoako 16-24 urte bitarteko gazteen hamarretik zortzi baino gehiago euskaldunak dira (% 83,2), eta baita 25-34 urte bitarteko gazteen bi heren (% 66,5). Azkenik, 35 urte edo gehiagokoen artean hamarretik lau baino gehiago dira euskaldunak.



5. taula. Euskaldunak adinaren eta lurraldearen arabera. EAE, 2016 (%)

	ADINA					
	Guztira	≥ 65	50-64	35-49	25-34	16-24
EAE	33,9	22,4	24,6	33,2	49,3	71,4
Araba	19,2	4,4	10,2	18,4	35,2	60,1
Bizkaia	27,6	15,9	18,6	27,3	43	66,8
Gipuzkoa	50,6	40,9	41	49,6	66,5	83,2

Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

### 2.3. HIZKUNTZA-GAITASUN ERLATIBOA: EUSKALDUNEN ERRAZTASUNA EUSKARAZ EGITEKO

Euskaldunen gaitasun erlatiboa aztertuko da orain, hau da, euskaraz eta erdaraz (gaztelaniaz gehienetan) hitz egiteko erraztasuna.

Aurrerantzean erdara hitza erabiliko da euskara ez den beste edozein hizkuntza adierazteko.

Honela sailkatzen dira euskaldunak hizkuntza-gaitasun erlatiboaren arabera:


- **Euskal elebidunak:** erraztasun handiagoa dute euskaraz hitz egiteko erdaraz hitz egiteko baino.
- **Elebidun orekatuak:** bi hizkuntzetan erraztasun bera dute. Izan ere, euskaldun hauek adierazten dute euskaraz eta erdaraz, bietan, berdin hitz egiteko erraztasuna dutela.
- **Erdal elebidunak:** erraztasun handiagoa dute erdaraz hitz egiteko euskaraz hitz egiteko baino.

EAE n 16 urte edo gehiagoko euskaldunen %26,8k erraztasun handiagoa du euskaraz egiteko erdaraz baino, hau da, euskal elebidunak dira.

Elebidun orekatuak, aldiz, erraztasun bera du euskaraz zein erdaraz egiteko, eta euskaldunen %29,3 dira.

Azkenik, erdal elebidunak erraztasun handiagoa du erdaraz egiteko euskaraz baino, eta %44 dira. Euskaldunen multzorik handiena da, eta handiagoa da haren ehunekoa adinak behera egin ahala.

10. irudia. Euskaldunak erraztasunaren arabera. EAE, 2016 (%)




Gipuzkoan dago euskal elebidunen ehunekorik handiena (%35,9), eta Araban txikiena (%6,7). Era berean, Bizkaiko euskaldunen %20,4 da euskal elebiduna.

Era berean, Gipuzkoak du elebidun orekatuen ehunekorik handiena (%34,3), eta Bizkaiak eta Arabak nahiko antzekoa (%24,9 eta %22,6 hurrenez hurren).

Erdal elebidunen ehunekorik handiena, aldiz, Arabak du. Izan ere, Arabako euskaldunen %70,8 erdal elebiduna da, Bizkaian %54,7, eta Gipuzkoan %29,8.


11. irudia. Euskaldunen erraztasuna lurraldearen arabera. EAE, 2016 (%)



Euskaldunen erraztasuna euskaraz egiteko antzekoa da gizonezkoen eta emakumezkoen artean. Gizonezkoen euskal elebidunen ehunekoa zertxobait handiagoa da emakumezkoena baino (% 27,7 versus % 25,9).

Elebidun orekatuen eta erdal elebidunak kasuan aldeak txikiagoak dira, hau da, 0,7 eta 1,1 puntukoak hurrenez hurren. Emakumezko euskaldunen % 29,6 dira elebidun orekatuak, eta gizonezko euskaldunen kasuan % 28,9. Azkenik emakumezko euskaldunen % 44,5 dira erdal elebidunak, eta gizonezko euskaldunen % 43,4.

12. irudia. Euskaldunen erraztasuna sexuaren arabera. EAE, 2016 (%)




Adinari dagokionez, euskal elebidunen ehunekorik handiena 65 urte edo gehiagokoek dute (%44,8), eta txikiena 35-49 urte bitartekoek (%20,2).

Elebidun orekatuen ehunekorik handiena 25 eta 64 urte bitartekoen artean dago (%30 baino gehiago).


Azkenik, erdal elebidunen ehunekoa handiagoa da adinak behera egin ahala. Horrela, 16-24 urte bitarteko euskaldunen erdia baino gehiago erdal elebiduna da (%55,7).

13. irudia. Euskaldunen erraztasuna adinaren arabera. EAE, 2016 (%)



Euskaldunen erraztasuna aldatu egin da 1991tik hona. Duela 25 urte euskal elebidunen eta erdal elebidunen ehunekoa nahiko antzekoa zen (% 34,6 versus % 37,8). Gaur egun, ordea, erdal elebidunen ehunekoa 17 puntu handiagoa da euskal elebidunena baino (% 44 versus % 26,8).

## 14. irudia. Euskaldunen erraztasunaren bilakaera. EAE, 1991-2016 (%)



Adinaren arabera bilakaera aztertuz gero, ikus daiteke 1991n euskal elebidunen ehunekoak behera egiten zuela adinean behera egin ahala. 2016an, ordea, euskal elebidunen joera aldatu egin da. Izan ere, 16-24 eta 25-34 urte bitartekoek ehunekoa (% 25,3 eta % 24) handiagoa da 35-49 urte bitartekoena baino (% 20,2).

1991n, elebidun orekatuen ehunekorik altuena 16-24 eta 25-34 adin-taldeetan zegoen (% 27 eta % 29,9). 2016an, berriz, 35-49 eta 50-64 adin-taldeen dute (% 34,8 eta % 36,3).

Azkenik, 1991n, erdal elebidunen ehunekorik altuena 16-24 eta 25-34 urte bitartekoek zuten (% 53,4 eta % 50,3), eta orain ere berdin gertatzen da, hau da, 16-24 eta 25-34 urte bitartekoek dute ehunekorik altuena (% 55,7 eta % 45,5).

6. taula. Euskaldunen erraztasunaren bilakaera adinaren arabera. EAE, 1991-2016 (%)

1991	ADINA					
	Guztira	≥ 65	50-64	35-49	25-34	16-24
<b>Euskaldunak</b>	<b>419.221</b>	<b>71.612</b>	<b>97.595</b>	<b>81.331</b>	<b>78.103</b>	<b>90.580</b>
Euskal elebidunak	35,5	58,9	47,9	32,8	19,7	19,6
Elebidun orekatuak	25,4	23,0	24,0	22,9	29,9	27,0
Erdal elebidunak	39,1	18,1	28,1	44,3	50,3	53,4
<b>2016</b>						
<b>Euskaldunak</b>	<b>631.385</b>	<b>103.736</b>	<b>112.621</b>	<b>176.770</b>	<b>122.660</b>	<b>115.598</b>
Euskal elebidunak	26,8	44,8	25,0	20,2	24,0	25,3
Elebidun orekatuak	29,3	22,2	36,3	34,8	30,5	19,0
Erdal elebidunak	44,0	33,0	38,8	45,1	45,5	55,7

Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.


### 3. HIZKUNTZAREN TRANSMISIOA

#### 3.1. LEHEN HIZKUNTZA LURRALDEAREN ETA HIRIBURUAREN ARABERA

Lehen hizkuntzari buruz ari garenean, umeak hiru urte bete arte gurasoengandik edo umearekin bizi diren senitartekoengandik etxean jasotako hizkuntzari edo hizkuntzei buruz dihardugu.

VI. Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, EAeko 16 urte edo gehiagoko biztanleriaren % 17,5ek euskara soilik jaso du etxean, eta %6k euskara eta erdara jaso ditu etxean. Era berean, lautik hiruk (%76,4), erdara soilik jaso du etxean. Erdara diogunean, gaztelaniari buruz ari gara nagusiki, baina ez da ahaztu behar gero eta gehiagoren lehen hizkuntza errumaniera, portugesa, errusiera eta abar direla.

15. irudia. Lehen hizkuntza. EAE, 2016 (%)



16 urte edo gehiagoko biztanleen artean lehen hizkuntza euskara dutenen ehunekoa duela 25 urte baino txikiagoa da: %20,7 zen 1991n, eta %17,5 da 2016an (3,2 puntuko jaitsiera).

Lehen hizkuntza euskara eta erdara dutenen ehunekoa, aldiz, handiagoa da: %2,6 zen 1991n, eta %6 da 2016an (3,4 puntuko hazkundera).



Lehen hizkuntza erdara dutenen ehunekoa antzekoa da 1991n zein 2016an (% 76,7 versus % 76,1).

7. taula. Lehen hizkuntzaren bilakaera. EAE, 1991-2016

	1991	2016	1991 (%)	2016 (%)
<b>Guztira</b>	<b>1.741.470</b>	<b>1.864.379</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Euskara	360.232	326.995	20,7	17,5
Euskara eta erdara	45.488	112.235	2,6	6,0
Erdara	1.335.750	1.425.149	76,7	76,1


Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

Lehen hizkuntza erdara dutenak hiru lurraldeetan nagusi badira ere, Gipuzkoak du ehunekorik txikiena (%59,2). Gainerako bi lurraldeetan, nagusitasun osoa du erdarak. Horrela, erdara da Bizkaiko eta Arabako gehiengo handiaren lehen hizkuntza (% 82,4 eta % 93 hurrenez hurren).

Lehen hizkuntza euskara dutenak % 3,8 dira Araban, % 11,9 Bizkaian eta % 32,9 Gipuzkoan.


Lurraldearen arabera, lehen hizkuntza euskara eta erdara dutenen arteko aldea txikiagoa da, % 3,2 baitira Araban, % 5,7 Bizkaian eta % 7,9 Gipuzkoan.

16. irudia. Lehen hizkuntza lurraldearen arabera. EAE, 2016 (%)



Hiriburuetan txikiagoa da lehen hizkuntza euskara dutenen ehunekoa, euren lurraldeetako datuekin konparatuz. Donostiak du ehunekorik handiena lehen hizkuntza euskara dutenen artean (% 15,6). Bilbon eta Gasteizen lehen hizkuntza euskara dutenak % 5,5 eta % 3,2 dira hurrenez hurren. Lehen hizkuntza euskara eta erdara dutenak % 8,7 dira Donostian, % 3,4 Bilbon eta % 2,7 Gasteizen.


17. irudia. Lehen hizkuntza hiriburuaren arabera. EAE, 2016 (%)



### 3.2. LEHEN HIZKUNTZA SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA

Emakumezkoen eta gizonezkoen artean ez dago alderik lehen hizkuntza euskara, euskara eta erdara edo erdara jaso dutenen ehunekoetan.


18. irudia. Lehen hizkuntza sexuaren arabera. EAE, 2016 (%)



Adinari erreparatuz, ordea, alde handia dago. Horrela, 16-24 urte bitarteko gazteek dute euskara soilik jaso dutenen ehunekorik altuena (% 22).

Ehuneko horrek behera egiten du adinean gora egin ahala, eta % 15-17 artekoa da 65 urte edo gehiagokoan adin-taldera iritsi arte. Izan ere, 65 urte edo gehiagokoan adin-taldean euskara soilik jaso dutenen ehunekoak gora egiten du, eta % 20,5 da.


19. irudia. Lehen hizkuntza adinaren arabera. EAE, 2016 (%)



Duela 25 urte, alderantziz gertatzen zen. Horrela, 1991n lehen hizkuntza gisa euskara soilik jaso zutenen ehunekorik altuena 65 urtetik gorakoek zuten (% 32,4) eta behera egiten zuen adinean behera egin ahala. Gazteenek zuten ehunekorik txikiena (% 17). Gaur egun, ordea, 16-24 urte bitartekoek dute ehunekorik handiena. Horrela, gazteen artean 5 puntuko hazkundera izan du etxean euskara soilik jaso dutenen ehunekoak (% 17 1991n versus % 22 2016an).

Halaber, euskara eta gaztelania batera jaso zutenen ehunekoa txikiagoa zen oro har, gaur egun baino (% 2,6 versus % 6). Adinari erreparatuz eta alderaketa eginez, gazteen artean dago alderik handiena. Izan ere, duela 25 urte, 16-24 urte bitarteko gazteen % 3,4k jaso zuen euskara eta erdara batera lehen hizkuntza gisa; gaur egun, ordea, adin horretako gazteen % 11,1ek jaso du euskara eta erdara, hau da, ia 7 puntuko aldea.

20. irudia. Lehen hizkuntzaren bilakaera adinaren arabera. EAE, 1991-2016 (%)



### 3.3. EUSKALDUNAK LEHEN HIZKUNTZAREN ARABERA


EAEko 16 urte edo gehiagoko euskaldunak, etxean jaso duten hizkuntzaren arabera aztertuko dira orain.

Honela sailkatzen dira euskaldunak lehen hizkuntzaren arabera:

- **Euskaldun zaharrak:** euskara soilik jaso dute gurasoengandik edo etxean bizi diren senitartekoengandik, hiru urte bete arte.
- **Jatorrizko elebidunak:** euskara eta erdara jaso dituzte gurasoengandik edo etxean bizi diren senitartekoengandik, hiru urte bete arte.
- **Euskaldun berriak:** ez dute euskararik jaso etxean gurasoengandik edo etxean bizi diren senitartekoengandik. Etxetik kanpo ikasi dute euskara, eskolan edo euskaltegian.


Euskaldunen erdiak euskaldun zaharrak dira (%50). Euskaldunen % 13,2, ordea, jatorrizko elebidunak dira. Azkenik, herenak baino gehiagok erdara jaso du etxean eta euskaldun berriak dira (%36,8). Azpimarratzekoa da euskaldunen artean multzo hori pisu handia hartzen ari dela.

21. irudia. Euskaldunak lehen hizkuntzaren arabera. EAE, 2016 (%)



Euskaldunen multzoa asko aldatu da azken 25 urteotan. 1991n euskaldun gehienak (%79,3) euskaldun zaharrak ziren, hau da, euskara etxean jaso zuten. 2016an, aldiz, euskaldun zaharrek nagusi izaten jarraitzen badute ere, euskaldun berriek pisu handia hartu dute, euskaldunen %36,8 baitira 2016an, eta 1991n %14,2 ziren. Jatorrizko elebidunek ere hazkunde handia izan dute, ia bikoiztu egin da ehunekoa (%13,2 versus %6,8).

22. irudia. Euskaldunen bilakaera lehen hizkuntzaren arabera. EAE, 1991-2016 (%)



Lurraldearen arabera, aldeak handiak dira. Araban euskaldun berriak nagusi dira alde handiz (% 71). Bostetik bat ere ez da euskaldun zaharra Araban (% 17,4). Jatorrizko elebidunek ere ehuneko txikiagoa dute Gipuzkoan eta Bizkaian baino (% 11,6).

Bizkaian ere euskaldun berriak nagusi dira (% 46,7), baina euskaldun zaharrek ere pisu handia dute (% 40).

Azkenik, Gipuzkoan euskaldun berriak ez dira euskaldunen laurdena izatera iristen (% 22,2). Euskaldun zaharrak, aldiz, gehiengoa dira (% 64,4).

Hiriburuei dagokienez, Gasteizen eta Bilbon euskaldun berriak nagusi dira (% 72,6 eta % 64,1 hurrenez hurren), baina ez Donostian (% 37).

8. taula. Euskaldunak lehen hizkuntzaren arabera lurralde eta hiriburuetan. EAE, 2016 (%)

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Gasteiz	Bilbo	Donostia
<b>Euskaldunak</b>	<b>52.514</b>	<b>272.422</b>	<b>306.448</b>	<b>36.872</b>	<b>55.857</b>	<b>56.867</b>
Euskaldun zaharrak	17,4	40,0	64,4	16,5	23,7	43,1
Jatorrizko elebidunak	11,6	13,3	13,4	10,9	12,2	19,8
Euskaldun berriak	71,0	46,7	22,2	72,6	64,1	37,0


Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

Adinari dagokionez, gaur egun, 16-24 urte bitarteko euskaldunen erdia baino gehiago euskaldun berria da (%53,9). 1991n, ordea, adin tarte horretako euskaldunen %26,3 besterik ez zen euskaldun berria. 25-34 eta 35-49 urte bitarteko euskaldunen artean ere %40 baino gehiago euskaldun berriak dira.

Gaur egun ez bezala, 1991n, euskaldun zaharrak ziren nagusi adin-talde guztietan eta jatorrizko elebidunak oso gutxi ziren adin talde guztietan, %10 baino gutxiago, 16-24 urte bitartekoen artean izan ezik.



23. irudia. Euskaldunen bilakaera lehen hizkuntzaren eta adinaren arabera. EAE, 1991-2016 (%)



### 3.4. FAMILIA BIDEZKO HIZKUNTZAREN TRANSMISIOA

Familia bidezko hizkuntzaren transmisioa nolakoa den jakiteko, inkestatu guztiei galdetu zaie zein hizkuntza jaso duten etxean, euren gurasoen hizkuntza-gaitasunaren arabera.

Kontuan izan behar da inkestatuen artean 16 eta ia 100 urte bitarteko pertsonak daudela. Horren ondorioz, orain dela ia ehun urtetik hona gurasoek nola transmititu duten euskara jakin dezakegu.

Guraso biak euskaldunak izanik, seme-alaben % 83,3k euskara soilik jaso du etxean EAEn; % 6,7k, euskara eta erdara; eta % 10ek ez du euskararik jaso.


Gurasoetako bat baino ez euskalduna izanik, %55,3k erdara soilik transmititu du eta %44,7k euskara eta erdara.

Aipatzekoa da guraso biak euskaldunak izanik, euskararen transmisioa handiagoa dela adinean behera egin ahala. Horrela, euskararen transmisiorik handiena 16-34 urte bitarteko inkestatuek dute. Adin horretako gazteen %90,3k euskara soilik jaso du etxean eta %5,2k euskara eta erdara.

Era berean, 35-50 urte bitartekoen artean, guraso biak euskaldunak izanik, %86,6k euskara soilik jaso du eta %5,8k euskara eta erdara.

Azkenik, 50 urte edo gehiago dituztenen artean euskararen transmisioa txikiagoa da: %79,2k euskara soilik jaso du eta %7,6k euskara eta erdara.


**24. irudia.** Transmisioa guraso biak euskaldunak direnean, adinaren arabera. EAE, 2016 (%)



Gurasoetako batek euskaraz ez dakienean, desberdintasun handiak daude euskararen transmisioan adinaren arabera. Adinean behera egin ahala, euskararen transmisioa gero eta handiagoa da.

Horrela, gurasoetako batek euskaraz ez dakienean, 50 urte baino gutxiagokoen erdiak baino gehiagok euskara jaso du etxean erdararekin batera: 16-34 urte bitartekoen %61,7k eta 35-49 urte bitartekoen %53,2k.

**25. irudia.** Transmisioa gurasoetako bat bakarrik euskalduna denean, adinaren arabera. EAE, 2016 (%)



Gurasoetako batek euskaraz ez dakienean, aldea dago euskararen transmisioan euskaraz ez dakiena aita edo ama bada. Dena dela, adinean behera egin ahala, desberdintasuna gero eta txikiagoa da.


Ama baino ez euskalduna izanik, %52k erdara soilik transmititu du eta %48k euskara eta erdara. Aita bakarrik denean euskalduna, %64k erdara soilik transmititu du eta %34k, ostera, euskara eta erdara.

Adinean behera egin ahala, transmisioa handiagoa da, bai ama euskalduna denean, bai aita denean ere.

Horrela, amak soilik euskaraz dakienean, 50 urte baino gutxiagokoen %66k euskara jaso du etxean erdararekin batera; baina 50 urte edo gehiagokoen artean, gehiago dira erdara soilik jaso dutenak (%62), euskara erdararekin batera jaso dutenak baino (%38).

Aitak soilik dakienean euskaraz, 50 urte baino gutxiagokoen %49k euskara jaso du etxean erdararekin batera, hau da, ia erdiak. Adinean gora egin ahala, 50 urte edo gehiagokoen artean, askoz gehiago dira erdara soilik jaso dutenak (%80) euskara erdararekin batera jaso dutenak baino (%20).

26. irudia. Transmisioa ama edo aita bakarrik denean euskalduna, adinaren arabera. EAE, 2016 (%)




### 3-15 URTE BITARTEKO SEME-ALABARIK DUTEN FAMILIEN HIZKUNTZA-TRANSMISIOA

3-15 urte bitarteko seme-alabarik duten familien hizkuntzaren transmisioa nolakoa den jakiteko, inkestatuei galdetu zaie zein hizkuntza transmititu dieten seme-alabei.

Guraso biak euskaldunak direnean, % 79,3k euskara soilik transmititu du, % 16k euskara eta erdara eta % 4,7k erdara soilik.

Gurasoetako bat baizik ez denean euskalduna, % 65,4k euskara transmititu du eta % 34,6k erdara.

**27. irudia.** 3-15 urte bitarteko seme-alabei transmistitutako hizkuntza, gurasoen hizkuntza-gaitasunaren arabera. EAE, 2016 (%)




Transmisio hori aztertzeko, gurasoen hizkuntza-gaitasunaz gain, euren lehen hizkuntza ere hartu da kontuan.

Guraso biak euskaldunak direnean eta bien lehen hizkuntza euskara denean, seme-alaben %94k euskara soilik jaso du etxean, eta %6k euskara eta erdara.

Guraso biak euskaldunak direnean eta bietako baten lehen hizkuntza euskara denean, seme-alaben %71k euskara soilik jaso du etxean; %24k, euskara eta erdara, eta %5ek erdara.

Guraso biak euskaldunak direnean eta bien lehen hizkuntza erdara denean, seme-alaben %45ek euskara soilik jaso du etxean; %35ek euskara eta erdara, eta %19k erdara.


28. irudia. 3-15 urte bitarteko seme-alabei transmititutako hizkuntza, gurasoen lehen hizkuntzaren arabera. EAE, 2016 (%)



Gurasoetako bat baino ez denean euskalduna eta bere lehen hizkuntza euskara denean, %88k euskara eta erdara transmititu ditu, eta %12k erdara soilik.

Gurasoetako bat baino ez denean euskalduna eta bere lehen hizkuntza erdara denean, %49k euskara eta erdara transmititu ditu, eta %51k erdara soilik.

29. irudia. 3-15 urte bitarteko seme-alabei transmititutako hizkuntza, gurasoen lehen hizkuntzaren arabera. EAE, 2016 (%)



### 3.5. EUSKARAREN IRABAZIAK ETA GALERAK

EAEen lehen hizkuntza euskara edo euskara eta erdara izan duten gehien-gehienek euskara gorde dute eta euskaldunak dira gaur egun (%90,8).


Hala ere, badira euskara guztiz edo partez galdu dutenak (16 urte edo gehiagoko biztanleen %2,2). Galera gehienak galera partzialak dira, hau da, pertsona horiek euskaraz ondo hitz egiten ez badute ere, ondo ulertzeko gai dira.

Adinaren arabera, gaur egun galera gehienak 50 urtetik gorako pertsonenak dira. Galera oso gehienak 65 urtetik gorakoenenak dira, eta 35-64 urte bitartekoen galera gehienak, aldiz, partzialak dira.

Aldi berean, baina, EAEko 16 urte edo gehiagoko biztanleen artean, 232.400 pertsona daude lehen hizkuntza erdara izanda ere euskara ikasi eta gaur egun euskaldun direnak. 1991n baino 183.000 lagun gehiago. Horiexek euskararen irabaziak dira, euskaldun berriak alegia.

Irabaziei dagokienez, alde handiak daude adinaren arabera. Euskara irabazi dutenen ehunekoa oso txikia da 65 urtetik gorakoen artean. 65 urtetik beherakoen artean, ordea, irabaziak gero eta handiagoak dira, eta gazteen artean oso handiak.

30. irudia. Euskararen irabaziak eta galerak adinaren arabera. EAE, 2016 (%)





## 4. EUSKARAREN ERABILERA


### 4.1. EUSKARAREN ERABILERA LURRALDEAREN, HIRIBURUAREN ETA GUNE SOZIOLINGUISTIKOAREN ARABERA

EAEen, 16 urte edo gehiagoko biztanleen %30,6k euskara erabiltzen du neurri batean ala bestean:

- a. %20,5ek euskararen erabilera trinkoa egiten du, hau da, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen du eguneroko jardunean.
- b. Aldi berean, %10,1ek euskara erabiltzen du, baina erdara baino gutxiago.

Gainerako guztiek (%69,4) erdara erabiltzen dute beti edo ia beti. Kontuan hartu behar da, hala ere, azken hauen artean badela multzo txiki bat (%6,1) oso gutxitan bada ere euskara ere erabiltzen duena.

31. irudia. Euskararen erabilerearen tipologia. EAE, 2016 (%)



Euskararen erabilera neurtzeko, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak tipologia bat definitu du. Tipologia hori eratzeko kontuan hartu diren erabilera-eremuak honakoak dira:

- Etxeko erabilera (etxeok elkarrekin daudenean, bikotekidearekin, seme-alabekin, neba-arrebeekin, aitarekin eta amarekin)

- Lagunarteko erabilera
- Erabilera formala (dendak eta bankuak batetik, eta osasun-zerbitzuak eta udal zerbitzuak bestetik)

Erabilerari buruzko emaitzetan alde handiak daude lurralde batetik bestera. Izan ere, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak, hau da, euskararen erabilera trinkoa egiten dutenak % 39,5 dira Gipuzkoan, % 13 Bizkaian eta % 5,6 Araban. Horietaz gain, euskara erabiltzen dutenak, baina erdara baino gutxiago, % 10,9 dira Gipuzkoan, % 10 Bizkaian eta % 8,9 Araban.

Hiriburuetakoko erabileran ere alde handia dago Gasteiz eta Bilbotik Donostiara. Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak % 4,7 dira Gasteizen, % 5,6 Bilbon eta % 19,7 Donostian. Eta euskara erabiltzen dutenak, baina erdara baino gutxiago, % 7,8 dira Gasteizen, % 9,2 Bilbon eta % 13,3 Donostian.

9. taula. Euskararen erabilera lurraldearen eta hiriburuaren arabera. EAE, 2016 (%)

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Gasteiz	Bilbo	Donostia
Euskaraz erdaraz baino gehiago	1,7	7,5	28,2	1,2	1,7	8,3
Euskaraz erdaraz beste	3,9	5,5	11,3	3,5	2,9	11,4
Euskaraz erdaraz baino gutxiago	8,9	10,0	10,9	7,8	9,2	13,3
Oso gutxi euskaraz	7,2	6,8	4,4	6,9	7,5	6,7
Beti erdaraz	78,3	70,2	45,2	80,5	78,8	60,2

Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.


Lurraldeen eta hiriburuaren artean dauden alde horiek oso nabarmenak dira gune soziolinguistikoen artean ere. Euskararen erabilera trinkoa % 3,9koa da lehenengo gune soziolinguistikoa, eta % 19,1ekoa bigarrenen. Hirugarren gune soziolinguistikoa, aldiz, % 52,4k erabiltzen dute euskara erdara beste edo gehiago, eta laugarrenean % 78,6k.

**10. taula.** Euskararen erabilera gune soziolinguistikoaren arabera. EAE, 2016 (%)

	1. gunea	2. gunea	3. gunea	4. gunea
Euskaraz erdaraz baino gehiago	1,2	7,9	36,8	72,0
Euskaraz erdaraz beste	2,7	11,2	15,6	6,6
Euskaraz erdaraz baino gutxiago	9,1	14,6	9,3	6,1
Oso gutxi euskaraz	7,6	6,9	2,1	1,9
Beti erdaraz	79,4	59,4	36,1	13,5

Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

Azken 25 urteotako bilakaera aztertuz gero, euskararen erabilera 5 puntu egin du gora EAE n. Gaur egun, 1991n baino 111.000 pertsona gehiagok erabiltzen du EAE n euskara erdara beste edo gehiago.

**32. irudia.** Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera. EAE, 1991-2016

Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

Igoera hori hiru lurraldeetan eta hiru hiriburuetan gertatu da. Araban euskararen erabilerak 5,1 puntu egin du gora (14.305 pertsona), Bizkaian 4,2 puntu (43.830 pertsona) eta Gipuzkoan 6,4 puntu (53.164 pertsona).


**11. taula.** Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera lurraldearen arabera. EAE, 1991-2016

	1991	1996	2001	2006	2011	2016
EAE	15,5	18,1	17,5	18,9	20,0	20,5
Araba	0,5	1,9	1,9	3,4	4,3	5,6
Bizkaia	8,8	11,1	11,2	12,6	12,9	13,0
Gipuzkoa	33,1	36,5	34,7	36,2	39,0	39,5
EAE	271.121	321.976	315.826	349.425	375.139	382.419
Araba	1.080	4.559	4.588	8.899	11.676	15.385
Bizkaia	84.321	108.200	201.285	125.326	128.471	128.151
Gipuzkoa	185.720	209.218	315.826	215.200	234.992	238.884

*Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.*

EAEko lehenengo hiru guneko soziolinguistikoetan euskararen erabilerak gora egin du 1991 eta 2016 bitartean. Laugarren guneko soziolinguistikoan, aldiz, euskararen erabilerak behera egin du (9,7 puntu). Beherakada hori azken ia bi hamarkadetan izan diren biztanleen mugimenduen ondorioa da nagusiki. Gune erdaldunetan, mugimendu horiek euskararen mesederako izan badira ere, gune euskaldunetan euskararen kalterako izan dira oro har, bertara bizitzera joan diren pertsonen euskararen ezagutza bertan bizi edota bertatik atera direnena baino apalagoa baita gehienetan.

**33. irudia.** Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera gune soziolinguistikoaren arabera. EAE, 1991-2016 (%)



## 4.2. EUSKARAREN ERABILERA SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA

Sexuari dagokionez, euskararen erabilera oro har ez dago alde esanguratsurik emakumezkoen eta gizonezkoen artean. Izan ere, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen portzentajea %20 da emakumezkoen artean eta %21,1 gizonezkoen artean. Azken 25 urteotan, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen duten emakumezkoen eta gizonezkoen portzentajeen arteko aldea txikia izan da.


**12. taula.** Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera sexuaren arabera. EAE, 1991-2016 (%)

	1991	1996	2001	2006	2011	2016
Gizonezkoak	15,9	18,9	17,5	19,0	19,8	21,1
Emakumezkoak	15,2	17,3	17,5	18,7	20,2	20,0
<b>Guztira</b>	<b>15,6</b>	<b>18,1</b>	<b>17,5</b>	<b>18,9</b>	<b>20,0</b>	<b>20,5</b>

Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

Euskararen erabilera adinaren arabera aztertuz gero, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen portzentajea gero eta txikiagoa da 65 urtetik gorakoen artean, eta gero eta handiagoa adin horretatik beherakoen artean. Hazkundera, gainera, handiagoa da adinak behera egin ahala. 2016an, 65 urtetik gorakoen artean euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak % 17,5 dira (1991n % 25,3), 50 eta 64 urtekoen artean % 17,5 (1991n % 16,6), 35 eta 49 urtekoen artean % 20,1 (% 13,3 zen 1991n), 25 eta 34 urtekoen artean % 26,6 (1991n % 14,2), eta 16 eta 24 urtekoen artean % 29,5 (1991n % 12,4).

**34. irudia.** Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera adinaren arabera. EAE, 1991-2016 (%)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

Beti erdara erabiltzen dutenek nagusi izaten jarraitzen dute adin-talde guztietan, 25 urtetik beherakoen artean izan ezik (16 eta 24 urtekoen artean beti erdaraz aritzen direnak % 35,8 dira).

Adinaren arabera jokoera horiek oro har errepikatu egiten dira EAEko hiru lurraldeetan. Gipuzkoan, gainera, azpimarratzekoa da 25 urtetik beherako gazteen artean ez ezik (% 54,7), 25 eta 34 urtekoen artean ere (% 52,1) erdia baino gehiago direla dagoeneko euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak eguneroko jardunean.

**13. taula.** Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak lurraldearen eta adinaren arabera. EAE, 2016 (%)

	Adina					
	Guztira	≥ 65	50-64	35-49	25-34	16-24
EAE	20,5	17,5	17,5	20,1	26,6	29,5
Araba	5,6	1,1	4,2	5,6	9,8	14,9
Bizkaia	13,0	12,1	12,3	11,8	16,2	16,7
Gipuzkoa	39,5	33,5	32,1	40,2	52,1	54,7

Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.


### 4.3. EUSKARAREN ERABILERA HAINBAT EREMUTAN: ETXEAN, LAGUNEN ARTEAN, EREMU FORMALEAN

#### EUSKARAREN ERABILERA ETXEAN

EAEn 16 urte edo gehiagoko biztanleen % 19k euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dute etxean, % 8,1ek euskara erdara baino gutxiago, eta gainerako % 72,9k erdara erabiltzen du soilik.

Etxeko kideen arteko erabileran alde esanguratsuak daude. Euskararen erabilerarik handiena seme-alabekin egiten da (% 23), eta erabilerarik txikiena bikotekidearekin (% 14,9). Neba-arreben arteko erabilera % 20,2koa da, aitarekin % 17,6koa eta amarekin % 16,7koa.

**35. irudia.** Etxean euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak. EAE, 2016 (%)



Azken 25 urteotan, euskararen erabilerak etxean gorabehera txikiak izan ditu (1,7 puntu). Bilakaerarik txikiena bikotekidearekin egiten den erabilerak izan du, nahiz eta azken hamarkadan gora egin duen pixkanaka. Bilakaerarik positiboena, aldiz, seme-alabekiko erabilerak (4,9 puntu) eta neba-arreben artekoak (3,2 puntu) izan dute.



**14. taula.** Etxean euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera. EAE, 1991-2016 (%)

	1991	1996	2001	2006	2011	2016
Etxean denek elkarrekin daudenean	17,3	19,0	17,0	18,2	17,2	19,0
Bikotekidearekin	14,7	15,9	12,1	13,8	14,1	14,9
Seme-alabekin	18,1	22,4	20,5	23,5	22,8	23,0
Amarekin	16,0	17,4	14,8	17,3	16,4	16,7
Aitarekin	13,9	16,3	14,1	16,3	15,9	17,6
Neba-arrebekin	17,0	20,2	18,1	19,7	20,1	20,2

Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

## EUSKARAREN ERABILERA LAGUNARTEAN

EAE n, 16 urte edo gehiagoko biztanleen %21,4k euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dute lagunekin, % 11,1ek euskara erabiltzen dute, baina erdara baino gutxiago, eta gainerako %67,5ek erdara erabiltzen du soilik.

Azken 25 urteotan, 5,3 puntu egin du gora lagunekin euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen portzentajeak, eta 5,9 puntu euskara erabiltzen dutenenak, erdara baino gutxiago bada ere.

**15. taula.** Lagunekin euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera. EAE, 1991-2016 (%)

	1991	1996	2001	2006	2011	2016
Erabilera lagunekin	16,1	19,9	18,2	20,8	21,3	21,4

Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

## EUSKARAREN ERABILERA EREMU FORMALAN


Atal honetan hiru erabilera-eremu aztertuko ditugu: erabilera lankideekin, erabilera eremu pribatuan (dendariekin eta bankukoekin) eta erabilera eremu publikoan (osasun-zerbitzukoekin eta udal zerbitzukoekin).

2016an, lankideekin euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak % 25,3 dira EAEn. Euskara erabiltzen dutenak, baina erdara baino gutxiago, % 10,9 dira, eta erdara hutsez mintzatzen direnak, % 63,8.

Eremu pribatuan, dendariekin % 20,8k erabiltzen dute euskara erdara beste edo gehiago, eta bankukoekin % 20,2k. Bi erabilera-eremu horietan euskara erabiltzen dutenak, baina erdara baino gutxiago, % 9,2 eta % 5,7 dira hurrenez hurren.

Eremu publikoari dagokionez, osasun-zerbitzukoekin % 20k erabiltzen dute euskara erdara beste edo gehiago, eta udal zerbitzukoekin % 25,8k.

36. irudia. Eremu formalean euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak. EAE, 2016 (%)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

Azken 25 urteotan, 9,9 puntu egin du gora lankideekin euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen portzentajeak, 6 puntu dendariekin eta 5,1 puntu bankukoekin. Eremu publikoan, hazkundera 11,5 puntukoa izan da osasun-zerbitzukoekin eta 10,4 puntu udal zerbitzukoekin.

**16. taula.** Eremu formalean euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera. EAE, 1991-2016 (%)

	1991	1996	2001	2006	2011	2016
Lankideekin	15,4	18,8	18,0	22,5	24,5	25,3
Dendariekin	14,8	18,6	16,9	19,1	20,4	20,8
Bankukoekin	15,1	19,9	19,9	20,7	21,3	20,2
Osasun-zerbitzukoekin	8,5	13,6	14,1	17,0	19,8	20,0
Udal zerbitzukoekin	15,4	21,7	20,0	22,2	24,8	25,8

Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

#### 4.4. EUSKARAREN ERABILERA SARE SOZIALETAN

Inkestatuen %72k Interneteko sare sozialak erabiltzen ditu, gehienek (%61,7) egunero. Erabiltzaileen adinari dagokionez, 65 urtetik beherako adin-talde guztietan nagusi dira gizarte-sareak egunero erabiltzen dituztenak, eta zenbat eta gazteagoa izan, orduan eta gehiago erabiltzen dituzte (%56,3 dira 50 eta 64 urtekoen artean, eta 16 eta 24 urtekoen artean %95,2).

Interneteko sare sozialetan gehien erabiltzen den hizkuntza gaztelania da, baita gazteen artean ere. Hala ere, erabiltzaileen %17,6k maiztasun handiz erabiltzen du euskara (%50eko edo gehiagoko erabilera). Gazteen artean (16-24 urte), euskara maiztasun handiz erabiltzen dutenak %29,5 dira. Gaztelaniaz


eta euskaraz gain, erabiltzaileek beste hizkuntza batzuetan ere badihardute Interneten, nagusiki ingelesez (%2,9).

#### 4.5. EUSKARAREN ERABILERAN ERAGITEN DUTEN FAKTOREAK: KORRELAZIOAK

Orain arteko emaitzak kontuan hartuta, esan daiteke EAEn gero eta pertsona gehiagok erabiltzen duela euskara eta gero eta gutxiago direla erdara hutsean aritzen direnak. Hau da, ahozko euskararen presentzia apurka-apurka gero eta handiagoa da bai familian bai eremu hurbilean, baita eremu formalean ere.


Baina, aldi berean, gertatzen ari da euskararen erabilera ez dela euskararen ezagutzaren neurri berean hazten ari. Hau da, euskaraz ondo edo nahiko ondo hitz egiten dutenen kopurua gero eta handiagoa da, baina euskaraz hitz egiteko gaitasun nahikoa duten horien artean euskara erabiltzen dutenen ehunekoa duela 25 urte baino txikiagoa da gaur egun.

37. irudia. Ezagutzaren eta erabileraren bilakaera. EAE, 1991-2016



Erabilera-datuak, gizarte osoarekiko eman beharrean, euskaldunekiko bakarrik emanez gero, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen duten euskaldunen ehunekoak 3,7 puntu egin du behera azken 25 urteotan, nahiz eta, esan bezala, euskara erabiltzen dutenen kopurua handiagoa izan.

**38. irudia.** Euskaldunen artean euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera. EAE, 1991-2016 (%)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

Gertakari hori hobeto ulertzeko, euskararen erabileran eragiten duten faktoreak ezagutuko ditugu jarraian. Horretarako, korrelazioen analisia egingo dugu. Korrelazioak aldagai batean beste aldagai batzuek duten eragina erakusten digu. 0 eta 1 arteko zenbaki baten bidez adierazten da, eta 1etik zenbat eta gertuago egon, orduan eta handiagoa da eragin hori.

Hiru erabilera-eremuren arabera korrelazioak atera dira: etxeko erabilera, lagunartekoa eta lankideen artekoa. Guztietan, hurrenkera zerbait aldatu arren, bi dira erabileran gehien eragiten duten faktoreak: harreman-sareko euskaldunen dentsitatea (zenbatek dakien euskara etxean, lagunartean edo lankideen artean, eta guneko soziolinguistikoa) eta erraztasuna (lehen hizkuntzarekin lotura zuzena duena).

Etxeko erabileran gehien eragiten duen faktorea etxeko euskaldunen dentsitatea da, hau da, zenbatek dakien euskaraz etxean (0,758). Bigarren faktorea erraztasuna da (0,695). Lehen hizkuntzak lotura handia du erraztasunarekin, eta eragin handia du etxeko erabileran (0,658). Jarraian, gune soziolinguistikoa legoke (0,575).

**17. taula.** Korrelazioak: euskararen erabilera etxean. EAE, 2016

	Zenbatek daki euskaraz	Zein hizkuntzatan errazago	Lehen hizkuntza	Gune soziolinguistikoa
Zein hizkuntzatan hitz egiten duzue etxean	0,758	0,695	0,658	0,575

*Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.*

Lagunarteko erabileran, berriz, gehien eragiten duen aldagaia erraztasuna da (0,683), eta erraztasunarekin lotura handia duen lehen hizkuntzarekiko korrelazioa ere altua da (0,579). Bigarren faktorea harreman-sarearekin lotura duen gune soziolinguistikoa da (0,591), eta lagunetatik zenbatek dakien euskaraz ere eragin handia du (0,539).

**18. taula.** Korrelazioak: euskararen erabilera lagunekin. EAE, 2016

	Zein hizkuntzatan errazago	Gune Soziolinguistikoa	Lehen hizkuntza	Zenbatek daki euskaraz
Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu lagunekin	0,683	0,591	0,579	0,539

*Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.*

Lankideen arteko erabileran euskaldunen dentsitateak eragiten du gehien (0,777), hau da, lankideetatik zenbatek dakien euskaraz. Bigarren faktorea erraztasuna da (0,438) eta hirugarrena euskararekiko interesa (0,301). Lehen hizkuntzak (0,298) eta gune soziolinguistikoak (0,297) oso antzeko eragina dute.

19. taula. Korrelazioak: euskararen erabilera lankideekin. EAE, 2016

	Zenbatek daki euskaraz	Zein hizkuntzatan errazago	Interesa	Lehen hizkuntza
Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu lankideekin	0,777	0,438	0,301	0,298

Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.


Aurreko ataletan azaldutakoa gogora ekarriz, EAEko euskaldunen herenak baino gehiagok ez du euskararik jaso etxean (% 36,9), erdia baino gehiago (% 51,9) lehenengo edo bigarren gune soziolinguistikoetan bizi dira eta % 44k erraztasun handiagoa dute erdaraz euskaraz baino. Ehuneko horiek, gainera, handiagoak dira adinak behera egin ahala.

Euskaldunen ezaugarri horiek euskararen erabileran duten eragina, kopuruen bidez ikusiko dugu datozen bi ataletan.

#### 4.6. EUSKARAREN ERABILERA EUSKALDUNEN ARTEAN GUNE SOZIOLINGUISTIKOAREN ARABERA

2016an, lehenengo gune soziolinguistikoa, hau da, gunerik erdaldunenean, euskaldunen %20k erabiltzen du euskara erdara beste edo gehiago. Euskaldunen ehunekoa eta, horrekin batera, harreman-sarea handitu ahala, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen ehunekoak gora egiten du. Izan ere, bigarren gune soziolinguistikoa, %52,6 da euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen duten euskaldunen ehunekoa, hirugarrenean %86,3 eta laugarrenean, hau da, euskaldunenean, %95,3.

**39. irudia.** Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen euskaldunen bilakaera gune soziolinguistikoa arabera. EAE, 1991-2016 (%)



Azken 25 urteotako bilakaera aztertuz gero, euskararen erabilera euskaldunen artean gora egin du lehenengo (3,4 puntu), bigarren (2 puntu) eta hirugarren (8,9 puntu) gune soziolinguistikoetan, eta behera laugarrenean (2,1 puntu).




#### 4.7. EUSKARAREN ERABILERA EUSKALDUNEN ARTEAN ERRAZTASUNAREN ARABERA

Euskal elebidunen, hau da, euskaraz erdaraz baino errazago moldatzen diren euskaldunen %97,2k euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen du. Adinaren arabera oso gorabehera txikiak daude, baina 35 urtetik gorako euskal elebidunak batez bestekoaren zertxobait gainetik daude, eta 35 urtetik beherakoak batez bestekotik zertxobait azpitik.

Elebidun orekatuen kasuan, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak %84,9 dira. Erabilerak behera egiten du adinak behera egin ahala.

Erdal elebidunen artean, %22,1ek erabiltzen du euskara erdara beste edo gehiago. Elebidun orekatuekin gertatzen den bezala, ehunekoak behera egiten du adinak behera egin ahala.

**40. irudia.** Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen duten euskaldunak erraztasunaren arabera. EAE, 2016 (%)



## 5. EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEARI BURUZKO JARRERA

### 5.1. EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEARI BURUZKO JARRERA LURRALDEAREN ETA HIRIBURUAREN ARABERA


Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera ezagutzeko, euskara sustatzearen alde edo kontra inkestatuek erakutsi duten lau iritziren arabeko tipologia eratu da.

Honako hauek dira tipologia osatzeko aintzat hartu diren iritziak:

- Administrazioan sartzeko euskara jakitea beharrezkoa da
- Hobe da jendeak ingelesa ikastea euskara ikastea baino
- Ezinbestekoa da haur guztiek euskara ikastea
- Irrati/telebistek programa gehiago behar lukete euskaraz


Inkesta Soziolinguistiko honen arabera, EAEko 16 urtetik gorako biztanleen %65 euskararen erabilera sustatzearen alde dago, %25,8 ez alde ez aurka, eta %9,3 aurka dago.

41. irudia. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera. EAE, 2016 (%)



1991ko eta 2016ko datuak alderatuz, euskara sustatzearen alde daudenen ehunekoak 10 puntuko igoera izan du (%55 versus %65). 2016an, gutxiago dira ez alde ez aurka agertzen direnak (%31 versus %25,8), eta gutxitu egin da aurka duden ehunekoa (%14 versus %9,3).

**42. irudia.** Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarreraren bilakaera. EAE, 1991-2016 (%)



Euskara sustatzearen aldeko jarrera handiagoa da Gipuzkoan (%74,6), Bizkaian (%62,2) eta Araban (%53,4) baino.

Hiriburuei dagokienez, Donostiako biztanleriaren %60,7 euskara sustatzearen alde dago, Bilboko biztanleriaren %53,8 eta Gasteizkoaren %50,6. Aurka daudenen artean, ehunekorik altuena Bilbok eta Gasteizek dute (%15,7 eta %14,3 hurrenez hurren), eta aurkako jarrerarik txikiena Donostiak (%8,8).

**20. taula.** Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera lurralde eta hiriburuetan. EAE, 2016 (%)


	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Gasteiz	Bilbo	Donostia
Alde	53,4	62,2	74,6	50,6	53,8	60,7
Ez alde ez aurka	32,7	27,2	20,4	35,0	30,5	30,6
Aurka	13,9	10,6	5,0	14,3	15,7	8,8

Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarreraren tipologia osatzeko erabili diren iritziak eta erantzunak honako hauek dira:

- Administrazioan sartzeko euskara jakitea beharrezkoa dela pentsatzen du EAEko biztanleen %75,2k, eta %5,5 ez dago ez alde ez aurka. Bestalde, %18,6 dira iritzi horren aurka daudenak, eta beste %0,7k ez du erantzun.
- Hobe dela jendeak ingelesa ikastea euskara ikastea baino, pentsatzen du %25,1ek, %20,6 ez dago ez alde ez aurka. Azkenik, %53 dira iritzi horren aurka daudenak, hortaz, euskara sustatzearen aldekoak dira. Beste %1,3k ez du erantzun.
- Ezinbestekoa dela haur guztiek euskara ikastea pentsatzen du %82,6k, %4,5 ez dago ez alde ez aurka, %12,5 aurka dago, eta %0,4k ez du erantzun.
- Azkenik, irrati eta telebistek programa gehiago beharko luketela euskaraz pentsatzen du %51,4k, %19,6 ez dago ez alde ez aurka, %26,8 aurka dago, eta %2,2k ez du erantzun.

43. irudia. Jarreraren tipologia osatzeko erabilitako iritziak. EAE, 2016 (%)



## 5.2. EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEARI BURUZKO JARRERA HIZKUNTZA-GAITASUNAREN, SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA

Euskararekiko jarrerak lotura handia du hizkuntza-gaitasunarekin. Izan ere, euskararen erabilera sustatzearen alde azaltzen da euskaldunen % 87,1, euskaldun hartzaileen % 63,4 eta erdaldunen % 49,7.


Sexuari erreparatu, emakumezkoek gizonezkoek baino euskara sustatzearen aldeko jarrera handiagoa dute (%65,6 versus %64,3). Aurkako jarrera, aldiz, handiagoa dute gizonezkoek emakumezkoek baino: %8,8 emakumezkoek eta %9,8 gizonezkoek.

**21. taula.** Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera sexuaren arabera. EAE, 2016 (%)

	Alde	Ez alde ez aurka	Aurka
<b>Guztira</b>	<b>65,0</b>	<b>25,8</b>	<b>9,3</b>
Emakumezkoak	65,6	25,7	8,8
Gizonezkoak	64,3	25,9	9,8

Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

Adinari dagokionez, euskararen erabilera sustatzearen aldekoenak gazteenak eta nagusienak dira. 16-24 urte bitartekoen %69,4, 25-34 urte bitartekoen %67,8 eta 65 urte edo gehiagoen %67 aldekoak dira. Helduen aldeko jarrera, aldiz, txikiagoa da. Izan ere, 35-49 eta 50-64 urte bitartekoen aldeko jarrera %63,3koa eta %61,7koa da hurrenez hurren.

**44. irudia.** Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera adinaren arabera. EAE, 2016 (%)

Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.


### 5.3. EUSKARARI BURUZKO INTERESA ETA BESTE ZENBAIT IRITZI

Euskararekiko interesari buruz galdetuta, EAEko biztanleriaren %59,5ek interes handia edo oso handia du, %16,7k interes apur bat, %12,1ek interes txikia eta, azkenik, %11,4k ez du bat ere interesik.

Euskarari buruzko bestelako iritzi batzuekin jarraituz, EAEko 16 urte edo gehiagoko biztanleen %69,3k seme-alabarik izanez gero, D ereduari ikas dezaten nahi luke eta %23,6k B ereduari.

Duela 20 urte, hau da, 1996an, txikiagoa zen D ereduaren aldeko hautua (%41,4) eta handiagoa, aldiz, B ereduaren aldekoa (%44,7). Era berean, 1996an, A ereduaren aldeko hautua ere handiagoa zen (%9,3 duela 20 urte, eta %3,3 orain).

**45. irudia.** Seme-alabarik izanez gero, zein hizkuntza-eredutan nahi zenuke haiek ikastea? EAE, 1996-2016 (%)




Bestalde, 16 urte edo gehiagoko biztanleen %85,2k etorkizunean euskaraz eta gaztelaniaz hitz egin beharko litzatekeela uste du; eta % 12k, euskara hutsean.

Era berean, euskaldunei galdetu zaie ea inoiz diskriminatuta sentitu diren euskara erabiltzeko aukera ez izategatik, eta % 36,5ek erantzun du diskriminatuta sentitu dela. Erdaldunei galdetu zaie, ordea, ea inoiz diskriminatuta sentitu diren euskara ez jakiteagatik, eta % 23,4k erantzun du diskriminatuta sentitu dela.

Eusko Jaurlaritza euskararen arloan egiten ari den lanari buruz galdetuta, EAEko 16 urte edo gehiagoko herritarren % 61,9ri egokia iruditzen zaio, % 19,5i desegokia, % 1,5i berdina zaio, eta gainerako % 17ak ez daki edo ez du erantzun.

Lurraldeen arabera, bizkaitarrak eta gipuzkoarrak dira Eusko Jaurlaritza euskararen arloan egiten ari den lana egokia dela uste dutenen ehunekorik handiena dutenak (% 63,4 eta % 62,9 hurrenez hurren), eta arabarrak txikiena (% 54,6).

**46. irudia.** Eusko Jaurlaritza euskararen arloan egiten ari den lanari buruzko balorazioa lurraldearen arabera. EAE, 2016 (%)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.



Euskarari buruzko beste iritzi batzuez ere galdetu zaie inkestatuei. Laburbilduz, emaitzak dira:

- EAEko 16 urte edo gehiagoko biztanleen artean nagusi dira (%46,7) euskarak gaztelaniak duen garrantzia izango duela uste dutenak. Egia da, hala ere, biztanleriaren ia herenak (%31,3) kontrakoa uste duela, hau da, euskarak ez duela sekula izango gaztelaniak duen garrantzia.
- “Euskara beharrezkoa da jendearekin komunikatzeko” baieztapenari buruz, %52,6 alde dago, eta %39,9 aurka.
- Euskaldunek ezezagunei lehen hitza euskaraz egiteari dagokionez, EAEko biztanleen %55,3 ados dago, eta %28,2 aurka.
- Euskaldunok beti euskaraz aritzeari buruz nahiz eta guztiek ez jakin iritziaren aurka daude gehienak (%73,8).
- Azkenik, euskara ez dago galtzeko arriskuan gehienek ustez (%72,6). Euskaldunak bakarrik kontuan hartuz, erdiak baino gehiagok uste du euskara ez dagoela galtzeko arriskuan (%53,5), baina %38,6k uste du euskara galtzeko arriskuan dagoela.

## 6. LABURBILDUZ

- Euskal gizarteak bi ezaugarri esanguratsu ditu: gero eta gizarte zaharragoa izatea eta atzerrian jaiotako biztanleen hazkundea. EAEn gaur egun gehiago dira 65 urte baino gehiago dituztenak (%21,6), 20 urtetik beherakoak baino (%18,3). Atzerrian jaiotako biztanleei dagokienez, berriz, EAeko biztanleen %9,1 dira gaur egun.
- 16 urte edo gehiagoko biztanleen %33,9 euskalduna da, %19,1 euskaldun hartzailea eta %47 erdalduna. Gaur egun, 631.000 euskaldun daude, 1991n baino 212.000 euskaldun gehiago. Ia 10 puntuko hazkundea izan dute euskaldunek ehunekoetan (%24,1 versus %33,9).
- Euskaldunen ehunekorik handiena 16 eta 24 urte bitarteko gazteek dute. Horrela, 16 eta 24 urte bitartekoen %71,4 euskaldunak dira; 1991n, aldiz, %25 ziren. Hala ere, gazteen pisua biztanleria osoarekiko txikia denez, euskaldunen hazkundeak ez du horrenbesteko isla biztanleria osoko emaitzetan.
- Hamar euskaldunetik sei euskaldun zaharrak edo jatorrizko elebidunak dira, hau da, etxean jaso dute euskara. Adinak behera egin ahala, ordea, gero eta handiagoa da euskaldun berrien ehunekoa.
- Euskaldunek euskaraz egiteko duten erraztasunean alde handia dago lurraldeen artean. Arabako euskaldun gehienak erdal elebidunak dira (%70,8), Bizkaian erdia pasatxo dira (%54,7) eta Gipuzkoan ez dira herenera iristen (%29,8). Euskal elebidunei dagokienez, ordea, alderantziz gertatzen da. Gipuzkoan dago euskal elebidunen ehunekorik handiena (%35,9) eta Araban txikiena (%6,7).
- Gaur egun, 16 urtetik beherako seme-alabarik duten guraso euskaldun ia guztiek euskara transmititzen dute. Guraso biak euskaldunak direnean eta bien lehen hizkuntza euskara denean, transmisioa erabatekoa da (seme-alaben %94k euskara soilik jaso du etxean, eta %6k, euskara eta erdara). Guraso bien lehen hizkuntza erdara denean ere transmisioa oso altua da (seme-alaben %81ek euskara jaso du etxean). Gurasoetako bat baino ez denean euskalduna ere transmisioa handia da, batez ere guraso euskaldunaren lehen hizkuntza euskara denean (%88). Guraso euskaldun horren lehen hizkuntza erdara denean, erdira jaisten da euskaren transmisioa (%49).

- EAEn, gero eta pertsona gehiagok erabiltzen du euskara. Biztanleen %20,5ek euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen du (5 puntuko iguera izan du azken 25 urteotan). Beste % 10,1ek, euskara erabiltzen du, baina erdara baino gutxiago.
- Euskararen erabilerak gora egin du EAEko hiru lurraldeetan, lehenengo, bigarren eta hirugarren gunen soziolinguistikoetan, eta 65 urtetik beherakoen artean.
- Euskararen erabileraren hazkundea handiagoa izan da eremu formalean eta apalagoa etxean, seme-alabekiko eta neba-arreben arteko erabileran izan ezik.
- Euskararen ezagutza eta erabilera ez dira neurri berean hazi. Bilakaera horren oinarrian erabileran eragiten duten bi faktore nagusiak daude: erraztasuna eta harreman-sarea.
- Euskaldunen %36,8k etxetik kanpo ikasi du euskara, eta 16-24 urte bitartekoen artean, erdiak baino gehiagok (%53,9). Gainera, euskaldunen erdia (%51,9), lehenengo eta bigarren gunen soziolinguistikoetan bizi da. Hortaz, gehienek etxeko giroa eta harreman-sare hurbila erdalduna dute.
- Euskararen erabilera sustatzearen aldeko jarrerak hazkundea izan du azken 25 urteotan. Gaur egun, %65 euskararen erabilera sustatzearen alde dago, 1991n baino 10 puntu gehiago. Aurkako jarrerak, aldiz, behera egin du: 1991n, %14 ziren euskara sustatzearen aurka zeudenak, eta %9,3 dira oraingo inkestan.

**N A F A R R O A**  
VI. Inkesta Soziolinguistikoa



## 1. BIZTANLERIA<sup>1</sup>

Nafarroako Estatistika Erakundearen arabera, Nafarroan 640.647 pertsona bizi dira 2016an.

1991ko Nafarroako biztanleria eta 2016koa alderatzen baditugu, ikus daiteke 121.370 pertsona gehiago direla termino absolutuetan, baina, denbora horretan guztian zehar, hazkundera ez da lineala izan. 2011ra arte, biztanleria nabarmen joan zen handitzen eta, urte horretatik aurrera, biztanleria kopurua ez da handitu, are gehiago, gutxitu egin da.

1. taula. Biztanleriaren bilakaera. Nafarroa, 1991-2016

	1991	1996	2001	2006	2011	2016
Nafarroa	519.277	520.574	555.829	601.874	642.051	640.647

Iturria: Nafarroako Estatistika Erakundea.

Bilakaera horren eragileak izan dira, batetik, saldo begetatiboak (jaiotzen eta heriotzen kopuruen arteko aldea) eta, bestetik, migrazio-saldoak (immigrazioen eta emigrazioen kopuruen arteko aldea).

Bertako biztanleen ezaugarri nagusiak honakoak dira:

- Gero eta gizarte zaharragoa: gero eta bizi-itxaropen handiagoa (86,3 urte emakumezkoentzat eta 80,9 urte gizonezkoentzat) eta jaiotze-tasa Europakoa baino txikiagoa (9,2 jaiotza 1.000 biztanleko; EB-27an, 10,1).

<sup>1</sup> Datuak INE eta Nafarroako Estatistika Erakundetik ateratakoak dira.


- Atzerritik iritsitako etorkinen hazkunde handia mende hasieratik hona: atzerrian jaiotakoak Nafarroako biztanleen % 13,4 dira 2016an.

Bi ezaugarri horietako lehena ez da berria. Gizartearen zahartze-prozesua 70eko hamarkadan hasi zen. Horrela, 65 urte edo gehiagoko biztanleriaren ehunekoak 4 puntuko hazkundea izan du 1991tik 2016ra, eta gaur egun biztanleria osoaren % 19,4 da.

Are handiagoa da pertsona zaharrenen hazkundea, hau da, 85 urte edo gehiago dituztenena. Izan ere, azken 25 urteotan ia hirukoiztu egin da ehunekoa, eta biztanleria osoaren % 3,3 dira (% 1,3 ziren 1991n).


Horrekin batera, gazteak pisua galtzen joan dira. Gaur egun, 20 urte baino gutxiago dituztenak % 20,6 dira. Horrela, azken 25 urteotan, 20 urte baino gutxiagoko biztanleek 5 puntutan egin dute behera biztanleria osoarekiko pisan.

1. irudia. Biztanleriaren piramidearen bilakaera. Nafarroa, 1991-2016 (%)



Bigarren ezaugarri nagusia estatuz gaindiko etorkinen hazkundera da. Horrela, Nafarroan atzerrian jaiotako biztanleen ehunekoa %2,7 izatetik %13,4 izatera pasatu da 2000tik 2016ra.

**2. irudia.** Atzerrian jaiotako biztanleriaren bilakaera. Nafarroa, 2016




Biztanleria atzeritarraren kasuan, gizonezkoen pisua emakumezkoena baino handiagoa da. Dena dela, aldea gero eta txikiagoa da.

Etorkin atzeritarren jatorriari dagokionez, biztanleria europarraren pisua oso handia da Nafarroan (%42,2). Afrikako etorkinen pisua ere oso handia da, etorkinen %29,4 baitira. Etorkinen hirugarren multzorik handiena amerikarrek osatzen dute, %23,8. Azkenik, %4,6k asiarrak eta ozeaniar jatorria dute.

Adinari dagokionez, atzerrian jaiotako etorkin gehienak gazteak dira: Nafarroako atzeritarren batez besteko adina 32,9 urtekoa da. Etorkinen bi herenak 15-64 urte bitartekoak dira (%81,2) eta, hortaz, pisu handia dute adin-talde horietan.

Dena dela, pisurik handiena, 20-24, 25-29 eta 30-34 urte bitartekoek dute. Horrela, Nafarroako adin-talde horietako biztanleen laurdena (%24 eta %25 bitartean) atzerrian jaio da.



**3. irudia. Atzerrian jaiotako biztanleriaren piramidea. Nafarroa, 2016 (%)**


## 2. HIZKUNTZA-GAITASUNA

### 2.1. HIZKUNTZA-GAITASUNA HIZKUNTZA-EREMUETAN ETA HIRIBURUAN


Hiru hiztun mota bereizten dira euskaraz hitz egiteko edo ulertzeko duten gaitasunaren arabera:

- **Euskalduna (elebiduna):** euskara ondo edo nahiko ondo ulertzeko eta hitz egiteko gai da.
- **Euskaldun hartzailea (elebidun hartzailea):** ez da euskaraz ondo edo nahiko ondo hitz egiteko gai. Hala ere, badu euskararen nolabaiteko ezagutza. Zehazki, multzo honetan sartzen da honako baldintza hauetakoren bat gutxienez betetzen duena:
  - Euskaraz “zertxobait” ulertzeko eta hitz egiteko gai da.
  - Euskara “ondo” edo “nahiko ondo” ulertzeko gai da.
- **Erdalduna (erdaldun elebakarra):** ez da gai euskaraz ulertzeko, ezta hitz egiteko ere.

VI. Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, 2016an Nafarroan 16 urte edo gehiagoko biztanleriaren % 12,9 euskalduna da; % 10,3, euskaldun hartzailea; eta % 76,7, erdalduna.


Horrela, Nafarroan bizi diren 16 urte edo gehiagoko biztanleetatik 68.946 euskaldunak dira; 55.134, euskaldun hartzaileak; eta 409.522, erdaldunak.

4. irudia. Hizkuntza-gaitasuna. Nafarroa, 2016 (%)



Hiru hizkuntza-eremuak kontuan hartuz, alde handiak daude batetik bestera. Eremu euskalduna da euskaldunen ehunekorik handiena duena (%61,1). Eremu mistoan, %11,3 dira euskaldunak. Eremu ez euskaldunak du Nafarroako euskaldunen ehunekorik txikiena (%2,7).

5. irudia. Hizkuntza-gaitasuna eremuaren arabera. Nafarroa, 2016 (%)



Dena dela, euskaldunen kopuruari erreparatuz, ehunekoetan ez bezala, aipagarria da eremu mistoan eremu euskaldunean baino euskaldun gehiago bizi direla. Horrela, 34.136 euskaldun ditu eremu mistoak; 29.909 euskaldun, aldiz, eremu euskaldunak. Azkenik, eremu ez euskaldunak du Nafarroako euskaldunen kopururik txikiena (4.901).


2. taula. Hizkuntza-gaitasuna eremuaren arabera. Nafarroa, 2016

	Nafarroa	Eremu euskalduna	Eremu mistoa	Eremu ez euskalduna
<b>Guztira</b>	<b>533.602</b>	<b>48.938</b>	<b>302.428</b>	<b>182.236</b>
Euskaldunak	68.946	29.909	34.136	4.901
Euskaldun hartzaileak	55.134	6.558	36.169	12.407
Erdaldunak	409.522	12.471	232.123	164.928

Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

2011n bezala, inkesta honetan hiriburuko datuak ere emango dira. Iruñeari dagokionez, 16 urte edo gehiagoko biztanleen % 10,5 da euskalduna; % 11,4, euskaldun hartzailea; eta % 78,1, erdalduna.


6. irudia. Hizkuntza-gaitasuna. Iruña, 2016 (%)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

Atzera begiratuz gero, hogeita bost urtean 3,4 puntuko igoera izan du Nafarroako euskaldunen ehunekoak. 1991n, %9,5 ziren, eta orain, %12,9. Era berean, euskaldun hartzaileen ehunekoak ere gora egin du, biztanleen %4,6 izatetik %10,3 izatera iritsi baita.

#### 7. irudia. Euskaldunen bilakaera. Nafarroa, 1991-2016



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.


Euskaldunen hazkundera ez da oso handia izan, baina kontuan hartu behar dira azken urteotan gizarteak bizi izan dituen aldaketa soziodemografikoak. Batetik, Nafarroako gizartea gero eta zaharragoa da, hau da, bizi-itxaropena gero eta handiagoa da. Bestetik, jaiotza-tasa orain dela 25 urte baino askoz txikiagoa da. Hortaz, gazteen multzoak, euskaldun gehien biltzen dituen multzoa izanik, gero eta pisu txikiagoa du gizarte osoarekiko eta baita euskaldunen guztirakoan ere.

Nafarroan euskaldunen igoerarik handiena eremu mistoan gertatu da (%5,2tik %11,3ra). Eremu ez euskalduneari ere hazkundera izan da: %2,7 dira 2016an, eta duela hogeita bost urte %0,6 ziren.

Azkenik, eremu euskalduneari, euskaldunen ehunekoa ez da igo azken hogeita bost urteotan. Izan ere, 1991tik 2011ra bitartean, euskaldunak %59-60 inguruan mantendu dira, baina 2016an, %61,1era igo dira. Ez da igoera handia, baina goranzko joera islatzen du, ia bi puntuko igoera 2011tik 2016ra bitartean.

Hortaz, esan daiteke euskaldunen ehunekoa hiru eremuetan ari dela handitzen, baita eremu ez euskalduneari ere, nahiz eta eremu ez euskalduneko hazkundera oso txikia izan.

8. irudia. Euskaldunen bilakaera eremuaren arabera. Nafarroa, 1991-2016 (%)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

## 2.2. HIZKUNTZA-GAITASUNA SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA

Sexuari dagokionez, Nafarroako emakumeen % 12,7 euskaldunak dira, eta gizonen % 13,1. Ikusten denez, euskaldunen ehunekoan ez dago ia alderik emakumezkoen eta gionezkoen artean. Berdin gertatzen da hiru eremuetan.

3. taula. Euskaldunak sexuaren arabera. Nafarroa, 2016 (%)

	Nafarroa	Eremu euskalduna	Eremu mistoa	Eremu ez euskalduna
<b>Guztira</b>	<b>12,9</b>	<b>61,1</b>	<b>11,3</b>	<b>2,7</b>
Emakumezkoak	12,7	61,4	11,2	2,7
Gionezkoak	13,1	60,9	11,3	2,7


Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

Euskaldunen adinari erreparatuz gero, ikus daiteke euskaldunen ehunekorik handiena 35 urtetik beherakoen artean dagoela, 16-24 eta 25-34 adin-taldeetan, batez ere 16-24koan. Gaur egun, Nafarroan 16 eta 24 urte bitarteko gazteen % 25,8 da euskalduna, eta 25 eta 34 bitartekoen % 18,8.

Adinean gora egin ahala, gutxituz doa euskaldunen ehunekoa. Hortaz, euskaldunen ehunekorik txikiena 50-64 urte bitartekoen eta 65 urte edo gehiagokoen dute (% 9,5 eta % 8,3 hurrenez hurren).

Hortaz, euskaldunen hazkundera gazteenetatik ari da zabaltzen. Multzorik erdaldunena helduena da, baina urteak pasatu ahala, multzo hori euskaldunak irabazten ari da azpitik eta erdaldunak galtzen goitik. Hau da, gazteak gero eta euskaldunagoak diren heinean, nagusien multzoan ere haziz doa euskaldunen ehunekoa.

9. irudia. Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera. Nafarroa, 2016 (%)




Azken 25 urteotako bilakaerari begiratuz gero, euskaldunen hazkundera gazteenetatik ari da zabaltzen. Horrela, 16-24 urte bitartekoen % 10 zen euskalduna duela 25 urte, eta egun ehuneko hori ia 16 puntu handiagoa da.

Era berean, 25-34 urte bitartekoen artean ere euskaldunen ehunekoak hazkundera handia izan du (% 7 ziren 1991n, eta % 18,8 dira 2016an).

Gainerako adin-taldeetan, ez da hazkundera edo murrizketa handirik gertatu ehunekoetan, puntu bateko edo biko gorabehera baitute.

10. irudia. Euskaldunen bilakaera adinaren arabera. Nafarroa, 1991-2016 (%)



Adinaren araberako bilakaera hiru eremuetan gertatu da. Dena dela, errealitateak oso desberdinak dira.

Eremu euskaldunetan, 16 eta 24 urte bitarteko gazteek dute gaur egun euskaldunen ehunekorik handiena (% 89,6). Adinak gora egin ahala, euskaldunen ehunekoak behera egiten du. Euskaldunen ehunekorik txikiena 50-64 urte bitartekoek dute (% 51,1). 65 urte edo gehiagoko adin-taldera iritsitakoan, ehunekoak berriro gora egiten du, eta % 58,4 dira euskaldunak adin-talde horretan.



Eremu mistoan, euskaldunen ehunekorik handiena gazteenek dute (%27,3), eta txikiena, zaharrenek (%4,1).

Iruñeko datuak ere antzekoak dira, hau da, %25,1 dira euskaldunak 16-24 urte bitartekoen artean eta %4,1, aldiz, 65 urtetik gorakoaren artean.

Eremu ez euskalduneko euskaldunen ehunekorik handiena ere gazteenen artean dago: %8,6 dira 16-24 urte bitartekoen artean, eta %4,1, ordea, 25-34 urte bitartekoen artean. Gainerako adin-taldeetan oso txikiak dira ehunekoak.

**5. taula.** Euskaldunak adinaren eta eremuaren arabera. Nafarroa, 2016 (%)

	ADINA					
	Guztira	≥ 65	50-64	35-49	25-34	16-24
<b>Nafarroa</b>	<b>12,9</b>	<b>8,3</b>	<b>9,5</b>	<b>11,7</b>	<b>18,8</b>	<b>25,8</b>
Iruña	10,5	4,1	7,5	10,3	16,3	25,1
Eremu euskalduna	61,1	58,4	51,1	56,0	77,7	89,6
Eremu mistoa	11,3	4,1	7,1	10,1	18,7	27,3
Eremu ez euskalduna	2,7	0,7	1,4	2,7	4,1	8,6

Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

### 2.3. HIZKUNTZA-GAITASUN ERLATIBOA: EUSKALDUNEN ERRAZTASUNA EUSKARAZ EGITEKO

Euskaldunen gaitasun erlatiboa aztertuko da orain, hau da, euskaraz eta erdaraz (gaztelaniaz gehienetan) hitz egiteko erraztasuna.

Aurrerantzean erdara hitza erabiliko da euskara ez den beste edozein hizkuntza adierazteko.

Honela sailkatzen dira euskaldunak euskara-gaitasun erlatiboaren arabera:


- **Euskal elebidunak:** erraztasun handiagoa dute euskaraz hitz egiteko erdaraz hitz egiteko baino.
- **Elebidun orekatuak:** bi hizkuntzetan erraztasun bera dute. Izan ere, euskaldun hauek adierazten dute euskaraz eta erdaraz, bietan, berdin hitz egiteko erraztasuna dutela.
- **Erdal elebidunak:** erraztasun handiagoa dute erdaraz hitz egiteko euskaraz hitz egiteko baino.

Nafarroan, euskaldunen % 23,2 dira euskal elebidunak. Ia euskal elebidun guztien lehen hizkuntza euskara da (% 95), eta gehienak eremu euskaldunean bizi dira (% 81).

Elebidun orekatuak, aldiz, euskaldunen % 25,7 dira. Eremu euskaldunean bizi dira erdia baino gehiago (% 58), eta eremu mistoan herena baino gehiago (% 38). Elebidun orekatu gehienek lehen hizkuntza euskara da (% 74).

Erdal elebidunek euskaldunen multzorik handiena osatzen dute (% 51,1). Erdal elebidun gehienak eremu mistoan bizi dira (% 71). Lehen hizkuntzari dagokionez, gehienek erdara izan dute lehen hizkuntza (% 75).

11. irudia. Euskaldunak erraztasunaren arabera. Nafarroa, 2016 (%)




Eremuen artean alde handia dago euskaldunen erraztasunean. Eremu euskaldunean, %43,4k euskaraz erdaraz baino errazago hitz egiten du. Herena berdin moldatzen da euskaraz zein erdaraz (% 34,1), eta bostena pasatxok (% 22,5) erraztasun handiagoa du erdaraz.

Eremu mistoan, berriz, nagusi dira erdaraz hobeto moldatzen diren euskaldunak (% 71,9). Elebidun orekatuak bostena dira (% 19,6), eta euskal elebidunak, % 8,4.

Eremu ez euskaldunean, % 80,2 erdal elebidunak dira, % 17,1 elebidun orekatuak, eta % 2,7 euskal elebidunak.

12. irudia. Euskaldunen erraztasuna eremuaren arabera. Nafarroa, 2016 (%)




Gizonezkoetan, euskal elebidunen ehunekoa handiagoa da emakumezkoetan baino (% 24,7 versus % 21,7).

Elebidun orekatuen kasuan alderantziz gertatzen da: ehunekoa handiagoa da emakumezkoetan gizonezkoetan baino (% 27 emakumezkoetan eta % 24,4 gizonezkoetan).

Erdal elebidunen artean, ez dago ia alderik. Emakumezkoen % 51,3 dira erdal elebidunak, eta gizonezkoen kasuan, % 50,9.


13. irudia. Euskaldunen erraztasuna sexuaren arabera. Nafarroa, 2016 (%)



Adinaren araberako aldeak handiak dira. Horrela, euskal elebidunen ehunetik handiena 65 urtetik gorakoen artean dago (% 37,7), eta adinak behera egin ahala, behera egiten du ehuneko horrek. Horrela, 16-24 urte bitarteko gazteen % 16,9 dira euskaraz erdaraz baino hobeto moldatzen direnak.

Elebidun orekatuen ehunetik handiena 35-49 bitartekoena da (% 28,5), eta txikiena, 16-24 urte bitartekoena (% 20,6).

Erdal elebidunen ehunekoa handiagoa da adinak behera egin ahala. Horrela, 16-24, 25-34 eta 35-49 urte bitarteko euskaldunen erdiak baino gehiagok errazago hitz egiten du erdaraz euskaraz baino (% 62,6, % 56,4 eta % 50,1 hurrenez hurren).

**14. irudia.** Euskaldunen erraztasuna, adinaren arabera. Nafarroa, 2016 (%)



Bilakaerari dagokionez, azken 25 urteotan aldaketa nabaria izan da euskaldunen erraztasunean.

Horrela, 1991n, euskaldunen %40,6 hobeto moldatzen zen euskaraz erdaraz baino, orain %23,2 dira.

Euskaraz zein erdaraz berdin moldatzen direnen ehunekoa ez da asko aldatu (%26,6 ziren 1991n, eta %25,7 dira orain).

Erdaraz hobeto moldatzen direnek, ordea, hazkunde handia izan dute. Izan ere, %32,8 ziren 1991n, eta %51,1 dira gaur egun.

15. irudia. Euskaldunen erraztasuna bilakaera. Nafarroa, 1991-2016 (%)



Adinaren araberako bilakaera aztertuz gero, ikus daiteke 1991n euskal elebidunen ehunekoak behera egiten zuela adinean behera egin ahala. 2016an ere joera bera ikusten da.

1991n, elebidun orekatuen ehunekorik altuena 16-24 eta 25-34 urte bitartekoek zuten (%39,5 eta %28,7). 2016an, berriz, 35-49 eta 50-64 urte bitartekoek dute (%28,5 eta %27,9).

Azkenik, 1991n erdal elebidunen ehunekorik altuena 16-24 eta 25-34 urte bitartekoek zuten (%40,1 eta %40,2). 2016an ere ez da aldatu joera, 16-24 eta 25-34 urte bitartekoek baitute ehunekorik altuena (%62,6 eta %56,4).

**6. taula.** Euskaldunen erraztasunaren bilakaera adinaren arabera. Nafarroa, 1991-2016 (%)

1991	ADINA					
	Guztira	≥ 65	50-64	35-49	25-34	16-24
<b>Euskaldunak</b>	<b>40.167</b>	<b>9.031</b>	<b>7.706</b>	<b>11.248</b>	<b>5.367</b>	<b>6.815</b>
Euskal elebidunak	40,6	56,2	51,8	37,1	31,2	20,4
Elebidun orekatuak	26,6	19,3	22,9	26,3	28,7	39,5
Erdal elebidunak	32,8	24,5	25,2	36,6	40,2	40,1
<b>2016</b>						
<b>Euskaldunak</b>	<b>68.946</b>	<b>10.069</b>	<b>11.682</b>	<b>18.452</b>	<b>14.526</b>	<b>14.217</b>
Euskal elebidunak	23,2	37,7	26,9	21,4	18,7	16,9
Elebidun orekatuak	25,7	26,5	27,9	28,5	24,9	20,6
Erdal elebidunak	51,1	35,9	45,1	50,1	56,4	62,6

Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.


### 3. HIZKUNTZAREN TRANSMISIOA

#### 3.1. LEHEN HIZKUNTZA HIZKUNTZA-EREMUETAN ETA HIRIBURUAN

Lehen hizkuntzari buruz ari garenean, umeak hiru urte bete arte gurasoengandik edo umearekin bizi diren senitartekoengandik etxean jasotako hizkuntzari edo hizkuntzei buruz dihardugu.

Nafarroako 16 urte edo gehiagokoen %9,3k euskara jaso du etxean: %6,2k euskara soilik, eta %3,1ek, euskara eta erdara. Nafarroako hamar biztanletik bederatzik erdara soilik jaso du etxean (%90,8). Erdara diogunean, gaztelaniari buruz ari gara nagusiki, baina ez da ahaztu behar gero eta gehiagoren lehen hizkuntza errumaniera, portugesa, errusiera eta abar direla.

16. irudia. Lehen hizkuntza. Nafarroa, 2016 (%)



16 urte edo gehiagoko biztanleen artean lehen hizkuntza euskara soilik dutenen ehunekoa duela 25 urte baino txikiagoa da. %8,1 zen 1991n, eta %6,2 da 2016an (1,9 puntuko jaitsiera).

Lehen hizkuntza euskara eta erdara dutenen ehunekoa, aldiz, handiagoa da. %2,1 zen 1991n, eta %3,1 da 2016an (1 puntuko hazkundera).



Lehen hizkuntza erdara dutenen ehunekoa antzekoa da 1991n zein 2016an (% 89,8 versus % 90,8).

**7. taula.** Lehen hizkuntzaren bilakaera. Nafarroa, 1991-2016


	1991	2016	1991 (%)	2016 (%)
<b>Guztira</b>	<b>420.712</b>	<b>533.602</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Euskara	34.051	32.876	8,1	6,2
Euskara eta erdara	9.026	16.456	2,1	3,1
Erdara	377.635	484.270	89,8	90,8

*Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.*

Bada alderik eremuen arabera. Horrela, eremu euskalduneko biztanleriaren erdia baino gehiagoren lehen hizkuntza euskara da (% 55,3): % 45,4k euskara soilik jaso du etxean, eta % 9,9k euskara eta erdara.

Lehen hizkuntza erdara dutenak erabat nagusi dira eremu mistoan (% 93,8) eta eremu ez euskaldunean (% 98,1).

17. irudia. Lehen hizkuntza eremuaren arabera. Nafarroa, 2016 (%)



Iruñeari dagokionez, ehunekoak eremu mistokoen oso antzekoak dira. Izan ere, Iruñeko 16 urte edo gehiagoko biztanleen %3,1ek jaso du euskara hutsik etxean. Euskara erdararekin batera jaso du iruindarren %2,7k. Hortaz, Iruñean, hamarretik bederatzi biztanle baino gehiagoren lehen hizkuntza erdara da (%94,2).

8. taula. Lehen hizkuntza. Iruña, 2016


	2016	2016 (%)
<b>Guztira</b>	<b>166.534</b>	<b>100,0</b>
Euskara	5.120	3,1
Euskara eta erdara	4.481	2,7
Erdara	156.933	94,2

Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

### 3.2. LEHEN HIZKUNTZA SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA

Emakumezkoen eta gizonezkoen artean ez dago alderik lehen hizkuntza euskara, euskara eta erdara edo erdara jaso dutenen ehunekoetan.


18. irudia. Lehen hizkuntza sexuaren arabera. Nafarroa, 2016 (%)



Lehen hizkuntza euskara soilik dutenen ehunekorik handiena 65 urte edo gehiagokoek dute (% 8,5). Ehuneko horrek behera egiten du adinean behera egin ahala, 16-24 urte bitartekoaren adin-taldera iritsi arte. Gazteen artean, 16-24 urte bitartekoaren artean, alegia, aldaketa gertatzen da, eta etxean euskara soilik jaso dutenen ehunekoa handiagoa da 25-34 urte bitartekoena baino (% 5,9 versus % 5).

Euskara eta erdara batera jaso dutenen ehunekorik handiena, berriz, gazteenek dute (% 4,9).

19. irudia. Lehen hizkuntza adinaren arabera. Nafarroa, 2016 (%)




Duela 25 urte ere antzera gertatzen zen. Horrela, 1991n lehen hizkuntza gisa euskara soilik jaso zutenen ehunekorik altuena 65 urtetik gorakoek zuten (% 10,2), eta behera egiten zuen adinean behera egin ahala, gazteenen adin-taldera iritsi arte.

Horrezaz gain, 1991n handiagoa zen euskara soilik jaso zutenen ehunekoa adin-talde guztietan, 25-34 urte bitartekoen artean izan ezik. Adin-talde honetan zegoen euskara soilik jaso zutenen ehunekorik txikiena (%5), eta 2016an ere ehuneko bera dute.

Halaber, euskara eta gaztelania batera jaso zutenen ehunekoa txikiagoa zen oro har, gaur egun baino (%2,1 versus %3,1). Adinari erreparatuz eta alderaketa eginez, gazteenen artean dago alderik handiena. Izan ere, duela 25 urte, 16-24 urte bitarteko gazteen %1,5ek jaso zuen euskara eta erdara batera lehen hizkuntza gisa; gaur egun, ordea, adin horretako gazteen %4,9k jaso du, hau da, 3,4 puntuko aldea.

20. irudia. Lehen hizkuntzaren bilakaera adinaren arabera. Nafarroa, 1991-2016 (%)



Eremu euskaldunean lehen hizkuntza euskara edo biak dituztenak erdia baino gehiago dira adin-talde guztietan. Hala ere, lehen hizkuntza euskara soilik dutenen ehunekoari erreparatuz gero, behera egiten du adinak behera egin ahala (65 urtetik gorakoaren artean %52,7, eta 50 urtetik beherakoaren artean %40-%45 inguru).

Lehen hizkuntza euskara eta erdara batera dituztenen ehunekoa gero eta handiagoa da adinean behera egin ahala eremu euskaldunean. Izan ere, edadetuenen artean %7,7 dira, eta gazteenen artean, %17,7.

Lehen hizkuntza erdara dutenen ehunekorik altuena eremu euskaldunean 35-49 eta 50-64 urte bitartekoek dute (%49,7 eta %45,3 hurrenez hurren), eta txikiena 65 urtetik gorakoek eta 16-24 urte bitartekoek (%39,5 eta %40,7 hurrenez hurren).

Eremu mistoan, aldiz, lehen hizkuntza erdara dutenak erabat nagusi dira adin-talde guztietan: hamarretik bederatzik baino gehiagok erdara dute lehen hizkuntza. Lehen hizkuntza euskara jaso dutenen ehunekorik handiena, 65 urte edo gehiagokoen artean dago (%6,7), eta behera egiten du adinak behera egin ahala gazteenen artera iritsi arte. Azken adin-talde horretan, aurreko adin-taldean baino gehiago dira lehen hizkuntza euskara soilik jasotzen dutenak, hau da, %2,3.

Eremu mistoarekin jarraituz, alderantziz gertatzen da euskara eta erdara batera jasotzen dituztenekin: adinean behera egin ahala, gorantz egiten du ehunekoak ia adin-talde guztietan. Gazteen artean, askoz gehiago dira (%6,2) euskara eta erdara batera jasotzen dituztenak euskara hutsik jasotzen dutenak baino (%2,3). Gauza bera esan daiteke Iruñeari buruz.

9. taula. Lehen hizkuntza adinaren arabera. Nafarroa, 2016 (%)

		ADINA					
		Guztira	≥ 65	50-64	35-49	25-34	16-24
<b>Eremu euskalduna</b>	Euskara	45,4	52,7	45,5	42,5	40,3	41,6
	Euskara eta erdara	9,9	7,7	9,2	7,8	14,9	17,7
	Erdara	44,7	39,5	45,3	49,7	44,9	40,7
<b>Eremu mistoa</b>	Euskara	2,9	3,9	2,7	2,0	2,6	4,1
	Euskara eta erdara	3,3	2,3	3,4	2,7	4,3	5,5
	Erdara	93,8	93,8	93,9	95,3	93,1	90,4

Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

Eremu ez euskaldunean, lagina ez da nahikoa euren lehen hizkuntza adinaren arabera sailkatzeko. Nolanahi ere, esan dezakegu adin-talde guztiak kontuan hartuta %98,5ek erdara dutela lehen hizkuntza.

### 3.3. EUSKALDUNAK LEHEN HIZKUNTZAREN ARABERA


Nafarroako 16 urte edo gehiagoko euskaldunak etxean jaso duten hizkuntzaren arabera aztertuko dira orain.

Honela sailkatzen dira euskaldunak lehen hizkuntzaren arabera:

- **Euskaldun zaharrak:** euskara soilik jaso dute gurasoengandik edo etxean bizi diren senitartekoengandik, hiru urte bete arte.
- **Jatorrizko elebidunak:** euskara eta erdara jaso dituzte gurasoengandik edo etxean bizi diren senitartekoengandik, hiru urte bete arte.
- **Euskaldun berriak:** ez dute euskararik jaso etxean gurasoengandik edo etxean bizi diren senitartekoengandik. Etxetik kanpo ikasi dute euskara, eskolan edo euskaltegian.


Nafarroako 16 urte edo gehiagoko euskaldunen %40,7k euskara soilik jaso du etxean, hau da, euskaldun zaharra da. Euskaldunen %13,4k euskara eta erdara jaso ditu etxean, eta jatorrizko elebiduna da. Azkenik, ia erdiak ez du euskararik jaso etxean, eta euskaldun berria da (%45,9). Azken hauek etxetik kanpo euskaldundu dira, eskolan edo euskaltegian.

21. irudia. Euskaldunak lehen hizkuntzaren arabera. Nafarroa, 2016 (%)



Duela 25 urte, lautik hiru euskaldun zaharrak ziren (%76,6). Gaur egun ez bezala, jatorrizko elebidunen eta euskaldun berrien ehunekoa txikia zen (%7,4 eta %16 hurrenez hurren).

22. irudia. Euskaldunen bilakaera lehen hizkuntzaren arabera. Nafarroa 1991-2016 (%)



Datuak eremuaren arabera aztertuz gero, euren arteko aldeak nabarmenak dira. Horrela, eremu euskaldunean, hamar euskaldunetik zazpi euskaldun zaharrak dira (% 71,3); hamarretik bat, jatorrizko elebidunak (% 11); eta hamarretik ia bi, euskaldun berriak (% 17,6).

Eremu mistoan, hamar euskaldunetik sei baino gehiago euskaldun berriak dira (% 65,8), eta euskaldun zaharrak eta jatorrizko elebidunak nahiko parekatuta daude (% 18,1 eta % 16,1 hurrenez hurren).

Azkenik, eremu ez euskaldunean; hamar euskaldunetik zortzi euskaldun berriak dira (% 80); hamar euskaldunetik bat, euskaldun zaharrak (% 11,7); eta hamarretik ia beste bat, jatorrizko elebidunak (% 8,3).

Iruñeari dagokionez, eremu mistoan bezala, hamar euskaldunetik sei baino gehiago euskaldun berriak dira (% 62,6), eta euskaldun zaharrak eta jatorrizko elebidunak nahiko parekatuta daude (% 17,9 eta % 19,5 hurrenez hurren).




**10. taula.** Euskaldunak lehen hizkuntzaren eta eremuaren arabera. Nafarroa, 2016 (%)

	Eremu euskalduna	Eremu mistoa	Eremu ez euskalduna	Iruña
<b>Euskaldunak</b>	<b>29.909</b>	<b>34.136</b>	<b>4.901</b>	<b>17.491</b>
Euskaldun zaharrak	71,3	18,1	11,7	17,9
Jatorrizko elebidunak	11	16,1	8,3	19,5
Euskaldun berriak	17,6	65,8	80,0	62,6

Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

Adinaren arabera bilakaerari dagokionez, euskaldunen multzoa asko aldatu da azken 25 urteotan. Izan ere, orain ez bezala, 1991n, euskaldun zaharrak nagusi ziren adin-talde guztietan.

Gaur egun, aldiz, 16-24 eta 25-34 urte bitarteko euskaldunen erdia baino gehiago euskaldun berriak dira (% 58 eta % 57,9 hurrenez hurren). 1991n, ordea, adin tarte horietako euskaldunen % 25,5 eta % 30,2 ziren euskaldun berriak.

**23. irudia.** Euskaldunen bilakaera lehen hizkuntzaren eta adinaren arabera. Nafarroa, 1991-2016 (%)


■ Euskaldun zaharrak  
■ Jatorrizko elebidunak  
■ Euskaldun berriak

Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

### 3.4. FAMILIA BIDEZKO HIZKUNTZAREN TRANSMISIOA

Familia bidezko hizkuntzaren transmisioa nolakoa den jakiteko inkestatu guztiei galdetu zaie zein hizkuntza jaso duten etxean, euren gurasoen hizkuntza-gaitasunaren arabera.

Kontuan izan behar da inkestatuen artean 16 eta ia 100 urte bitarteko pertsonak daudela. Horren ondorioz, orain dela ia ehun urtetik hona gurasoek nola transmititu duten euskara jakin dezakegu.

Guraso biak euskaldunak izanik, seme-alaben %69,3k euskara soilik jaso du etxean Nafarroan, %11,8k euskara eta erdara, eta %18,9k ez du euskararik jaso.


Gurasoetako bat baino ez euskalduna izanik, %71,6k erdara soilik transmititu du, eta %28,4k euskara eta erdara.

Aipatzekoa da guraso biak euskaldunak izanik, euskararen transmisiorik txikiena 50 urte edo gehiagokoek dutela. Horrela, 16-34 urte bitarteko gazteen %82,4k euskara soilik jaso du etxean, eta %8,3k euskara eta erdara.

Era berean, 35-50 urte bitartekoen artean, guraso biak euskaldunak izanik, %89,8k euskara soilik jaso du, eta %7,5k euskara eta erdara.

Azkenik, 50 urte edo gehiago dituztenen artean, %60,1k euskara soilik jaso du etxean, eta %14k euskara eta erdara.


**24. irudia.** Transmisioa guraso biak euskaldunak direnean, adinaren arabera. Nafarroa, 2016 (%)



Gurasoetako batek euskaraz ez dakienean, desberdintasun handiak daude euskararen transmisioan adinaren arabera. Adinean behera egin ahala, euskararen transmisioa gero eta handiago da.

Horrela, gurasoetako batek euskaraz ez dakienean, 16-34 urte bitartekoen % 42,1ek euskara jaso du etxean erdararekin batera, 35-49 urte bitartekoen % 29k, eta 50 urte edo gehiagokoen % 18,7k.

**25. irudia.** Transmisioa gurasoetako bat bakarrik euskalduna denean, adinaren arabera. Nafarroa, 2016 (%)




Era berean, gurasoetako batek euskaraz ez dakienean, desberdintasun handiak daude euskararen transmisioan, ama edo aita denean euskaraz ez dakiena.

Ama baino ez bada euskalduna, % 63k erdara soilik transmititu du eta % 37k euskara eta erdara. Aita bakarrik denean euskalduna, % 81,8k erdara soilik transmititu du eta % 18,2k, ostera, euskara eta erdara.

Adinean behera egin ahala, transmisioa handiagoa da, bai ama euskalduna denean, bai aita euskalduna denean ere, eta bien arteko aldea ere txikiagoa da, baina ez ditugu datuak adinaren arabera emango, lagina txikiegia baita sexuaren eta adinaren araberako banaketa egin ahal izateko.

26. irudia. Transmisioa ama edo aita bakarrik euskalduna denean. Nafarroa, 2016 (%)




### 3-15 URTE BITARTEKO SEME-ALABARIK DUTEN FAMILIEN HIZKUNTZA-TRANSMISIOA

3-15 urte bitarteko seme-alabarik duten familien hizkuntzaren transmisioa nolakoa den jakiteko, inkestatuei galdetu zaie zein hizkuntza transmititu dieten seme-alabei.

Guraso biak euskaldunak direnean, %77,6k euskara soilik transmititu du, %16,9k euskara eta erdara, eta %5,5ek erdara soilik.

Gurasoetako bat baizik ez denean euskalduna, %61,6k euskara transmititu du, eta %38,4k erdara.

**27. irudia.** 3-15 urte bitarteko seme-alabei transmititutako hizkuntza, gurasoen hizkuntza-gaitasunaren arabera. Nafarroa, 2016 (%)




Transmisio hori aztertzeko, gurasoen hizkuntza-gaitasunaz gain, euren lehen hizkuntza ere hartu da kontuan.

Guraso biak euskaldunak direnean eta bien lehen hizkuntza euskara denean, euskararen transmisioa erabatekoa da: seme-alaben %94k euskara soilik jaso du etxean, eta %6k euskara eta erdara.

Guraso biak euskaldunak direnean eta bietako baten lehen hizkuntza euskara denean, seme-alaben %73k euskara soilik jaso du etxean, %17k euskara eta erdara, eta %10ek erdara soilik.

Guraso biak euskaldunak direnean eta bien lehen hizkuntza erdara denean, seme-alaben %31k euskara soilik jaso du etxean, %53k euskara eta erdara, eta %15ek erdara soilik.


28. irudia. 3-15 urte bitarteko seme-alabei transmititutako hizkuntza, gurasoen lehen hizkuntzaren arabera. Nafarroa, 2016 (%)



Gurasoetako bat baino ez denean euskalduna eta bere lehen hizkuntza euskara denean, %77k euskara eta erdara transmititu ditu, eta %23k erdara soilik.

Gurasoetako bat baino ez denean euskalduna eta bere lehen hizkuntza erdara denean, %54k euskara eta erdara transmititu ditu, eta %46k erdara soilik.

**29. irudia.** 3-15 urte bitarteko seme-alabei transmititutako hizkuntza, gurasoen lehen hizkuntzaren arabera. Nafarroa, 2016 (%)



### 3.5. EUSKARAREN IRABAZIAK ETA GALERAK

Lehen hizkuntza euskara edo euskara eta erdara izan duten gehienek euskara gorde dute, eta euskaldunak dira gaur egun (% 75,6).


Hala ere, badira lehen hizkuntza euskara izan arren gaur egun euskaldunak ez diren 12.000 pertsona, euskara guztiz edo partez galdu dutenak. Euskara soilik edo euskara eta erdara jaso dutenen %24,4 dira. 50 urtetik gorakoak dira gehienak, eta eremu mistoan bizi direnak.

Aldi berean, lehen hizkuntza erdara izan arren euskara ikasi eta gaur egun euskaldun diren 31.600 pertsona daude, hau da, euskaldunen %45,9. Gehienak eremu mistoan bizi dira.



Irabaziei dagokienez, alde handiak daude adinaren arabera. Euskara irabazi dutenen ehunekoa oso txikia da 65 urtetik gorakoen artean. 50 urtetik beherakoen artean, ordea, irabaziak gero eta handiagoak dira, eta gazteen artean oso handiak dira.

**30. irudia.** Euskararen irabaziak eta galerak adinaren arabera. Nafarroa, 2016 (%)



## 4. EUSKARAREN ERABILERA


### 4.1. EUSKARAREN ERABILERA HIZKUNTZA-EREMUETAN, GUNE SOZIOLINGUISTIKOETAN ETA HIRIBURUAN

Nafarroan, 16 urte edo gehiagoko biztanleen % 12,2k euskara erabiltzen du neurri batean ala bestean:

- a. % 6,6k euskararen erabilera trinkoa egiten du, hau da, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen du eguneroko jardunean.
- b. Aldi berean, % 5,6k euskara erabiltzen du, baina erdara baino gutxiago.

Gainerako guztiek (% 87,8) erdara erabiltzen dute beti edo ia beti. Kontuan hartu behar da, hala ere, azken hauen artean badela multzo txiki bat (% 2,5) oso gutxitan bada ere euskara ere erabiltzen duena.

31. irudia. Euskararen erabileraren tipologia. Nafarroa, 2016 (%)



Euskararen erabilera neurtzeko, tipologia bat definitu da erabilera-eremu hauen arabera:

- etxeke erabilera (etxekeak elkarrekin daudenean, bikotekidearekin, seme-alabekin, neba-arrebekin, aitarekin eta amarekin);
- lagunarteko erabilera;

- erabilera formala (dendak eta bankuak batetik, eta osasun-zerbitzuak eta udal zerbitzuak bestetik).

Erabilerari buruzko emaitzetan alde handiak daude eremu batetik bestera. Izan ere, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak, hau da, euskararen erabilera trinkoa egiten dutenak % 50,7 dira eremu euskaldunean, % 3,2 mistoan eta % 0,2 eremu ez euskaldunean. Horietaz gain, euskara erabiltzen dutenak, baina erdara baino gutxiago, % 11,9 dira eremu euskaldunean, % 10,8 mistoan eta % 2,5 eremu ez euskaldunean.

Iruñean, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak % 3,1 dira.

11. taula. Euskararen erabilera hiru eremuetan eta Iruñan. Nafarroa, 2016 (%)

	Eremu euskalduna	Eremu mistoa	Eremu ez euskalduna	Iruña
Euskaraz erdaraz baino gehiago	36,2	0,6	—	0,7
Euskaraz erdaraz beste	14,5	2,6	0,2	2,4
Euskaraz erdaraz baino gutxiago	9,8	7,4	1,4	6,6
Oso gutxi euskaraz	2,1	3,4	1,1	2,4
Beti erdaraz	37,3	85,9	97,3	87,9

Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

Eremuen artean dauden alde horiek oso nabarmenak dira gune soziolinguistikoen artean ere. Euskararen erabilera trinkoa % 2,5ekoa da lehenengo eta bigarren gune soziolinguistikoetan, % 53,3koa hirugarrenean, eta % 81,5ekoa laugarrenean.


12. taula. Euskararen erabilera gune soziolinguistikoaren arabera. Nafarroa, 2016 (%)

	1. eta 2. gunea	3. gunea	4. gunea
Euskaraz erdaraz baino gehiago	0,5	34,1	65,9
Euskaraz erdaraz beste	2,0	19,2	15,5
Euskaraz erdaraz baino gutxiago	5,4	11,2	6,4
Oso gutxi euskaraz	2,5	4,8	0,3
Beti erdaraz	89,6	30,7	11,9

Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

Azken 25 urteotako bilakaera aztertuz gero, euskararen erabilera trinkoak gorabehera txikiak izan ditu. 1991tik 2011ra bitartean beheranzko joera txikia izan ondoren, azken bost urteotan joera aldatu da, eta erabilera trinkoak 1,1 puntu egin du gora. Ikusi beharko da datozen urteetan joera-aldaketa hori egonkortzen den.


32. irudia. Euskararen erabileraren bilakaera. Nafarroa, 1991-2016 (%)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

Euskararen erabilerak gora egin du eremu euskaldunean eta eremu mistoan. 1991 eta 2016 bitartean, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen ehunekoak 3,5 puntu egin du gora eremu euskaldunean, eta 1,8 mistoan. Hazkunderik handiena azken 5 urteotan gertatu da: 2,1 puntu eremu euskaldunean, eta 1,5 eremu mistoan.

**33. irudia.** Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera eremuaren arabera. Nafarroa, 1991-2016 (%)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

## 4.2. EUSKARAREN ERABILERA SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA

Sexuari dagokionez, euskararen erabilera oro har ez dago alde esanguratsurik emakumezkoen eta gizonezkoen artean. Izan ere, 2016an euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen portzentajea %6,3 da emakumezkoen artean eta %6,8 gizonezkoen artean. Azken 25 urteotan, euskara beste edo gehiago erabiltzen duten emakumezkoen eta gizonezkoen portzentajeen arteko aldea txikia izan da, baina portzentajea zertxobait handiagoa izan da gizonezkoen artean emakumezkoen artean baino.


**13. taula.** Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera sexuaren arabera. Nafarroa, 1991-2016 (%)

	1991	1996	2001	2006	2011	2016
Gizonezkoak	7,0	6,4	6,6	6,2	5,8	6,8
Emakumezkoak	5,0	5,3	5,2	5,4	5,3	6,3
<b>Guztira</b>	<b>6,0</b>	<b>5,9</b>	<b>5,9</b>	<b>5,8</b>	<b>5,5</b>	<b>6,6</b>

Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

Euskararen erabilera adinaren arabera aztertuz gero, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen portzentajea gero eta txikiagoa da 65 urtetik gorakoen artean, eta gero eta handiagoa 35 urtetik beherakoen artean. 35-49 urtekoen adin-taldean, 1991 eta 2011 bitartean behera egin du euskararen erabilera, baina azken bost urteotan joera-aldaketa gertatu da hemen ere, eta ehunekoek gora egin dute 0,9 puntu 50-64 urtekoen adin-taldean, eta 1,3 puntu 35-49 urtekoenean.

**34. irudia.** Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera adinaren arabera. Nafarroa, 1991-2016 (%)



Eremu ez euskaldunean, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen ehunekoa % 1 baino txikiagoa izan da adin-talde guztietan azken 25 urteotan, eta hala da gaur egun ere.

Eremu mistoan, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen ehunekoa % 1,3koa da 65 urtetik gorakoen artean, eta oso aldaketa txikiak (puntu erdikoak edo txikiagoak) izan ditu azken 25 urteotan. Gainerako adin-talde guztietan, urte batetik bestera gorabeherak izan badira ere, gora egin du euskara erabiltzen dutenen portzentajeak. Hazkunderik handiena 35 urtetik beherakoen artean izan da.

Eremu euskaldunean, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen ehunekoak behera egin du 50 urtetik gorakoen artean, eta gora 50 urtetik beherakoen artean. Hazkunderik handiena 35 urtetik beherakoen artean izan da, eta zenbat eta gazteagoa orduan eta handiagoa da euskara erabiltzen dutenen portzentajea.

**14. taula.** Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak, eremuaren eta adinaren arabera. Nafarroa, 2016 (%)

	Adina					
	Guztira	≥ 65	50-64	35-49	25-34	16-24
Nafarroa	6,6	5,7	5,8	6,4	8,8	7,6
Ereму euskalduna	50,7	50,2	42,0	49,4	61,8	64,6
Eremu mistoa	3,2	1,3	2,9	3,1	6,0	4,2
Eremu ez euskalduna	0,2	—	0,1	0,4	0,3	0,3

Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.


### 4.3. EUSKARAREN ERABILERA HAINBAT EREMUTAN: ETXEAN, LAGUNEN ARTEAN, EREMU FORMALLEAN

#### EUSKARAREN ERABILERA ETXEAN

Etxeko erabilerari dagokionez, Nafarroan, 16 urte edo gehiagoko biztanleen %6,2k euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dute etxean, %3,1ek euskara erabiltzen dute, baina erdara baino gutxiago, eta gainerako %90,7k erdara soilik erabiltzen dute.

Etxeko kideen arteko erabileran alde esanguratsuak daude. Euskararen erabilerarik handiena seme-alabekin egiten da (%8), eta erabilerarik txikiena bikotekidearekin (%4,4). Neba-arreben arteko erabilera %7,1ekoa da, aitarekin %6,1ekoa, eta amarekin %5,8koa.



**35. irudia.** Etxean euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak. Nafarroa, 2016 (%)


Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

Azken 25 urteko bilakaerari dagokionez, 1991tik 2011ra bitartean etxeko euskararen erabilera orokorrak behera egin ondoren, azken bost urteotan hazi egin da (0,8 puntu).

**15. taula.** Etxean euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera. Nafarroa, 1991-2016 (%)

	1991	1996	2001	2006	2011	2016
Etxean denak elkarrekin daudenean	6,7	6,5	6,3	6,0	5,4	6,2
Bikotekidearekin	5,0	4,0	4,6	4,1	4,2	4,4
Seme-alabekin	6,5	7,1	6,8	7,6	8,0	8,0
Amarekin	6,5	6,0	6,2	5,4	5,0	5,8
Aitarekin	6,2	4,7	6,1	5,4	4,7	6,1
Neba-arrebeekin	6,2	6,9	7,2	6,6	7,0	7,1

Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

## EUSKARAREN ERABILERA LAGUNARTEAN

Nafarroan, 16 urte edo gehiagoko biztanleen %7,8k euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen du lagunekin, %5,8k euskara erabiltzen du, baina erdara baino gutxiago, eta gainerako %86,4k erdara soilik erabiltzen du.

Azken 25 urteotan, 0,6 puntu egin du gora lagunekin euskara erabiltzen dutenen portzentajeak, eta 2,7 puntu euskara erabiltzen dutenenak, erdara baino gutxiago bada ere.

**16. taula.** Lagunekin euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera. Nafarroa, 1991-2016 (%)

	1991	1996	2001	2006	2011	2016
Erabilera lagunekin	7,2	7,9	7,5	7,2	7,2	7,8

Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.


## EUSKARAREN ERABILERA EREMU FORMALEAN

Atal honetan hiru erabilera-eremu aztertuko ditugu: erabilera lankideekin, erabilera eremu pribatuan (dendariekin eta bankukoekin), eta erabilera eremu publikoan (osasan-zerbitzukoekin eta udal zerbitzukoekin).

2016an, lankideekin euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak %8,4 dira Nafarroan. Euskara erabiltzen dutenak, baina erdara baino gutxiago, %4,6 dira, eta erdaraz soilik mintzatzen direnak, %87.

Eremu pribatuan, dendariekin %6,3k erabiltzen du euskara erdara beste edo gehiago, eta bankukoekin %6,2k. Bi erabilera-eremu horietan euskara erabiltzen dutenak, baina erdara baino gutxiago, %4,6 eta %3,1 dira hurrenez hurren.

Eremu publikoari dagokionez, osasan-zerbitzukoekin %5,7k erabiltzen du euskara erdara beste edo gehiago, eta udal zerbitzukoekin %8,8k.

**36. irudia.** Eremu formalean euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak. Nafarroa, 2016 (%)

Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

Azken 25 urteotan, euskararen erabilerak gora egin du eremu formalean. Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen ehunekoak 3,1 puntu egin du gora lankideekin, 1,6 puntu dendariekin, eta 2,2 puntu bankukoekin. Eremu publikoan, hazkundea 3 puntukoa izan da osasun-zerbitzukoekin, eta 4,6 puntu udal zerbitzukoekin.

**17. taula.** Eremu formalean euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera. Nafarroa, 1991-2016 (%)

	1991	1996	2001	2006	2011	2016
Lankideekin	5,3	6,5	5,4	6,3	7,1	8,4
Dendariekin	4,7	5,0	5,0	5,4	5,1	6,3
Bankukoekin	4,0	5,7	5,6	5,3	5,3	6,2
Osasun-zerbitzukoekin	2,7	4,9	4,7	4,5	4,8	5,7
Udal zerbitzukoekin	4,2	6,1	6,7	5,7	6,3	8,8

Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

#### 4.4. EUSKARAREN ERABILERA SARE SOZIALETAN


Inkestatuen %77k Interneteko sare sozialak erabiltzen ditu, gehienek (%68,7) egunero. Erabiltzaileen adinari dagokionez, 65 urtetik beherako adin-talde guztietan nagusi dira sare sozialak egunero erabiltzen dituztenak, eta zenbat eta gazteagoa izan, orduan eta gehiago erabiltzen dituzte (%74,3 dira 50 eta 64 urtekoen artean, eta 16 eta 24 urtekoen artean %98,2).

Interneteko sare sozialetan gehien erabiltzen den hizkuntza gaztelania da, baita gazteenen artean ere. Hala ere, erabiltzaileen %6,5ek maiztasun handiz erabiltzen du euskara (%50eko edo gehiagoko erabilera). Gazteen artean (16-24 urte), euskara maiztasun handiz erabiltzen dutenak %13 dira. Gaztelaniaz eta euskaraz gain, erabiltzaileek beste hizkuntza batzuetan ere badihardute Interneten, nagusiki ingelesez (%3,3).

#### 4.5. EUSKARAREN ERABILERAN ERAGITEN DUTEN FAKTOREAK: KORRELAZIOAK


Beraz, orain arteko emaitzak kontuan hartuta, esan daiteke Nafarroan gero eta pertsona gehiagok erabiltzen duela euskara, eta gero eta gutxiago direla erdara hutsean aritzen direnak. Hau da, ahozko euskararen presentzia apurka-apurka gero eta handiagoa da, bai familian, bai eremu hurbilean, baita eremu formalean ere.

Baina, aldi berean, gertatzen ari da euskararen erabilera ez dela euskararen ezagutzaren neurri berean hazten ari. Hau da, euskaraz ondo edo nahiko ondo hitz egiten dutenen kopurua gero eta handiagoa da, baina euskaraz hitz egiteko gaitasun nahikoa duten horien artean euskara erabiltzen dutenen portzentajea duela 25 urte baino txikiagoa da gaur egun, nahiz eta azken bost urteotan hazkundera egon den.

**37. irudia.** Ezagutzaren eta erabileraren bilakaera. Nafarroa, 1991-2016


Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

Erabilera-datuak, gizarte osoarekiko eman beharrean, euskaldunekiko bakarrik emanez gero, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen duten euskaldunen portzentajeak 12,2 puntu egin du behera azken 25 urteotan, nahiz eta, esan bezala, kopurua handiagoa izan.

**38. irudia.** Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera, euskaldunak bakarrik kontuan hartuz. Nafarroa, 1991-2016


Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

Gertakari hori hobeto ulertzeko, euskararen erabileran eragiten duten faktoreak ezagutuko ditugu jarraian. Horretarako, korrelazioen analisia egingo dugu. Korrelazioak aldagai batean beste aldagai batzuek duten eragina erakusten digu. 0 eta 1 bitarteko balio baten bidez adierazten da, eta 1etik zenbat eta gertuago egon, orduan eta handiagoa da eragin hori.

Hiru erabilera-eremuren araberrako korrelazioak atera dira: etxeko erabilera, lagunartekoa eta lankideen artekoa. Guztietan, hurrenkera zerbait aldatu arren, bi dira erabileran gehien eragiten duten faktoreak: harreman-sareko euskaldunen dentsitatea (zenbatek dakien euskara etxean, lagunartean edo lankideen artean, eta gune soziolinguistikoa) eta erraztasuna (lehen hizkuntzarekin lotura zuzena duena).

Etxeko erabileran gehien eragiten duen faktorea etxeko euskaldunen dentsitatea da, hau da, zenbatek dakien euskaraz etxean (0,770). Bigarren faktorea erraztasuna da (0,645). Lehen hizkuntzak lotura handia du erraztasunarekin, eta eragin handia du etxeko erabileran (0,604). Jarraian, gune soziolinguistikoa legoke (0,574).

18. taula. Korrelazioak: euskararen erabilera etxean. Nafarroa, 2016

	Zenbatek daki euskaraz	Zein hizkuntzatan errazago	Lehen hizkuntza	Gune soziolinguistikoa
Zein hizkuntzatan hitz egiten duzue etxean	0,770	0,645	0,604	0,574

Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

Lagunarteko erabileran ere gehien eragiten duen faktorea euskaldunen dentsitatea da, hau da, zenbatek dakien euskaraz lagunartean (0,614). Bigarren faktorea erraztasuna da (0,602). Gune soziolinguistikoa lotura handia du harreman-sarearekin, eta eragin handia du lagunarteko erabileran (0,573). Jarraian, lehen hizkuntza legoke (0,442).

**19. taula.** Korrelazioak: euskararen erabilera lagunekin. Nafarroa, 2016

	Zenbatak daki euskaraz	Zein hizkuntzatan errazago	Gune soziolinguistikoa	Lehen hizkuntza
Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu lagunekin	0,614	0,602	0,573	0,442

Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

Lankideen arteko erabilera euskaldunen dentsitateak, hau da, lankideetatik zenbatak dakien euskaraz, eragiten du gehien (0,846). Bigarren faktorea erraztasuna da (0,407). Jarraian gune soziolinguistikoa (0,332) eta lehen hizkuntza (0,251) datoz.

**20. taula.** Korrelazioak: euskararen erabilera lankideekin. Nafarroa, 2016

	Zenbatak daki euskaraz	Zein hizkuntzatan errazago	Gune soziolinguistikoa	Lehen hizkuntza
Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu lankideekin	0,846	0,407	0,332	0,251

Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

Aurreko ataletan azaldutakoa gogora ekarriz, Nafarroako euskaldunen ia erdiak ez du euskararik jaso etxean (% 45,9), erdia (% 49,5) eremu mistoan bizi da, eta erdiak baino gehiagok (% 51,1) erraztasun handiagoa du erdaraz euskaraz baino. Ehuneko horiek, gainera, handiagoak dira adinak behera egin ahala.

Euskaldunen ezaugarri horiek euskararen erabilera duten eragina, kopuruen bidez ikusiko dugu datozen bi ataletan.

#### 4.6. EUSKARAREN ERABILERA EUSKALDUNEN ARTEAN GUNE SOZIOINGUISTIKOAREN ARABERA

2016an, lehenengo eta bigarren gune soziolinguistikoan, hau da, gunerik erdaldunenenetan, euskaldunen %28,2k erabiltzen du euskara erdara beste edo gehiago. Euskaldunen ehunekoa eta, horrekin batera, harreman-sarea handitu ahala, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen ehunekoak gora egiten du. Izan ere, hirugarren gune soziolinguistikoan, %80,3 da euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen duten euskaldunen ehunekoa, eta laugarrenean, %92,8.

21. taula. Euskararen erabilera gune soziolinguistikoaren arabera. Nafarroa, 2016 (%)

	1. eta 2. gunea	3. gunea	4. gunea
Euskaraz erdaraz beste edo gehiago	28,2	80,3	92,8


Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

#### 4.7. EUSKARAREN ERABILERA EUSKALDUNEN ARTEAN ERRAZTASUNAREN ARABERA

Euskal elebidunen, hau da, euskaraz erdaraz baino errazago moldatzen diren euskaldunen %94,4k euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen du. Elebidun orekatuen kasuan, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak %70,8 dira. Erdal elebidunen artean, %20,5ek erabiltzen du euskara erdara beste edo gehiago.



**39. irudia.** Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen duten euskaldunak erraztasunaren arabera. Nafarroa, 2016 (%)



## 5. EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEARI BURUZKO JARRERA

### 5.1. EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEARI BURUZKO JARRERA HIZKUNTZA-EREMUETAN ETA HIRIBURUAN


Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera ezagutzeko, inkestatuei lau iritzi aurkeztu zaizkie eta alde edo kontra dauden galdetu zaie.

Honako hauek dira tipologia osatzeko aurkeztu zaizkien iritziak:

- Administrazioan sartzeko euskara jakitea beharrezkoa da
- Hobe da jendeak ingelesa ikastea euskara ikastea baino
- Ezinbestekoa da haur guztiek euskara ikastea
- Irrati/telebistek programa gehiago behar lukete euskaraz


Nafarroako 16 urte edo gehiagoko biztanleen %33,3 euskararen erabilera sustatzearen alde dago, %27,6 ez alde ez aurka, eta %39,1 aurka dago.

40. irudia. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera. Nafarroa, 2016 (%)



Nafarroan euskararen erabilera sustatzearen aldeko jarrerak ia 12 puntuko igoera izan du orain dela 25 urteko datuarekin alderatuz (%21,6 zen 1991n); baina orain dela 5 urteko datuarekin alderatuz, zertxobait behera egin du aldeko jarrerak. Izan ere, 2011n biztanleriaren %37,7 zegoen euskararen erabilera sustatzearen alde.

**41. irudia.** Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarreraren bilakaera. Nafarroa, 1991-2016 (%)



Era berean, euskararen erabilera sustatzearen aldeko jarrera askoz handiagoa da eremu euskaldunean (%68,1), eremu mistoan (%36,3) eta eremu ez euskaldunean baino (%19,1).

Iruñean, %37,6k adierazten du euskararen erabilera sustatzearen aldeko jarrera, eta %32,7k aurkakoa.

22. taula. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera hiru eremuetan eta hiriburuan. Nafarroa, 2016 (%)


	Eremu euskalduna	Eremu mistoa	Eremu ez euskalduna	Iruña
Alde	68,1	36,3	19,1	37,6
Ez alde ez aurka	22,3	31,9	21,8	29,6
Aurka	9,5	31,8	59,1	32,7

Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

Jarreraren tipologia osatzeko erabili diren iritziak eta erantzunak honako hauek dira:

- Administrazioan sartzeko euskara jakitea beharrezkoa dela pentsatzen du Nafarroako biztanleen % 47,3k, % 7,2 ez dago ez alde ez aurka. Bestalde, % 44,8 dira iritzi horren aurka daudenak, eta beste % 0,7k ez du erantzun.
- Hobe dela jendeak ingelesa ikastea euskara ikastea pentsatzen du % 46,5ek (hauek euskararen erabilera sustatzearen aurkakoak dira), % 19,8 ez dago ez alde ez aurka. % 32,6 dira iritzi horren aurka daudenak (hauek euskara sustatzearen aldekoak dira). Beste % 1,1ek ez du erantzun.
- Ezinbestekoa dela haur guztiek euskara ikastea pentsatzen du % 37,9k, % 8,7 ez dago ez alde ez aurka, % 53 aurka dago, eta % 0,9k ez du erantzun.
- Azkenik, irrati eta telebistek programa gehiago beharko luketela euskaraz pentsatzen du % 46,7k, % 9,8 ez dago ez alde ez aurka, % 42,7 aurka dago, eta % 0,9k ez du erantzun.

42. irudia. Jarreraren tipologia osatzeko erabilitako iritziak. Nafarroa, 2016 (%)



## 5.2. EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEARI BURUZKO JARRERA HIZKUNTZA-GAITASUNAREN, SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA

Euskararekiko jarrerak lotura handia du hizkuntza-gaitasunarekin. Izan ere, euskaldunen %82,3 dago euskararen erabilera sustatzearen alde, euskaldun hartzaileen %51,1 eta erdaldunen %22,7.

Sexuari erreparatuz, aldeko jarrera handiagoa dute emakumezkoek gizonezkoek baino (%34,3 versus %32,4). Aurkako jarrera, aldiz, handiagoa dute gizonezkoek emakumezkoek baino: %37,8 emakumezkoek eta %40,4 gizonezkoek.

23. taula. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera sexuaren arabera. Nafarroa, 2016 (%)

	Alde	Ez alde ez aurka	Aurka
<b>Guztira</b>	<b>33,3</b>	<b>27,6</b>	<b>39,1</b>
Emakumezkoak	34,3	27,9	37,8
Gizonezkoak	32,4	27,2	40,4

Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

Adinari dagokionez, 50-64 eta 25-34 urte bitartekoek dute euskararen erabilera sustatzeari aldeko ehunekorik altuena (% 37,6 eta % 34,8 hurrenez hurren). 65 urte edo gehiagokoek eta 35-49 urte bitartekoek dute, ordea, aurkako jarrerarik handiena (% 41,3 eta % 40,7).


### 5.3. EUSKARARI BURUZKO INTERESA ETA BESTE ZENBAIT IRITZI

Euskararekiko interesari buruz galdetuta, Nafarroako biztanleriaren % 37,9k interes handia edo oso handia du, % 19,5k interes apur bat, % 15,3k interes txikia eta, azkenik, % 26,8k ez du batere interesik.

Euskarari buruzko bestelako iritzi batzuekin jarraituz, Nafarroako inkestatuei beren beregi galdetu zaie zerbitzu publikoetan euskarari tokia egin behar zaion Nafarroa osoan. Nafar gehienak iritzi horren aldekoak dira (% 68,3), nafarren % 24,3k kontrako iritzia dute, % 6,8 ez daude ez alde ez kontra, eta % 0,6k ez daki edo ez du erantzun.

Eremuaren arabera aztertuz gero, eremu euskaldunean erabatekoa da iritzi horren aldekoitasuna (% 89), eremu mistoan ere handia da iritzi horren alde daudenen ehunekoa (% 75,9). Azkenik, eremu ez euskaldunean iritzi horren alde daudenak kontra daudenak baino gehiago dira (% 50,3 alde eta % 39,3 aurka). Gainerakoak ez daude ez alde ez kontra, edo ez dute erantzun.

43. irudia. “Zerbitzu publikoetan euskarari tokia egin behar zaio Nafarroa osoan” galderari buruzko erantzuna eremuaren arabera. Nafarroa, 2016 (%)



Nafar guztiek euskara erabiltzeko eskubide bera izan behar ote duten ere beren beregi galdetu zaie Nafarroako inkestatuei. Nafar gehienak iritzi horren aldekoak dira (% 80,9), % 13,2k kontrako iritzia dute, % 5,3 ez daude ez alde ez kontra, eta % 0,5ek ez daki edo ez du erantzun.


Eremuaren arabera aztertuz gero, aurreko galderan bezala, eremu euskaldunean nagusi da iritzi horrekiko aldekoatasuna (% 92,9), eremu mistoan ere handia da iritzi horren alde daudenen ehunekoa (% 84,3). Azkenik, eremu ez euskaldunean ere gehiago dira iritzi horren alde daudena kontra daudena baino (% 72,2 versus % 19,7).

Beste iritzi batekin jarraituz, Nafarroako 16 urte edo gehiagoko biztanleen % 34,9k seme-alabarik izanez gero, D ereduan ikas dezaten nahi luke, % 16,3k B ereduan, % 15ek A ereduan, eta 30,9k G ereduan, hau da, gaztelaniaz soilik. Beste % 3k ez daki edo ez du erantzun.

Duela 10 urte, hau da, 2006an, txikiagoa zen D ereduaren aldeko hautua (% 30,6) eta handiagoa, aldiz, B ereduaren aldekoa (% 22,8). Era berean, 2006an A

ereduaren aldeko hautua zertxobait handiagoa zen (%17). G ereduaren aldeko hautua, aldiz, txikiagoa zen (%24,1).

**44. irudia.** Seme-alabarik izanez gero, zein hizkuntza-eredutan nahi zenuke haiek ikastea? Nafarroa, 2006-2016 (%)



Bestalde, 16 urte edo gehiagoko biztanleen %84,3k etorkizunean euskaraz eta gaztelaniaz hitz egin beharko litzatekeela pentsatzen du, %12,3k gaztelaniaz soilik, eta %2,5ek euskaraz soilik.

Era berean, euskaldunei galdetu zaie ea inoiz diskriminatuta sentitu diren euskara erabiltzeko aukera ez izategatik, eta %47,9k erantzun du diskriminatua sentitu dela.


Nafarroako Gobernuak euskara sustatzeko egiten ari den lanaren balorazioari dagokionez, %35,4k dio egokia dela, eta %41,2k desegokia. Horrezaz gain, %14,4k dio berdin zaiola, eta %9,1ek ez daki edo ez du erantzun.

Zergatia galdeturik, %30,2k dio balorazioa egokia dela asko egin delako, eta beste %2,4k ez dagoelako gehiagoren beharrik. Lana desegokia dela uste dutenen artean, %26,3k dio gehiegi egin dela, eta %13,8k gutxiegi egin dela.



Eremu euskaldunean, %49,9k pentsatzen du Nafarroako Gobernuaren lana egokia dela, eta %29,2k desegokia dela. Eremu mistoan, %39,6k pentsatzen du Nafarroako Gobernuaren lana egokia dela, eta %41,4k desegokia dela. Azkenik, eremu ez euskaldunean, %24,4k pentsatzen du Nafarroako Gobernuaren lana egokia dela, eta %44k desegokia.

**45. irudia.** Nafarroako Gobernuaren euskararen arloan egiten ari den lanari buruzko balorazioa eremuaren arabera. Nafarroa, 2016 (%)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

2011ko inkestan, Nafarroako biztanleriaren %18,3k esaten zuen euskara sustatzeko egindako lana egokia zela, eta %47,8k desegokia. Hortaz, aurreko inkestorekin alderatuz, igo egin da Nafarroako Gobernuak euskara sustatzeko egindako lana egokia dela uste dutenen iritzia (%18,3 versus %35,4), eta jaitsi, ordea, desegokia dela uste dutenena (%47,8 versus %41,2).

Euskarari buruzko beste iritzi batzuez ere galdetu zaie inkestatuei. Laburbilduz, emaitzak honako hauek dira:

- Nafarroako 16 urte edo gehiagoko biztanleen artean nagusi dira (%58,1) euskarak gaztelaniak duen garrantzia izango ez duela pentsatzen dutenak. Biztanleriaren %26,1ek kontrako iritzia du, hau da, euskarak gaztelaniak duen garrantzia izango duela.
- Euskara beharrezkoa da jendearekin komunikatzeko iritzia buruz, %29,4 alde dago, eta %64,9 aurka.
- Euskaldunek ezezagunei lehen hitza euskaraz egiteari dagokionez, Nafarroako biztanleen %42,8 ados dago, eta %43,5 aurka.
- Euskaldunok beti euskaraz aritzeari buruz nahiz eta guztiek ez jakin iritziauren aurka daude gehienak (%83,1).
- Azkenik, euskara ez dago galtzeko arriskuan nafar gehienek ustez (%68). Euskaldunak bakarrik kontuan hartuz, ia erdiak pentsatzen du euskara ez dagoela galtzeko arriskuan (%49,1); baina, %44,1ek pentsatzen du galtzeko arriskuan dagoela. Gainerako %6,4k ez du ez aldeko ez kontrako iritzirik.

## 6. LABURBILDUZ

- Nafarroako gizarteak bi ezaugarri esanguratsu ditu: gero eta gizarte zaharragoa da, eta atzerrian jaiotako biztanleen ehunekoa gero eta handiagoa da. Nafarroan, biztanleriaren % 19,4k 65 urte baino gehiago ditu, gero eta bizi-itxaropen handiagoa du (86,3 urte emakumezkoek eta 80,9 gizonetzkoek), eta atzerrian jaiotako biztanleei dagokienez, % 13,4 dira 2016an.
- 16 urte edo gehiagoko biztanleen % 12,9 euskalduna da, % 10,3 euskaldun hartzailea, eta % 76,7 erdalduna. Nafarroako euskaldunen ehunekoak 3,4 puntu egin du gora azken 25 urteotan. Gaur egun, 69.000 euskaldun daude, 1991n baino 29.000 gehiago.
- Euskaldunen ehunekorik handiena gazteen artean dago: 16 eta 24 urte bitarteko gazteen % 25,8 euskalduna da. 1991n, % 10 ziren.
- Nafarroako euskaldunen ia erdia eremu mistoan bizi da (% 49,5), beste % 43,4 eremu euskaldunean, eta gainerako % 7,1 eremu ez euskaldunean.
- Nafarroako euskaldunen ia erdiak etxetik kanpo ikasi du euskara, eskolan edo euskaltegian: euskaldun berriak dira (% 45,9). Adinak behera egin ahala, gero eta handiagoa da euskaldun berrien ehunekoa. Izan ere, 35 urte baino gutxiagokoen erdia baino gehiago euskaldun berriak dira. Euskaldun berri gehienak eremu mistoan eta ez euskaldunean bizi dira. Eremu euskaldunean, aldiz, euskaldun gehienak euskaldun zaharrak dira (% 71,3).
- Lehen hizkuntzak lotura zuzena du hizkuntza batean lortzen den erraztasunarekin. Gaur egun, euskaldunen erdiak baino gehiagok (% 51,1) erraztasun handiagoa du erdaraz egiteko euskaraz egiteko baino. Gazteen artean are handiagoa da ehunekoa (% 62,6).
- Gauregun, 16 urtetik beherako seme-alabarik duten ia guraso euskaldun guztiek euskara transmititzen dute. Guraso biak euskaldunak direnean eta bien lehen hizkuntza euskara denean, transmisioa erabatekoa da (seme-alaben % 94k euskara soilik jaso du etxean, eta % 6k euskara eta erdara). Guraso euskaldun bien lehen hizkuntza erdara denean ere transmisioa oso altua da (seme-alaben % 85ek euskara jaso du

etxean). Gurasoetako bat baino ez denean euskalduna ere transmisioa handia da, batez ere gurasoaren lehen hizkuntza euskara denean (%77). Guraso euskaldun horren lehen hizkuntza erdara denean, era nabarmenean jaisten da euskaren transmisioa (%54).

- Nafarroako biztanleen %6,6k euskararen erabilera trinkoa egiten du, hau da, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen du. Beste %5,6k euskara erabiltzen du, baina erdara baino gutxiago. Gazteak dira euskara gehien erabiltzen dutenak.
- Euskararen erabileran alde handiak daude eremu batetik bestera. Izan ere, eremu euskaldunean biztanleen %50,7k euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen du, %3,2k mistoan, eta %0,2k ez euskaldunean.
- Euskararen erabilera trinkoak gora egin du eremu euskaldunean eta eremu mistoan 1991 eta 2016 bitartean (3,9 eta 1,8 puntu hurrenez hurren).
- Azken 25 urteotan, euskararen erabilerak gora egin du batez ere esparru formalean, eta ia ez da aldatu erabileraren ehunekoa lagunen arteko erabileran. Etxean eta etxeko kideen artean, aldiz, gora egin du erabilerak seme-alabekin eta neba-arrebeekin, eta zertxobait jaitsi da edo ez da ia aldatu bikotekidearekin, amarekin eta aitarekin (puntu bat baino gutxiagoko gorabeherak).
- Euskararen erabilera sustatzearen aldeko jarrerak ia 12 puntuko hazkundea izan du azken 25 urteotan. Gaur egun, nafarren %33,3 euskararen erabilera sustatzearen alde dago. Aurkako jarrerak behera egin du, eta gaur egun %39,1 da euskara sustatzearen aurka azaltzen dena. Eremuaren arabera alde handiak daude. Izan ere, eremu euskaldunean eta mistoan gehiago dira euskara sustatzearen aldekoak kontrakoak baino, baina eremu ez euskaldunean alderantziz gertatzen da.



**I P A R R A L D E A**  
VI. Inkesta Soziolinguistikoa



## 1. BIZTANLERIA

Iparraldean 299.129 pertsona bizi dira 2016an. Iparraldeko 2001eko eta 2016ko biztanleria alderatzen baditugu, ikus daiteke 32.781 pertsona gehiago direla termino absolutuetan.

Hamabost urte horietan zehar, biztanleriaren bilakaera ez da berdina izan lurralde guztietan.

Lurraldeka begiraturaz, Lapurdin eta Nafarroa Beherean biztanleriak gora egin du aldi guztietan, Lapurdin nagusiki. Zuberoan, aldiz, biztanleriak behera egin du aldi guztietan. Nahiz eta Zuberoan biztanleen kopuruak jaitsiera izan, gainerako lurraldeetako biztanleen hazkundeari esker, Iparraldeko biztanleen kopuruak gora egin du aldi guztietan, azken bost urteotan bereziki.

1. taula. Biztanleriaren bilakaera lurraldearen arabera. Iparraldea, 2001-2016

	2001	2006	2011	2016
<b>Iparraldea</b>	<b>266.258</b>	<b>274.875</b>	<b>285.272</b>	<b>299.129</b>
Lapurdi	222.097	230.065	239.635	252.492
Nafarroa Beherea	28.659	29.403	30.357	31.639
Zuberoa	15.502	15.407	15.280	14.998

Iturria: Gaindegia.

Bilakaera horren eragileak izan dira, batetik, saldo naturala (jaiotzen eta heriotzen kopuruen arteko aldea) eta, bestetik, migrazio saldoak (immigrazioen eta emigrazioen kopuruen arteko aldea).



Bertako gizartearen ezaugarri nagusiak honako hauek dira:

- Gero eta gizarte zaharragoa: bizi-itxaropena gero eta handiagoa da, eta jaiotza-tasa gero eta txikiagoa (9,3 jaiotza mila biztanleko 2016an, EB-27an 10,1). Nafarroa Beherean eta Zuberoan are txikiagoa da jaiotze-tasa (8,2 eta 7,6 jaiotza mila biztanleko hurrenez hurren).


Heriotza-tasa, aldiz, oso altua da Iparraldean (11 heriotza mila biztanleko), batez ere, Zuberoan (14,3 heriotza mila biztanleko).

- Frantziako beste departamentu batzuetatik, Hego Euskal Herritik edo beste estatu batzuetatik etorritakoen hazkundera, batez ere, Lapurdiko kostaldean.

Horrela, 2001etik hona, 65 urte edo gehiagoko biztanleriaren ehunekoak ia 3 puntuko hazkundera izan du, eta gaur egun biztanleria osoaren %23,2 da (%20,6 zen 2001ean).

Horrekin batera, gazteak pisua galtzen joan dira. 2016an %20,8 dira 20 urte baino gutxiago dituztenak. Hortaz, gehiago dira 65 urte edo gehiagokoak 20 urtetik beherakoak baino (%23,2 versus %20,8).

1. irudia. Biztanleriaren piramidea. Iparraldea, 2016 (%)



Iturria: EAS.

## 2. HIZKUNTZA-GAITASUNA

### 2.1. HIZKUNTZA-GAITASUNA LURRALDEAREN ARABERA


Hiru hiztun mota bereizten dira euskaraz hitz egiteko edo ulertzeko duten gaitasunaren arabera:

- **Euskalduna (elebiduna):** euskara ongi edo aski ongi ulertzeko eta hitz egiteko gai da.
- **Euskaldun hartzailea (elebidun hartzailea):** ez da euskaraz ongi edo aski ongi hitz egiteko gai. Hala ere, badu euskararen nolabaiteko ezagutza. Zehazki, multzo honetan sartzen da honako baldintza hauetakoren bat gutxienez betetzen duena:
  - Euskaraz “zertxobait” ulertzeko eta hitz egiteko gai da.
  - Euskara “ongi” edo “aski ongi” ulertzeko gai da.
- **Erdalduna (erdaldun elebakarra):** ez da gai euskaraz ulertzeko, ezta hitz egiteko ere.

VI. Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, 2016n Iparraldean 16 urte edo gehiagoko biztanleriaren %20,5 euskalduna da, %9,3 euskaldun hartzailea, eta %70,1 erdalduna.

Horrela, Iparraldean bizi diren 16 urte edo gehiagoko biztanleetatik 51.197 euskaldunak dira, 23.299 euskaldun hartzaileak, eta 174.944 erdaldunak.

2. irudia. Hizkuntza-gaitasuna. Iparraldea, 2016 (%)




Nafarroa Beherea eta Zuberoa dira euskaldunen ehunekorik handiena duten lurraldeak (%49,5). Lapurdin (BAM gabe) %23 dira euskaldunak. Azkenik, BAM eskualdea (Baiona-Angelu-Miarritze) da euskaldunen ehunekorik txikiena duena (%8,4).

2. taula. Hizkuntza-gaitasuna lurraldearen arabera. Iparraldea, 2016

	Iparraldea	BAM	Lapurdi (BAM gabe)	Nafarroa Beherea / Zuberoa
<b>Guztira</b>	<b>249.441</b>	<b>102.216</b>	<b>114.548</b>	<b>32.677</b>
Euskaldunak	51.197	8.633	26.374	16.191
Euskaldun hartzailleak	23.299	5.858	12.949	4.492
Erdaldunak	174.944	87.725	75.225	11.994

Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.


3. irudia. Hizkuntza-gaitasuna lurraldearen arabera. Iparraldea, 2016 (%)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

Gibelera begiratzuz gero, azken hogeitun urteotan, 5,9 puntuko jaitsiera izan du euskaldunen ehunekoak. 1996an, Iparraldeko euskaldunak %26,4 ziren, eta orain %20,5. Euskaldun hartzaileen ehunekoa, aldiz, ez da aldatu: %9,3 zen 1996an, eta ehuneko berbera 2016an.


#### 4. irudia. Euskaldunen bilakaera. Iparraldea, 1996-2016



Euskaldunen beherakadarik handiena Nafarroa Beherean eta Zuberoan gertatu da.

Hogeitun urtean 14,5 puntutan egin du behera euskaldunen ehunekoak. Izan ere, 1996an Nafarroa Behereko eta Zuberoako 16 urte edo gehiagoko euskaldunak %64 ziren, eta orain %49,5 dira.

## 5. irudia. Euskaldunen bilakaera lurraldearen arabera. Iparraldea, 1996-2016 (%)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

## 2.2. HIZKUNTZA-GAITASUNA SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA

Sexuari dagokionez, emakumezkoen artean % 20,4 dira Iparraldean euskaldunak, eta gizonezkoen artean, berriz, % 20,7. Ikusten denez, ez dago ia desberdintasunik euskaldunen ehunekoan emakumezkoen eta gizonezkoen artean.

Lurraldeei dagokienez, desberdintasunik handiena BAM eskualdean dago, 1,4 puntuko desberdintasuna gizonezko eta emakumezko euskaldunen artean (% 9,1 emakumezkoak eta % 7,7 gizonezkoak).

Iparraldeko gainerako lurraldeetan ez dago ia desberdintasunik, ez Lapurdin (BAM gabe), ezta Nafarroa Beherean eta Zuberoan ere.

3. taula. Euskaldunak sexuaren arabera. Iparraldea, 2016 (%)


	Iparraldea	BAM	Lapurdi (BAM gabe)	Nafarroa Beherea / Zuberoa
<b>Guztira</b>	<b>20,5</b>	<b>8,4</b>	<b>23,0</b>	<b>49,5</b>
Emakumezkoak	20,4	9,1	23,0	49,8
Gizonezkoak	20,7	7,7	23,1	49,3

Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

Adina begiratzuz, euskaldunen ehunekorik handiena 65 urte edo gehiagokoen artean dago, eta adinean behera egin ahala, elebidunen ehunekoa behera doa, 25-34 adin-taldera iritsi arte, horretan joera aldatzen baita (% 15,7 dira), 1 puntuko igoera duelarik aitzineko adin-taldearekin konparatuz. Igoerarik handiena, aldiz, 16-24 urte bitarteko euskaldunen ehunekoari dagokiona da (% 18,9 dira), 3 puntuko igoera aitzineko adin-taldearekin konparatuz.


Arestian esan bezala, euskaldunen beherakada ez da berdin gertatzen adin-talde guztietan. Gainera, gazteen artean euskaldunen ehunekoa, jaitsi ordez, igotzen da, aurreko adin-multzoekin konparatuz. Euskaldunen ehunekorik txikiena 35-49 urte bitartekoek dute (% 14,6), eta handiena, aldiz, 65 urte edo gehiagokoen (% 28,1). Dena dela, daturik azpimarragarriena, 16-24 eta 25-34 urte bitarteko euskaldunen ehunekoa da: % 18,9 eta % 15,7 hurrenez hurren. Horrek esan nahi du gazteen aldetik duela bost urte antzemandako joera-aldaketa errealitate bilakatu dela, hau da, beheranzko joera gelditu eta goranzko bidean abiatu dela.

## 6. irudia. Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera. Iparraldea, 2016 (%)



Azken 20 urteotako bilakaerari begiratu gero, euskaldunen hazkundera gazteenetatik zabaltzen ari da. Horrela, 16-24 urte bitartekoek %11,3 zen euskalduna duela 20 urte, eta egun ehuneko hori ia 7 puntu handiagoa da. Era berean, 25-34 urte bitartekoek artean ere euskaldunen ehunekoak hazkundera izan du (% 13,6 ziren 1996an, eta % 15,7 dira 2016an). Gainerako adin-taldeetan, apaldu da euskaldunen ehunekoa. Apaltzerik handiena 35-49 adin-taldearena da, ia 13 puntukoa, hain zuzen.

## 7. irudia. Euskaldunen bilakaera adinaren arabera. Iparraldea, 1996-2016 (%)



Euskaldunen ehunekoaren igoera gazteen artean hiru lurraldeetan gertatu da, 16-24 urte bitartekoen artean, hain zuzen. Dena dela, euskaldunen ehunekorik handiena 65 urte edo gehiagokoen artean dago, eta adinean behera egin ahala, euskaldunen ehunekoa behera doa, gazteen adin-taldera iritsi arte.

BAM eskualdean, 65 urte edo gehiagokoei dute gaur egun euskaldunen ehunekorik handiena (% 11,5), eta txikiena, 35-49 urte bitartekoei (% 5).

Lapurdin (BAM gabe), euskaldunen ehunekorik handiena ere 65 urte edo gehiagokoei dute (% 32,4), eta txikiena, 35-49 urte bitartekoei (% 15,7).

Halaber, Nafarroa Behereko eta Zuberoako euskaldunen ehunekorik handiena 65 urte edo gehiagokoei dute (% 65,2), eta txikiena, aldiz, 25-34 urte bitartekoei (% 31,6).



5. taula. Euskaldunak adinaren eta lurraldearen arabera. Iparraldea, 2016 (%)

	ADINA					
	Guztira	≥ 65	50-64	35-49	25-34	16-24
<b>Iparraldea</b>	<b>20,5</b>	<b>28,1</b>	<b>21,3</b>	<b>14,6</b>	<b>15,7</b>	<b>18,9</b>
BAM	8,4	11,5	8,8	5,0	6,4	9,2
Lapurdi (BAM gabe)	23,0	32,4	22,1	15,7	20,4	25,0
Nafarroa Beherea / Zuberoa	49,5	65,2	52,2	40,1	31,6	34,0

Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

### 2.3. HIZKUNTZA-GAITASUN ERLATIBOA: EUSKALDUNEN ERRAZTASUNA EUSKARAZ EGITEKO

Euskaldunen gaitasun erlatiboa aztertuko da orain, hau da, euskaraz eta erdaraz (frantsesez gehienetan) hitz egiteko erraztasuna.

Aurrerantzean erdara hitza erabiliko da euskara ez den beste edozein hizkuntza adierazteko.

Honela sailkatzen dira euskaldunak gaitasun erlatiboaren arabera:


- **Euskal elebidunak:** erraztasun handiagoa dute euskaraz hitz egiteko erdaraz hitz egiteko baino.
- **Elebidun orekatuak:** bi hizkuntzetan erraztasun bera dute. Izan ere, euskaldun hauek adierazten dute euskaraz eta erdaraz, bietan, berdin hitz egiteko erraztasuna dutela.
- **Erdal elebidunak:** erraztasun handiagoa dute erdaraz hitz egiteko euskaraz hitz egiteko baino.

Iparraldean euskaraz erdaraz baino hobeto moldatzen dira euskaldunen %20,9. Guztien lehen hizkuntza euskara da.

Euskaraz zein erdaraz berdin moldatzen dira euskaldunen % 37,6. Ia guztien lehen hizkuntza euskara edo euskara eta erdara da.

Erdaraz euskaraz baino hobeto moldatzen direnek euskaldunen multzorik handiena osatzen dute (% 41,5). Lehen hizkuntzari dagokionez, gehien lehen hizkuntza euskara edo euskara eta erdara bada ere, % 27k erdara izan du lehen hizkuntza.

8. irudia. Euskaldunak erraztasunaren arabera. Iparraldea, 2016 (%)




Lurraldeen artean euskaraz hitz egiteko erraztasunean dauden desberdintasunak handiak dira. BAM eskualdean, euskaldunen %66,6k erdaraz euskaraz baino errazago hitz egiten du, %24,9 berdin moldatzen da euskaraz zein erdaraz, eta %8,5ek erraztasun handiagoa du euskaraz.

Lapurdin (BAM gabe) ere nagusi dira erdaraz hobeki moldatzen diren euskaldunak (%42,1). Elebidun orekatuak %37,9 dira, eta euskal elebidunak %19,9.

Nafarroa Beherean eta Zuberoan %43,8 elebidun orekatuak dira, %29,1 euskal elebidunak, eta %27,1 erdal elebidunak.

## 9. irudia. Euskaldunen erraztasuna lurraldearen arabera. Iparraldea, 2016 (%)




Adinari dagokionez, euskal elebidunen ehunekorik handiena 65 urte edo gehiagokoek dute (%30,6), eta txikiena, 16-24 urte bitartekoek (%8,8).

Elebidun orekatuen ehunekorik handiena 35-49 urte bitartekoek dute (%49,7), eta txikiena, 16-24 urte bitartekoek (%27,1).

Azkenik, erdal elebidunen ehunekoa handiagoa da adinean behera egin ahala. Horrela, 16-24 urte bitarteko euskaldunen %64,1 erdal elebiduna da, eta 25-34 urte bitarteko euskaldunen erdia baino gehiago ere bai (%51,3).

10. irudia. Euskaldunen erraztasuna adinaren arabera. Iparraldea, 2016 (%)




Bilakaerari dagokionez, azken 20 urteotan aldaketa nabaria izan da euskaldunek euskaraz egiteko duten erraztasunean.

Horrela, 1996an Iparraldeko euskaldunen %34 hobeki moldatzen zen euskaraz erdaraz baino; orain, aldiz, %20,9 dira.

Euskaraz zein erdaraz berdin moldatzen direnen ehunekoa igo da (%32,1 ziren 1996an, eta %37,6 dira orain).

Azkenik, erdaraz hobeto moldatzen direnen ehunekoa handitu egin da. Izan ere, %33,9 ziren 1996an, eta %41,5 dira gaur egun.

11. irudia. Euskaldunen erraztasunaren bilakaera. Iparraldea, 1996-2016 (%)



Adinaren araberrako bilakaera aztertuz gero, ikus daiteke 1996an, 2016an bezala, euskal elebidunen ehunekoak behera egiten zuela adinean behera egin ahala, baina jaitsiera handiagoa zen. Izan ere, 16-24 urte bitartekoen eta 65 urte edo gehiagokoen arteko desberdintasuna 51 puntukoa zen (%3,5 versus %54,4). 2016an, desberdintasuna txikiagoa da, 21 puntukoa, hain zuzen (%8,8 versus %30,6).

1996an, elebidun orekatuen ehunekorik handiena 50-64 eta 25-34 urte bitartekoek zuten (%40,4 eta %36,3). 2016an, 35-49 eta 50-64 urte bitartekoek dute (%49,7 eta %40,4).

Azkenik, 1996an, erdal elebidunen ehunekorik handiena 16-24 eta 25-34 urte bitartekoek zuten (%67,3 eta %54,8). 2016an ere ez da aldatu joera, 16-24 eta 25-34 urte bitartekoek baitute ehunekorik handiena (%64,1 eta %51,3).

6. taula. Euskaldunen erraztasunaren bilakaera adinaren arabera. Iparraldea, 1996-2016 (%)

1996	ADINA					
	Guztira	≥ 65	50-64	35-49	25-34	16-24
<b>Euskaldunak</b>	<b>56.146</b>	<b>19.943</b>	<b>13.075</b>	<b>15.281</b>	<b>4.658</b>	<b>3.189</b>
Euskal elebidunak	34,0	54,4	39,8	16,3	8,9	3,5
Elebidun orekatuak	32,1	27,1	40,4	30,8	36,3	29,2
Erdal elebidunak	33,9	18,5	19,7	52,9	54,8	67,3
2016						
<b>Euskaldunak</b>	<b>51.197</b>	<b>19.183</b>	<b>13.023</b>	<b>8.866</b>	<b>5.139</b>	<b>4.986</b>
Euskal elebidunak	20,9	30,6	19,5	15,9	9,0	8,8
Elebidun orekatuak	37,6	32,2	40,4	49,7	39,7	27,1
Erdal elebidunak	41,5	37,3	40,1	34,3	51,3	64,1

Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.


### 3. HIZKUNTZAREN TRANSMISIOA

#### 3.1. LEHEN HIZKUNTZA LURRALDEAREN ARABERA

Lehen hizkuntzari buruz ari garenean, umeak hiru urte bete arte gurasoengandik edo umearekin bizi diren ahaideengandik etxean eskuratu hizkuntzari edo hizkuntzei buruz dihardugu.

Iparraldeko 16 urte edo gehiagoko %21,7ren lehen hizkuntza euskara da. Biztanleriaren % 15,9k euskara soilik eskuratu du etxean, eta % 5,8k euskara eta erdara. Iparraldeko hamar biztanletik ia zortzik erdara soilik eskuratu du etxean (% 78,2). Erdara diogunean, frantsesari buruz ari gara nagusiki, baina ez da ahaztu behar gero eta gehiagoren lehen hizkuntza gaztelania, portugesa, arabiera, eta abar direla.

12. irudia. Lehen hizkuntza. Iparraldea, 2016 (%)



Azken 20 urteotan etxean euskara soilik eskuratu dutenen ehunekoak 10 puntu baino gehiagoko apaltzea izan du (% 26,4 versus % 15,9).

Euskara eta erdara eskuratu dutenen ehunekoak, ordea, ez du apaltzerik izan, berdintsua baita, gorabeherak gorabehera (% 5,2 versus % 5,8).

Lehen hizkuntza erdara dutenen ehunekoa, aldiz, 1996an baino handiagoa da (% 68,5 versus % 78,2).

7. taula. Lehen hizkuntzaren bilakaera. Iparraldea, 1996-2016

	1996	2016	1996 (%)	2016 (%)
<b>Guztira</b>	<b>212.392</b>	<b>249.441</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Euskara	56.051	39.773	26,4	15,9
Euskara eta erdara	10.958	14.556	5,2	5,8
Erdara	145.383	195.112	68,5	78,2

Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

Desberdintasunak daude lurraldeen arabera, lehen hizkuntza euskara eskuratu dutenen ehunekoen artean.


Horrela, Nafarroa Behereko eta Zuberoako biztanleriaren erdiaren baino gehiagoren lehen hizkuntza euskara da (%56,5): %46,8k euskara soilik eskuratu du etxean, eta %9,7k euskara eta erdara. Erdara soilik eskuratu dutenak %43,5 dira.

Lapurdin lehen hizkuntza euskara soilik eskuratu dutenak %15,9 dira, eta euskara eta erdara eskuratu dutenak %7. Erdara soilik eskuratu dutenak erabat nagusi dira Lapurdin (%77).

Azkenik, BAMen lehen hizkuntza euskara soilik eskuratu dutenak %6,1 dira, eta euskara eta erdara eskuratu dutenak, aldiz, %3,2. Lapurdin bezala, BAMen ere lehen hizkuntza erdara dutenak erabat nagusi dira (%90,7).




13. irudia. Lehen hizkuntza lurraldearen arabera. Iparralde, 2016 (%)



### 3.2. LEHEN HIZKUNTZA SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA

Emakumezkoen eta gizonezkoen artean desberdintasuna dago lehen hizkuntza euskara, euskara eta erdara edo erdara eskuratu dutenen ehunekoetan. Gehiago dira euskara edo euskara eta erdara eskuratu duten emakumezkoak gizonezkoak baino.

14. irudia. Lehen hizkuntza sexuaren arabera. Iparraldea, 2016 (%)




Lehen hizkuntza euskara soilik dutenen ehunekorik handiena 65 urte edo gehiagokoek dute (%25,5). Ehuneko horrek behera egiten du adinean behera egin ahala. Gazteen artean, 16-24 urte bitartekoen artean, hots, euskara soilik eskuratu dutenen ehunekoa % 5,3 da.

Euskara eta erdara aldi berean eskuratu dutenen ehunekoa berdintsua da adin-talde guztietan (% 5 eta % 6 bitartean).


Azpimarratzekoa da 16-24 urte bitarteko gazteen artean euskara soilik eta euskara eta erdara eskuratu dutenen ehunekoa ia berdina dela (% 5,3 eta % 5,6 hurrenez hurren).

15. irudia. Lehen hizkuntza adinaren arabera. Iparraldea, 2016 (%)



Lehen hizkuntzaren adinaren araberako bilakaerari dagokionez, duela 20 urte ere lehen hizkuntza euskara edo euskara eta erdara zutenen ehunetik handiena 65 urtetik gorakoek zuten (%40,4), eta behera egiten zuen adinean behera egin ahala, 25-34 eta 16-24 urte bitartekoek baitzuten ehunetik txikiena (%20 eta %21,4 hurrenez hurren).

16. irudia. Lehen hizkuntzaren bilakaera adinaren arabera. Iparraldea, 1996-2016 (%)



Lehen hizkuntza euskara eskuratu dutenen ehunekoa Iparraldeko hiru lurraldeetan ari da gibelera egiten. Joera horiek guztiak hiru lurraldeetan gertatzen badira ere, desberdintasun handiak daude bateko eta besteko ehunekoen artean.

BAMen, 16-24, 25-34 eta 35-49 urte bitartekoen %4 da euskara lehen hizkuntza bakar gisa edo frantsesarekin batean eskuratu dutenen ehunekoa. Nagusien artean, aldiz, handiagoa da ehunekoa (% 15).

Lapurdin (BAM gabe), euskara soilik eta erdararekin batean da 65 urte edo gehiagoko %35en lehen hizkuntza, baina ehuneko hori apalduz doa adinean behera egin ahala, eta % 11koa da 16 eta 24 urte bitarteko gazteen artean.

Nafarroa Beherean eta Zuberoan, lehen hizkuntza euskara soilik eta frantsesarekin batean dutenen beherakada ere handia da adinean behera egin ahala. Izan ere, 65 urte edo gehiagoko biztanleen %69k euskara hutsik edo erdararekin batean eskuratu du, eta 16-24 urte bitarteko gazteen % 38k.

### 3.3. EUSKALDUNAK LEHEN HIZKUNTZAREN ARABERA


Iparraldeko 16 urte edo gehiagoko euskaldunak etxean eskuratu duten hizkuntzaren arabera nolakoak diren aztertuko da orain.

Honela sailkatzen dira euskaldunak lehen hizkuntzaren arabera:

- **Euskaldun zaharrak:** euskara soilik eskuratu dute gurasoengandik edo etxean bizi diren ahaideengandik, hiru urte bete arte.
- **Jatorrizko elebidunak:** euskara eta erdara eskuratu dituzte gurasoengandik edo etxean bizi diren ahaideengandik, hiru urte bete arte.
- **Euskaldun berriak:** ez dute euskararik eskuratu etxean gurasoengandik edo etxean bizi diren ahaideengandik. Etxetik kanpo ikasi dute euskara, eskolan edo euskaltegian.


Iparraldeko 16 urte edo gehiagoko euskaldunen %65,2k euskara soilik eskuratu du etxean, hau da, euskaldun zaharrak dira. Euskaldunen %19,2k euskara eta erdara eskuratu ditu etxean, eta jatorrizko elebidunak dira. Azkenik, %15,7k ez du euskararik eskuratu etxean, eta euskaldun berriak dira. Azken hauek etxetik kanpo euskaldundu dira, eskolan edo euskaltegian.

17. irudia. Euskaldunak lehen hizkuntzaren arabera. Iparraldea, 2016 (%)



Duela 20 urte, %85 ziren euskaldun zaharrak, eta %65,2 dira gaur egun (20 puntuko desberdintasuna). Gaur egun ez bezala, jatorrizko elebidunen ehunekoa txikiagoa zen (% 11,1 versus % 19,2), eta are txikiagoa euskaldun berrien ehunekoa (% 3,9 versus % 15,7).

18. irudia. Euskaldunen bilakaera lehen hizkuntzaren arabera. Iparraldea, 1996-2016 (%)



Datuak lurraldeen arabera aztertuz gero, beren arteko desberdintasunak nabarmenak dira. Horrela, BAMen, euskaldunen erdiak euskaldun zaharrak dira (% 52,4), %26,4 jatorrizko elebidunak, eta %21,3 euskaldun berriak.

Lapurdin (BAM gabe), hamar elebidunetik ia sei euskaldun zaharrak dira (% 58,8), eta jatorrizko elebidunak eta euskaldun berriak aski parekatuak daude (%20,4 eta %20,8 hurrenez hurren).

Azkenik, Nafarroa Beherean eta Zuberoan, hamar elebidunetik zortzi baino gehiago euskaldun zaharrak dira (% 82,3), % 13,4 jatorrizko elebidunak, eta %4,4 euskaldun berriak.

8. taula. Lurraldeetako euskaldunak lehen hizkuntzaren arabera. Iparraldea, 2016 (%)


	BAM	Lapurdi (BAM gabe)	Nafarroa Beherea / Zuberoa
<b>Euskaldunak</b>	<b>8.633</b>	<b>26.374</b>	<b>16.191</b>
Euskaldun zaharrak	52,4	58,8	82,3
Jatorrizko elebidunak	26,4	20,4	13,4
Euskaldun berriak	21,3	20,8	4,4

Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

Adinaren araberako bilakaerari dagokionez, euskaldunen multzoa asko aldatu da azken 20 urteotan. Izan ere, orain ez bezala, 1996an euskaldun zaharrak erabat nagusi ziren adin-talde guztietan.

Gaur egun, aldiz, 16-24 urte bitarteko euskaldunen erdia baino gehiago euskaldun berriak dira (% 52,9). 1996an, ordea, adin tarte horretako euskaldunen %4 ziren euskaldun berriak.

19. irudia. Euskaldunen bilakaera lehen hizkuntzaren eta adinaren arabera. Iparraldea, 1996-2016 (%)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

### 3.4. FAMILIA BIDEZKO HIZKUNTZAREN TRANSMISIOA

Familia bidezko hizkuntzaren transmisioa nolakoa den jakiteko, inkestatu guztiei galdetu zaie zein hizkuntza eskuratu duten etxean, euren gurasoen hizkuntza-gaitasunaren arabera.

Kontuan izan behar da inkestatuen artean 16 eta ia 100 urte bitarteko pertsonak daudela. Horren ondorioz, orain dela ia ehun urtetik hona gurasoek nola transmititu duten euskara jakin dezakegu.

Guraso biak euskaldunak izanik, seme-alaben %61ek euskara soilik eskuratu du etxean Iparraldean, % 14,6k euskara eta erdara, eta %24,4k ez du euskararik eskuratu.

Gurasoetako bat baino ez izanik euskalduna, %83,5ek erdara soilik transmititu du, eta % 16,5k euskara eta erdara.


Aipatzekoa da guraso biak euskaldunak izanik, adinean behera egin ahala euskararen transmisioa txikiagoa dela. Horrela, euskararen transmisiorik txikiena 16-34 urte bitartekoek dute. 16-34 urte bitarteko gazteen %50,5ek euskara soilik eskuratu du etxean, eta % 13,6k euskara eta erdara.

Era berean, 35-50 urte bitartekoen artean, guraso biak euskaldunak izanik, %57k euskara soilik eskuratu du, eta % 17k euskara eta erdara.

Azkenik, 50 urte edo gehiago dituztenen artean %63,9k euskara soilik eskuratu du etxean, eta % 14,1k euskara eta erdara.



**20. irudia.** Transmisioa guraso biak euskaldunak direnean, adinaren arabera. Iparraldea, 2016 (%)




Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

Gurasoetako batek euskaraz ez dakienean, desberdintasunak daude euskararen transmisioan adinaren arabera. Adinean behera egin ahala, euskararen transmisioa handiagoa da.

Horrela, gurasoetako batek euskaraz ez dakienean, 16-34 urte bitartekoen % 25,9k euskara eskuratu du etxean, erdararekin batera, 35-49 urte bitartekoen % 14,5ek, eta 50 urte edo gehiagokoen % 11,9k.

**21. irudia.** Transmisioa gurasoetako bat bakarrik euskalduna denean, adinaren arabera. Iparraldea, 2016 (%)



Gurasoetako batek euskaraz ez dakienean, ama edo aita denean euskaraz ez dakiena ez dago ia desberdintasunik euskararen transmisioan.

Ama baizik ez izanik euskalduna, %83k erdara soilik transmititu du, eta %17k euskara eta erdara. Aita bakarrik denean euskalduna, %84k erdara soilik transmititu du, eta %16k, ostera, euskara eta erdara.


### 3-15 URTE BITARTEKO SEME-ALABARIK DUTEN FAMILIEN HIZKUNTZA-TRANSMISIOA

3-15 urte bitarteko seme-alabarik duten familien hizkuntzaren transmisioa nolakoa den jakiteko, inkestatuei galdetu zaie zein hizkuntza transmititu dieten seme-alabei.

Aipatzekoa da 3-15 urte bitarteko seme-alabak dituztenen transmisioa eta 16-34 urte bitartekoena alderatzerakoan, guraso euskaldunek 3-15 urte bitarteko seme-alabei euskara gehiago transmititu dietela 16-34 urte bitartekoei baino.


Izan ere, guraso biak euskaldunak izanik, 3-15 urte bitarteko %66,1ek euskara soilik eskuratu du etxean; aldiz, 16-34 urte bitartekoen %50,5ek. Euskara eta erdara 3-15 urte bitartekoen %20,2k eskuratu du, eta 16-34 urte bitartekoen %13,6k. Azkenik, 3-15 urte bitartekoen %13,7k eta 16-34 urte bitartekoen %35,9k ez du euskararik eskuratu.

**22. irudia.** 3-15 eta 16-34 urte bitartekoen transmisioa guraso biak euskaldunak direnean. Iparraldea, 2016 (%)



Gurasoetako bat euskalduna izanik ere, 3-15 urte bitartekoen euskararen transmisioa handiagoa da 16-34 urte bitartekoena baino (%53,8 versus %25,9).

**23. irudia.** 3-15 eta 16-34 urte bitartekoen transmisioa gurasoetako bat euskalduna denean. Iparraldea, 2016 (%)



### 3.5. EUSKARAREN IRABAZIAK ETA GALERAK

Lehen hizkuntza euskara edo euskara eta erdara izan dutenen %79,5ek euskara gorde du. Hortaz, bostetik bat, lehen hizkuntza euskara izanik, gaur egun ez da euskalduna (%20,5), hau da, euskara galdu dute osorik edo partzialki (11.000 pertsona). Galera gehienak galera partzialak dira (7.000 pertsona). Pertsona horiek euskaraz ondo hitz egin ez arren, ondo ulertzeko gai dira. Beste 4.000 pertsonak erabat galdu dute euskara; hortaz, galera osoak dira.


Aldi berean, lehen hizkuntza euskara ez den beste hizkuntza bat izan arren, euskara ikasi eta gaur egun euskaldun diren 8.000 pertsona daude. Euskaldun guztien % 15,7 dira. Horiek irabazi osoak dira.

Badira beste 16.000 lagun, lehen hizkuntza erdara izan arren, gaur egun euskaraz ondo ulertzeko gai direnak, hau da, partzialki euskaldun berriak dira.

Ikusten denez, galerak irabaziak baino handiagoak dira oraindik, baina lehen hizkuntza euskara dutenek euskara galtzen jarraitu arren, gero eta gehiago dira, lehen hizkuntza erdara izanik, euskara ikasten dutenak eta gaur egun euskaldun direnak.

Alde esanguratsuak daude adinaren arabera. Euskara irabazi dutenen ehunekoa txikia da 35 urtetik gorakoen artean. Esate baterako, 35 eta 49 urte bitartekoek %2,4 dira euskaldun berriak. Gazteenen artean, ordea, 16 eta 24 urte dituztenen artean hain zuzen, euskaldun berrien ehunekoa %10ekoa da, hau da, lau aldiz handiagoa.

24. irudia. Euskararen irabaziak eta galerak adinaren arabera. Iparraldea, 2016 (%)



Galerak eta irabaziak Iparraldeko hiru lurraldeetan izan arren, ehunekoak ez dira berdinak.

BAMen, biztanleriaren %2,7k galdu du euskara osorik edo partzialki, eta %1,8k ikasi du euskara. Ikusten denez, gehiago dira galdu dutenak ikasi dutenak baino. Partzialki euskaldun berriak %4,1 dira.

Lapurdin (BAM gabe), biztanleriaren %4,7k galdu du euskara osorik edo partzialki. Dena dela, euskaldun berrien ehunekoa ere gero eta handiagoa da (%4,8), eta partzialki euskaldun berriak ere gero eta gehiago dira (%8,3). Horrek erakusten du Lapurdin gaur egun gehiago direla irabaziak galerak baino, euskaldun berrien hazkundeari esker.

Nafarroa Beherean eta Zuberoan, biztanleriaren %9,2k galdu du euskara osorik edo partzialki. Euskaldun berriak, aldiz, %2,2 dira, eta partzialki euskaldun berriak %7,5. Ikusten denez, askoz gehiago dira erdaldundu direnak euskaldundu direnak baino, hots, galerak irabaziak baino askoz handiagoak dira.

## 4. EUSKARAREN ERABILERA


### 4.1. EUSKARAREN ERABILERA LURRALDEAREN ARABERA

Iparraldean, 16 urte edo gehiagoko biztanleen % 18,3k euskara erabiltzen du neurri batean ala bestean:

- a. % 8,1ek euskararen erabilera trinkoa egiten du, hau da, euskara erdara bezainbeste edo gehiago erabiltzen du eguneroko jardunean.
- b. Aldi berean, % 10,2k euskara erabiltzen du, baina erdara baino gutxiago.

Gainerakoek erdara erabiltzen dute beti (% 77,2) edo ia beti (% 4,5).

25. irudia. Euskararen erabilerearen tipologia. Iparraldea, 2016 (%)




Euskararen erabilera neurtzeko, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak tipologia bat definitu du. Tipologia hori eratzeko kontuan hartu diren erabilera-eremuak honakoak dira:

- etxeke erabilera (etxekeak elkarrekin daudenean, bikotekidearekin, seme-alabekin, haurrideekin, aitarekin eta amarekin)
- lagunarteko erabilera
- erabilera formala (saltegiak eta bankuak batetik, eta osasun-zerbitzuak eta udal zerbitzuak bestetik)

Erabilerari buruzko emaitzetan desberdintasun handiak daude lurralde batetik bestera. Izan ere, euskara erdara bezainbeste edo gehiago erabiltzen dutenak, hau da, euskararen erabilera trinkoa egiten dutenak %0,8 dira BAMen, %9 Lapurdin (BAM gabe), eta %27,9 Nafarroa Beherean eta Zuberoan. Horietaz gain, euskara erabiltzen dutenak, baina erdara baino gutxiago, %7,2 dira BAMen, %18,5 Lapurdin (BAM gabe), eta %24,7 Nafarroa Beherean eta Zuberoan.


26. irudia. Euskararen erabilera lurraldearen arabera. Iparralde, 2016 (%)



Azken 20 urteotako bilakaera aztertuz gero, euskararen erabilerak behera egin du. Horrela, 20 urtean euskara erdara bezainbeste edo gehiago erabiltzen dutenen ehunekoak 5 puntuko apaltzea izan du (%13,3 zen 1996an, eta %8,1 da 2016an). Euskara erdara baino gutxiago erabiltzen dutenen ehunekoak gorabehera txiki batzuk izan arren, ez da askorik aldatu: puntu 1 baino gutxiago igo da 1996tik hona (%9,8 zen 1996an, eta %10,2 da 2016an).



27. irudia. Euskararen erabileraren bilakaera. Iparralde, 1996-2016 (%)



Euskara erdara bezainbeste edo gehiago erabiltzen dutenen jaitsiera hiru lurraldeetan gertatu da. BAMen euskararen erabilerak 1,4 puntu egin du behera, Lapurdin (BAM gabe) 4,9 puntu, eta Nafarroa Beherean /Zuberoan 15,9 puntu.

**9. taula.** Euskara erdara bezainbeste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera lurraldearen arabera. Iparraldea, 1996-2016

	1996	2001	2006	2011	2016
<b>Iparraldea</b>	<b>13,3</b>	<b>9,9</b>	<b>10,6</b>	<b>9,6</b>	<b>8,1</b>
BAM	2,2	1,5	1,6	2,1	0,8
Lapurdi (BAM gabe)	13,9	10,5	11,3	10,2	9,0
Nafarroa Beherea / Zuberoa	43,8	33,5	36,5	30,6	27,9
<b>Iparraldea</b>	<b>28.258</b>	<b>22.045</b>	<b>24.484</b>	<b>22.877</b>	<b>20.256</b>
BAM	2.018	1.456	1.620	2.009	835
Lapurdi (BAM gabe)	12.367	9.887	10.879	10.911	10.319
Nafarroa Beherea / Zuberoa	13.873	10.702	11.984	9.958	9.102

Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

## 4.2. EUSKARAREN ERABILERA SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA

Sexuari dagokionez, euskararen erabilera handiagoa da gizonezkoen artean emakumezkoen artean baino. Izan ere, euskara erdara bezainbeste edo gehiago erabiltzen dutenen portzentajea %9,1ekoa da gizonezkoen artean, eta %7,4koa emakumezkoen artean. Azken 20 urteotan, bere horretan mantendu da oro har gizonezkoen eta emakumezkoen erabileraren arteko aldea.

**10. taula.** Euskara erdara bezainbeste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera sexuaren arabera. Iparraldea, 1996-2016 (%)

	1996	2001	2006	2011	2016
Gizonezkoak	14,2	11,7	11,9	10,8	9,1
Emakumezkoak	12,5	8,4	9,5	8,5	7,4
<b>Guztira</b>	<b>13,3</b>	<b>9,9</b>	<b>10,6</b>	<b>9,6</b>	<b>8,1</b>

Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.


Euskararen erabilera adinaren arabera aztertuz gero, 65 urtetik gorako gizon-emakumeak dira euskara gehien erabiltzen dutenak, eta ehunekoa gero eta txikiagoa da adinean behera egin ahala. 65 urte edo gehiago dituztenen artean %13,5ekoa da euskara erdara bezainbeste edo gehiago erabiltzen dutenen ehunekoa, eta 16-24 urte bitartekoena, aldiz, %4,3koa. Hala ere, azpimarratu behar da gazteenen erabileraren ehunekoa 25 eta 34 urtekoen berbera dela (%4), eta ez dela jaitsi, aitzineko adin-taldeetan gertatzen den bezala.

Euskara erdara baino gutxiago erabiltzen dutenen ehunekoa, aldiz, handiagoa da adinean behera egin ahala: %7,3koa da 65 urte edo gehiagokoen artean, eta %14,1ekoa 16-24 urte bitartekoena.

Bilakaerari dagokionez, 1996 eta 2016 artean, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen ehunekoak behera egin du 25 urtetik gorakoen artean. Erabileraren apaltzea batez ere 50 urte edo gehiagokoen artean gertatu da.

Azpimarratzekoa da 16 eta 24 urte bitarteko gazteen artean euskararen erabilerak gora egin duela, batez ere euskara erdara bezainbeste edo gehiago erabiltzen dutenena (%1,3 zen 1996an, eta %4,3 da 2016an).

28. irudia. Euskararen erabileraren bilakaera adinaren arabera. Iparraldea, 1996-2016 (%)



Beti erdara erabiltzen dutenek nagusi izaten jarraitzen dute oraindik adin-talde guztietan.

Adinaren arabera jokoera horiek oro har errepikatzen dira Iparraldeko hiru lurraldeetan. 65 urtetik gorako herritarrak dira euskara gehien erabiltzen dutenak hiru lurraldeetan, eta ehuneko txikiagoa da adinak behera egin ahala. Gazteen artean (16-24 urte), ordea, lehen aldiz euskara erdara bezainbeste edo gehiago erabiltzen dutenen ehuneko ez da aurreko adin-taldearena (25-34 urte) baino txikiagoa.

**11. taula.** Euskara erdara bezainbeste edo gehiago erabiltzen dutenak lurraldearen eta adinaren arabera. Iparraldea, 2016 (%)

	Adina					
	Guztira	≥ 65	50-64	35-49	25-34	16-24
Iparraldea	8,1	13,5	8,0	6,0	4,0	4,3
BAM	0,8	1,5		0,9	1,1	0,4
Lapurdi (BAM gabe)	9,0	14,0	9,7	6,6	5,3	6,2
Nafarroa Beherea / Zuberoa	27,9	47,6	24,0	19,8	10,0	12,9

Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.


### 4.3. EUSKARAREN ERABILERA HAINBAT EREMUTAN: ETXEAN, LAGUNEN ARTEAN, EREMU FORMALEAN

#### EUSKARAREN ERABILERA ETXEAN

Iparraldean, 16 urte edo gehiagoko biztanleen % 9,5ek euskara erdara bezainbeste edo gehiago erabiltzen du etxean, % 7k euskara erabiltzen du, baina erdara baino gutxiago, eta gainerako % 83,5ek erdara erabiltzen du.

Etxeko kideen arteko erabileran ez dago desberdintasun handirik kide batzuen eta beste batzuen artean. Etxeko kideen arteko euskararen erabilerarik handiena haurrideekin egiten da. Izan ere, % 13,5ek euskara erdara bezainbeste edo gehiago erabiltzen du haurrideekin. Erabilerarik txikiena, aldiz, aitarekin (% 8,5) eta bikotekidearekin (% 9) da. Seme-alabekin % 9,3k erabiltzen du euskara erdara bezainbeste edo gehiago, eta amarekin % 10ek.

29. irudia. Etxean euskara erdara bezainbeste edo gehiago erabiltzen dutenak. Iparraldea, 2016 (%)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

Azken 20 urteotako bilakaera kontuan hartuz gero, euskararen erabilerak behera egin du etxean orokorrean, eta etxeko kideen artean. Apaltzeak 6 puntukoak edo handiagoak izan dira. Jaitsierarik handiena aitarekin eta amarekin egiten den erabileran gertatu da, nahiz eta azken bost urteotan ehunekoak ez duen behera egin.

12. taula. Etxean euskara erdara bezainbeste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera. Iparraldea, 1996-2016 (%)

	1996	2001	2006	2011	2016
Etxean denak elkarrekin daudenean	16,0	11,9	12,4	10,7	9,5
Bikotekidearekin	16,5	12,2	10,6	10,8	9,0
Haurideekin	16,5	10,7	12,3	11,1	9,4
Amarekin	19,2	13,8	15,6	9,9	10,0
Aitarekin	17,8	13,6	15,5	8,2	8,5
Neba-arrebekin	19,6	15,0	16,8	13,7	13,6

Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

## EUSKARAREN ERABILERA LAGUNARTEAN

Iparraldean 16 urte edo gehiagoko biztanleen % 12,6k euskara erdara bezainbeste edo gehiago erabiltzen du lagunekin: % 7,5ek euskara erabiltzen du, baina erdara baino gutxiago, eta gainerako % 79,9k erdara erabiltzen du.

Azken 20 urteotan, 4,6 puntu egin du behera lagunekin euskara erabiltzen dutenen ehunekoak, eta 1,7 puntu egin du gora euskara erabiltzen dutenenak, erdara baino gutxiago bada ere: % 5,8 ziren 1996an, eta % 7,5 dira 2016an.

**13. taula.** Lagunekin euskara erdara bezainbeste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera. Iparraldea, 1996-2016 (%)

	1996	2001	2006	2011	2016
Erabilera lagunekin	17,2	14,1	17,0	14,5	12,6

Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

## EUSKARAREN ERABILERA EREMU FORMALEAN


Atal honetan hiru erabilera-eremu aztertuko ditugu: erabilera lankideekin, erabilera eremu pribatuan (saltegikoekin eta bankukoekin) eta erabilera eremu publikoan (osasan-zerbitzukoekin eta udal zerbitzukoekin).

2016an, lankideekin euskara erdara bezainbeste edo gehiago erabiltzen dutenak % 10,3 dira Iparraldean. Euskara erabiltzen dutenak, baina erdara baino gutxiago % 5,9 dira, eta beti erdara erabiltzen dutenak % 83,8.

Eremu pribatuan, saltegikoekin % 5,8k erabiltzen du euskara erdara beste edo gehiago, eta bankukoekin % 2,3k. Bi erabilera-eremu horietan euskara erabiltzen dutenak, baina erdara baino gutxiago % 6,2 eta % 2,5 dira hurrenez hurren.

Eremu publikoari dagokionez, osasan-zerbitzukoekin % 4,2k erabiltzen dute euskara erdara bezainbeste edo gehiago, eta udal zerbitzukoekin % 7,9k.

**30. irudia.** Eremu formalean euskara erdara bezainbeste edo gehiago erabiltzen dutenak. Iparraldea, 2016 (%)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

Azken 20 urteotan, 1,6 puntu egin du behera lankideekin euskara erdara bezainbeste edo gehiago erabiltzen dutenen ehunekoak, 4,9 puntu saltegikoekin eta 6,8 puntu bankukoekin. Eremu publikoan, apaltzea 1,5 puntukoa izan da osasun-zerbitzukoekin, eta 6,5 puntu udal zerbitzukoekin.

**14. taula.** Eremu formalean euskara erdara bezainbeste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera. Iparraldea, 1996-2016 (%)

	1996	2001	2006	2011	2016
Lankideekin	11,9	8,5	10,9	10,9	10,3
Saltegikoekin	10,7	7,6	7,4	6,6	5,8
Bankukoekin	9,1	6,9	5,7	3,0	2,3
Osasun-zerbitzukoekin	5,7	6,2	4,0	3,5	4,2
Udal zerbitzukoekin	14,4	9,1	10,2	8,3	7,9

Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.



#### 4.4. EUSKARAREN ERABILERA SARE SOZIALETAN

Inkestatuen % 55,6k Interneteko sare sozialak erabiltzen ditu, eta horietatik % 36,7k egunero. Erabiltzaileen adinari dagokionez, 16-24 urte bitartekoen % 81,7k eta 25-34 urte bitartekoen % 65,6k sare sozialak egunero erabiltzen dituzte. Hortaz, zenbat eta gazteago izan sare sozialen erabiltzailea, orduan eta erabilera handiagoa.

Interneteko sare sozialetan gehien erabiltzen den hizkuntza frantsesa da. Hala ere, erabiltzaileen % 3,6k maiztasun handiz erabiltzen du euskara (% 50eko edo gehiagoko erabilera). Gazteen artean (16-24 urte), euskara maiztasun handiz erabiltzen dutenak % 6,1 dira. Frantsesaz eta euskaraz gain, erabiltzaileek beste hizkuntza batzuetan ere dihardute Interneten, nagusiki ingelesez (% 11,3).

#### 4.5. EUSKARAREN ERABILERAN ERAGITEN DUTEN FAKTOREAK: KORRELAZIOAK

Euskararen erabileran eragiten duten faktoreak ezagutzeko, korrelazioen analisisia egingo dugu. Korrelazioak aldagai batean beste aldagai batzuek duten eragina erakusten digu. 0 eta 1 arteko zenbaki baten bidez adierazten da, eta 1etik zenbat eta hurbilago egon, orduan eta handiagoa da eragin hori.

Hiru erabilera-eremuren araberako korrelazioak atara dira: etxeko erabilera, lagunartekoa eta lankideen artekoa. Guztietan, hurrenkera zerbait aldatu arren, bi dira erabileran gehien eragiten duten faktoreak: harreman-sareko euskaldunen dentsitatea (zenbatek dakien euskara etxean, lagunartean edo lankideen artean, eta gune soziolinguistikoa) eta erraztasuna (lehen hizkuntzarekin lotura zuzena duena).

Etxeko erabileran gehien eragiten duen faktorea etxeko euskaldunen dentsitatea da, hau da, zenbatek dakien euskaraz etxean (0,694). Bigarren faktorea erraztasuna da (0,527), eta hirugarrena, gune soziolinguistikoa (0,418). Etxeko erabileran gehien eragiten duen laugarren faktorea jarrera da (0,291).

**15. taula.** Korrelazioak: euskararen erabilera etxean. Iparraldea, 2016

	Zenbatak daki euskaraz	Zein hizkuntzatan errazago	Gune soziolinguistikoa	Jarrera
Zein hizkuntzatan hitz egiten duzue etxean	0,694	0,527	0,418	0,291

Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

Iparraldean, lagunarteko erabileran ere gehien eragiten duen faktorea lagunarteko euskaldunen dentsitatea da, hau da, zenbatak dakien euskaraz lagunartean (0,737). Bigarren faktorea erraztasuna da (0,568), eta hirugarrena, gune soziolinguistikoa (0,387). Laugarren faktore gisa jarrera agertzen da (0,343).

**16. taula.** Korrelazioak: euskararen erabilera lagunekin. Iparraldea, 2016

	Zenbatak daki euskaraz	Zein hizkuntzatan errazago	Gune soziolinguistikoa	Jarrera
Zein hizkuntzatan hitz egiten duzue lagunekin	0,737	0,568	0,387	0,343

Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

Lankideen arteko erabileran ere lankideen artean zenbatak dakien euskaraz da faktore nagusia (0,860). Bigarren faktorea erraztasuna da (0,298), eta hirugarrena, gune soziolinguistikoa (0,168). Laugarren faktore gisa jarrera agertzen da (0,139).

17. taula. Korrelazioak: euskararen erabilera lankideekin. Iparraldea, 2016

	Zenbatak daki euskaraz	Zein hizkuntzatan errazago	Gune soziolinguistikoa	Jarrera
Zein hizkuntzatan hitz egiten duzue lankideekin	0,860	0,298	0,168	0,139


Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

#### 4.6. EUSKARAREN ERABILERA EUSKALDUNEN ARTEAN

Orain arte ikusi ditugun erabilera-datuak gizarte osoarekikoak izan dira, hau da, Iparraldeko 16 urte edo gehiagoko biztanle guztiak kontuan hartuz. Jarraian emango ditugunak, aldiz, euskaldunak bakarrik kontuan hartuta izango dira, euskararen erabileran eragiten duten faktoreak ezagutzeko egiten den korrelazioen analisiarekin egiten den bezala.

Iparraldeko euskaldunen %39,6k euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen du, %37,3k euskara erabiltzen du, baina erdara baino gutxiago, eta gainerako %23,1ek oso gutxitan erabiltzen du euskara edo erdaraz mintzatzen da beti.

31. irudia. Euskararen erabilera euskaldunen artean. Iparraldea, 1996-2016 (%)



Azken 20 urteotako bilakaera aztertuz gero, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen duten euskaldunen ehunekoak 10,6 puntu egin du behera Iparraldean. Aitzitik, gora egin du euskara erdara baino gutxiago erabiltzen duten euskaldunena (5,6 puntu).

18. taula. Euskararen erabileraren bilakaera euskaldunen artean. Iparraldea, 1996-2016 (%)

	1996	2001	2006	2011	2016
Euskaldunak guztira	56.146	54.647	51.761	51.100	51.197
Euskaraz erdaraz baino gehiago	20,5	18,1	15,8	11,5	9,4
Euskaraz erdaraz beste	29,7	22,0	31,2	33,1	30,2
Euskaraz erdaraz baino gutxiago	31,8	37,9	39,3	34,9	37,3
Oso gutxi euskaraz	6,8	8,2	7,6	11,7	12,7
Beti erdaraz	11,3	13,8	6,1	8,7	10,4

Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

Adinari dagokionez, 1996 eta 2016 bitartean euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen ehunekoak behera egin du 50 urtetik gorako euskaldunen artean. Hala ere, oraindik adin-talde horretan dago euskara erabiltzen dutenen ehunekorik handiena.


50 urtetik beherako euskaldunen artean, erabilera-datuak apalagoak badira ere, azken 20 urteotako bilakaera oro har positiboa izan da, hau da, gora egin du euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen ehunekoak.

#### 4.7. EUSKARAREN ERABILERA EUSKALDUNEN ARTEAN ERRAZTASUNAREN ARABERA

Korrelazioen atalean azaldu den bezala, erraztasunak eragin handia du euskara erabiltzeko orduan. Iparraldeko euskaldunen artean, euskaraz errazago moldatzen direnen %85ek erabiltzen du euskara erdara beste edo gehiago.

Elebidun orekatuen artean, erdia baino gutxiago dira (%45,1) euskara erdara baino gehiago erabiltzen dutenak; eta azkenik, erdaraz hobeto moldatzen direnen %13,7.

**32. irudia.** Euskara erdara bezainbeste edo gehiago erabiltzen duten euskaldunak erraztasunaren arabera. Iparraldea, 2016 (%)



## 5. EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEARI BURUZKO JARRERA

### 5.1. EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEARI BURUZKO JARRERA LURRALDEAREN ARABERA


Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera ezagutzeko, euskara sustatzearen alde edo kontra inkestatuek erakutsi duten lau iritziren arabeko tipologia eratu da.

Honako hauek dira tipologia osatzeko aintzat hartu diren iritziak:

- Administrazioan sartzeko euskara jakitea beharrezkoa da
- Hobe da jendeak ingelesa ikastea euskara ikastea baino
- Ezinbestekoa da haur guztiek euskara ikastea
- Irrati/telebistek programa gehiago behar lukete euskaraz


Iparraldeko 16 urte edo gehiagoko biztanleen %35,3 euskararen erabilera sustatzearen alde dago, %47,5 ez alde ez aurka, eta % 17,1 aurka dago.

33. irudia. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera. Iparraldea, 2016 (%)



1996ko eta 2016ko datuak konparatuz, Iparraldean euskararen erabilera sustatzearen aldeko jarrerak 7 puntuko apaltzea izan du (%42,3 versus %35,3). 2016an, gehiago dira ez alde ez aurka agertzen direnak (%47,5 versus %45), eta handitu egin da aurka daudenen ehunekoa (%12,7 versus %17,1).

**34. irudia.** Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarreraren bilakaera. Iparraldea, 1996-2016 (%)



Euskara sustatzearen aldeko jarrera handiagoa da Nafarroa Beherean eta Zuberoan (%55), Lapurdin (%37,6) eta BAMen (%26,4) baino.

**19. taula.** Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera lurraldearen arabera. Iparraldea, 2016 (%)


	BAM	Lapurdi (BAM gabe)	Nafarroa Beherea / Zuberoa
Alde	26,4	37,6	55,0
Ez alde ez aurka	52,5	47,6	32,0
Aurka	21,1	14,8	13,1

Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

Jarreraren tipologia osatzeko erabili diren iritzien erantzunak honako hauek dira:

- Administrazioan sartzeko euskara jakitea beharrezkoa dela pentsatzen du Iparraldeko biztanleen %51,3k, eta %15,1 ez dago ez alde ez aurka. Bestalde, %31,7 dira iritzi horren aurka daudenak, eta beste %2k ez du erantzun.
- Hobe dela jendeak ingelesa ikastea euskara ikastea baino, pentsatzen du %43k (euskararen erabilera sustatzearen kontrakoak), eta %22,6 ez dago ez alde ez aurka. %32,6 dira iritzi horren aurka daudenak (euskararen erabilera sustatzearen aldekoak). Beste %1,9k ez du erantzun.
- Ezinbestekoa dela haur guztiek euskara ikastea pentsatzen du %52,2k, %17,7 ez dago ez alde ez aurka, %28,7 aurka dago, eta %1,4k ez du erantzun.
- Azkenik, irrati eta telebistek programa gehiago beharko luketela euskaraz pentsatzen du %44,4k, %32,6 ez dago ez alde ez aurka, %16 aurka dago, eta %7k ez du erantzun.

35. irudia. Jarreraren tipologia osatzeko erabilitako iritziak. Iparraldea, 2016 (%)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.



## 5.2. EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEARI BURUZKO JARRERA HIZKUNTZA-GAITASUNAREN, SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA

Euskararekiko jarrerak lotura handia du hizkuntza-gaitasunarekin. Izan ere, euskaldunen %66,7 dago euskararen erabilera sustatzearen alde, euskaldun hartzaileen %52 eta erdaldunen %23,9.

Sexua begiratzuz, ez dago desberdintasun handirik oro har euskararen erabilera sustatzearen aldeko edo aurkako jarreran. Gizonezkoek emakumezkoek baino aldeko jarrera handixeagoa dute (%35,8 versus %34,9). Aurkako jarrera, aldiz, ia berdina da: %17,3 emakumezkoek eta %17 gizonezkoek.

20. taula. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera sexuaren arabera. Iparraldea, 2016 (%)


	Alde	Ez alde ez aurka	Aurka
<b>Guztira</b>	<b>35,3</b>	<b>47,5</b>	<b>17,1</b>
Emakumezkoak	34,9	47,8	17,3
Gizonezkoak	35,8	47,2	17,0

Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

Adinari dagokionez, euskararen erabilera sustatzearen aldeko jarrerarik handiena 35 urte edo gehiagokoek dute (%35 baino gehiago daude alde). 16-24 urte bitarteko gazteak dira, aldiz, euskararen erabilera sustatzearen aldeko jarrera txikiena dutenak (%30,6).

### 5.3. EUSKARARI BURUZKO INTERESA ETA BESTE ZENBAIT IRITZI

Euskarari buruzko interesari dagokionez, Iparraldeko biztanleriaren %58,5ek interes handia edo oso handia du euskararekiko, %23,2k zertxobait, %9,2k interes txikia, %7,5ek ez du batere interesik, eta azkenik, %1,5ek ez daki edo ez du erantzun.




Euskarari buruzko bestelako iritzi batzuekin jarraituz, Iparraldeko 16 urte edo gehiagoko biztanleen %60,2k (%48 zen 2006an) murgiltze-eredua (2016an %19,2 eta 2006an %12) edo eredu elebiduna (2016an %41 eta 2006an %36) aski luke seme-alabentzat (euskaraz, frantsesa ikasgai gisa edo euskaraz eta frantsesez, hurrenez hurren), eta gutxiago dira frantsesa nagusiki erabiltzen duen irakaskuntza aski luketenak (%35,1).

Duela 20 urte, hau da, 1996an, txikiagoa zen murgiltze-ereduaren eta eredu elebidunaren aldeko hautua (%41,4) eta handiagoa, aldiz, frantsesa soilik edo euskara ikasgai gisa soilik erabiltzen duen irakaskuntzaren aldekoa (%56).

Azpimarratzekoa da 20 urtean ikasgaiak euskaraz irakastearen aldeko hautuak, murgiltze-ereduaren aldekoak, alegia, izan duen hazkundera, 12 puntukoa hain zuzen ere (%7 versus %19,2).

37. irudia. Seme-alabarik izanez gero, zein hizkuntzatan nahiko zenuke haiek ikastea?  
Iparraldea, 1996-2016 (%)



Bestalde, 16 urte edo gehiagoko biztanleen %93,3k etorkizunean euskaraz eta frantsesez hitz egin beharko litzatekeela pentsatzen du, %2,3k euskaraz soilik, eta %3k frantsesez soilik.

Era berean, euskaldunei galdetu zaie ea inoiz diskriminatuak sentitu diren euskara erabiltzeko aukera ez izateagatik, eta %24,8k erantzun du diskriminatua sentitu dela.

Euskarari buruzko beste iritzi batzuez ere galdetu zaie inkestatuei. Laburbilduz, emaitzak honako hauek dira:

- Iparraldeko 16 urte edo gehiagoko biztanleen artean nagusi dira euskara beharrezkoa dela jendearekin komunikatzeko pentsatzen dutenak: %44,8 alde dago, eta %39,7 aurka.
- Iparraldean, %47,6k pentsatzen du euskarak ez duela frantsesak duen garrantzia izango. Biztanleriaren laurdenak kontrakoa pentsatzen du (%25,8). Beste %20,5 ez dago ez alde ez kontra.

- Euskara soilik etxeoekin eta lagunekin erabiltzeko dela baieztapenaren aurka dago biztanleriaren %75,1, eta %16,5 alde. Gainerakoak ez daude ez alde ez aurka, edo ez dute erantzun.
- Bi hizkuntza izateak ez duela arazorik sortzen gizartean pentsatzen du %80,4k; %12,6k, aldiz, pentsatzen du arazoak sortzen dituela.
- Umeak murgiltze-ereduetan sartzea ona dela pentsatzen du %80,8k, eta kontrakoa %9,4k.
- Euskaldunek ezezagunei lehen hitza euskaraz egiteari dagokionez, Iparraldeko biztanleen %42,9 ados dago eta %32,4 aurka, eta %20,9 ez dago ez alde ez aurka.
- Euskaraz egiten duten dendetara joatea nahiago izateari buruz, %43,2 aurka dago, %17,9 alde, eta ez alde ez aurka %32,4.
- Azkenik, euskara ez dago galtzeko arriskuan Iparraldeko biztanleriaren %45,7ren ustez. Dena dela, %41,1ek alderantziz uste du, euskara galtzeko arriskuan dagoela, hots. Gainerakoak ez daude ez alde ez aurka, edo ez dakite edo ez dute erantzun.
- Euskaldunak bakarrik kontuan hartuz, alderantziz gertatzen da: %46,3k pentsatzen du euskara galtzeko arriskuan dagoela, eta %41,6k ez dagoela galtzeko arriskuan.

## 6. LABURBILDUZ

- Iparraldeko biztanleriak bi ezaugarri adierazgarri ditu: gero eta gizarte zaharragoa da (65 urtetik gorakoak 20 urtetik beherakoak baino gehiago dira: %23,2 versus %20,8), eta kanpotik etorritako pertsonen proportzioa handia da, bereziki kostaldean. Ondorioz, migrazio-saldo positiboaren eraginez, Iparraldeko biztanleria emendatzen ari da, baina saldo naturala negatiboa da (11 heriotza 1.000 biztanleko versus 9,3 sortze 1.000 biztanleko).
- Iparraldean 16 urte edo gehiagoko biztanleen %20,5 euskalduna da, %9,3 euskaldun hartzaillea, eta %70,1 erdalduna. Iparraldeko euskaldunak duela 20 urte baino gutxiago dira (5.000 gutxiago), eta hauen kopuru erlatiboak gutxituz jarraitzen du (kanpotik datorren biztanleria dela medio, bereziki), baina, lehen aldiz, zenbaki absolutuetan euskaldunen kopurua egonkortu da: gaur egun, 51.200 euskaldun daude, hots 2011n bezainbat.
- Iparraldean, proportzionalki, Nafarroa Behera eta Zuberoa eremu euskaldunena da (biztanleriaren %49,5), erran nahi baita 16.200 euskaldun daudela. Lapurdi barnealdean da euskaldunen kopururik handiena: 26.300 hiztun, biztanleriaren %23. BAMen, %8,4 euskalduna da, 8.600 hiztunekin.
- Zaharrenek (65 urtetik gorakoek) euskaldunen zati nagusia osatzen dute oraindik: euskaldunen %30. Haatik, azken hamar urteotan agertzen zen joera konfirmatzen da: euskaldun gazteen kopuruak eta proportzioak iraunkorki emendatuz jarraitzen dute. Horrela, 16-24 urte bitartekoen artean, euskaldunen kopuruak handitzen jarraitzen du, bai aitzineko inkestekin konparatuz eta bai 25-34 urteko adin taldearekin konparatuz: 2016an, %18,9 dira 16-24 urte bitarteko euskaldunak, %11,3 zirelarik 1996an, eta %15,7, 25-34 urte bitartekoak.
- Hamar euskaldunetik zortzi pasatxo euskaldun zaharrak edo jatorrizko elebidunak dira, hau da, etxean eskuratu dute euskara. Adinak behera egin ahala, aldiz, gero eta handiagoa da euskaldun berrien ehunekoa. Izan ere, 16-24 urte bitarteko euskaldunen erdiak baino gehiagok (%52,9) etxetik kanpo ikasi du euskara, eskolan edo euskaltegian.

- Euskaldunek euskaraz egiteko duten erraztasunari dagokionez, behera egin du azken 20 urteotan. 1996an, euskaldunen %34 hobeto moldatzen zen euskaraz erdaraz baino, eta orain %20,1 da, eta gazteen artean %8,8.
- Familia bidezko transmisioaren sendotzea konfirmatzen da. Izan ere, gaur egun, 16 urtetik beherako seme-alabak dituzten guraso euskaldun gehienek euskara transmititzen dute. Bi gurasoak euskaldunak direnean, seme-alaben %86,3k euskara eskuratzen du etxean (ber kopurua zen 2011n, eta %81ekoa 2006an); %66,1ek euskara soilik, eta %20,2k erdararekin batera. Bikote mistoetan, erdia baino gehiago dira euskara etxean eskuratzen duten haurrak, erdararekin batera (2016an %53,8, 2011n %56 eta 2006an %44,4).
- Iparraldeko biztanleen %8,1ek euskararen erabilera trinkoa egiten du, hau da, euskara erdara bezainbeste edo gehiago erabiltzen du. Beste %14,7k euskara erabiltzen du, baina erdara baino gutxiago.
- Euskararen erabilera trinkoak behera egin du Iparraldean (5 puntuko jaitsiera 1996 urteari konparatuz, 1,5 puntu gutiago 2011 urteari konparatuz), batez ere Nafarroa Beherean eta Zuberoan, baina apaltzea moteldu da azken urteotan (15,9 puntu 20 urtean, 2,7 puntu gutiago 5 urtean). Lapurdi barnealdean eta BAMen ere behera egin du, baina neurri txikiagoan (1,2 Lapurdin eta 1,3 BAMen 2011z geroztik). Euskararen erabilerak behera egin du esparru guztietan, hau da, etxean, esparru hurbilean eta esparru formalean.
- Erabilera adinaren arabera aztertuz gero, erabilerarik handiena 65 urte edo gehiagokoek dute, eta apaltzen da adinean behera egin ahala. Dena dela, inkesta honetan joera aldaketa bat nabari da 16-24 adin-taldean, erabilera trinkoaren emendatzea ageri baita, 25-34 adin-taldearekin konparatuz (%4,3ko erabilera eta %4koa hurrenez hurren). 1996 eta 2016 artean, ohiko erabilera apaldu da adin-talde guztietan, 16-24 urte bitartekoen artean izan ezik. Gazteenen artean erabilerak gora egin du (%1,3 zen 1996an, eta %4,3 da 2016an). Gisa berean, ohartzen gara azken 5 urteotan, 16-24 urte arteko adin taldean ere noizbehinkako erabilera igo dela (2016an %14 versus 2011n %12,1).

- Euskararen erabilera sustatzearen aldeko jarrerak aldaketa txiki batzuk izan ditu 1996 eta 2006 artean, baina behera egin du azken 10 urteotan (5,9 puntu gutxiago). 2016an, biztanleen % 35,3 euskararen erabilera sustatzearen alde dago, % 47,5 ez dago ez alde ez aurka, eta aurka daudenak gutxiengoa dira, % 17,1.
- Biztanleen gehiengoak interes handia erakusten du euskararekiko (% 58,5). Irakaskuntzari dagokionez, murgiltze-eredua edo eredu elebiduna hautatzen dutenen ehunekoa, inkesta batetik bestera igotzen doa: 2016an % 60, 2011n % 53 eta 1996an % 40. Bestalde, 16 urtetik gorakoen gehiengo handiak (% 93,3) etorkizunean euskaraz eta frantsesez hitz egin beharko litzatekeela uste du (% 2,3k euskaraz soilik, eta % 3k frantsesez soilik).







KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA  
DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

